goiena
Zu hemen zaude.
2023-12-01 EGUBAKOITZA / 1.016. ZENBAKIA / 24. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM



Aretxabaletan, GSR zaharren egoitzaren aurrean. MIRARI ALTUBE




Arrasaten, iluntzean egin zen eskualde mailako manifestazioa. IMANOL SORIANO



Solasaldiak, Bergaran. ENEKO AZURMENDI



Prestaketetan, Oñatin. TXOMIN MADINA

A30: GREBA FEMINISTA OROKORRA

# Zaintza publikoa aldarrikatu dute mobilizazio jendetsuetan

Greba deialdiak erantzun askotarikoa izan du; hezkuntzan eta sektore publikoan igarri da gehien; industrian, gutxien. Herri guztietan egin dituzte kale agerraldiak / 2



Elkarretaratzea, Antzuolan. AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ




EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2023 / 15




Deitu eta bisitatu trastelekuak



INBISA

Trastelekuak salgai

Erdiko Kalea, 35 (Arrasate)

Informazioa eta salmenta: 944 536 675



Arrasateko mugimendu feministako Dorleta Kortazar eta Iraitz Agirre, atzo, zaintzaileen egoeraren berri ematen. ARGAZKIAK: GOIENA




Pankarta Oñatiko Fagor Professional-en; Fagorreko kooperatiba gehienek lan egin zuten.

# Denon zaintza helburu, bizitzak erdigunean jartzeko aldarri ozena

Greba egunean zehar hainbat mobilizazio izan ziren egun osoan zehar Debagoienean; deitzaileen arabera, erantzuna "oso ezberdina" izan zen sektorearen arabera

**Jokin Bereziartua Lizarazu**
DEBAGOIENA

Greba feminista orokorraren bueltan ekintza eta mobilizazio ugari antolatu zituzten atzo Debagoienean, zaintza eskubide kolektiborako aldarria ozen entzun zedin. Pikete informatiboek paso eman zieten kalejira, manifestazio eta elkarretaratzeei, betiere, euria protagonista.

**Mobilizazio ugari herri guztietan**

Arrasaten, 09:00ak inguruan, Seber Altube plazan jarritako informazio gunetik ekin zioten kalejirari, eta zaintza gune batzuetan gelditzeaz gain, herritarrei grebaren inguruko informazioa banatzen aritu ziren ibilbidean zehar. Eguerdian, elkarretaratzea egin zuten Herriko plazan, eta Arrasateko mugimendu feministako Dorleta Kortazarrek eta Iraitz Agirrek ahotsa jarri zieten egunerokoan zaintza lanetan diharduten langileei. Iluntzean manifestazioa ere egin zuten Arrasaten; zutabe bat ospitaletik eta beste bat Maiatzaren Lehena plazatik abiatuta, Biteri plazan elkartu ziren.

Bergaran, 09:00etan, Espoloitik kalejiran irten ziren elkartasun piketeak, herrian zehar grebaren berri emateko. Eguerdian, manifestazioa abiatu zuten San Martin plazatik; pribatizazioaren eta merkantilizazioaren aurka, zaintza lanetan eta sektore feminizatuetan "baldintza onartezinetan" bizi diren emakumeen eskubideen alde egiteko, eta, aldi berean, gaur egungo sistema mantentzen dutenei ardura eta erantzukizuna exijitzeko irten ziren kalera hainbat herritar. "2018an ireki genuen prozesutik hausnartu dugu; greba eguna inflexio puntua izango da, baina badakigu borroka luzea izango dela", esan zuen Bergarako Neska Gazteak taldeko Andrea Gonzalezek.

**Zaintza guneetara bisitak**

Oñatin ere, plazatik hasi eta Olakua auzoraino luzatu zen kalejira-manifestazioan, geldialdiak egin zituzten zaintza guneetan. "Gizarteko sektore batentzat zaintza ezaguna da, adin nagusikoen edo adin txikikoen ardura dutelako. Aldiz, jende asko bizi da errealitate horretatik kanpo, eta, horregatik,

## "INFLEXIO PUNTUA IZAN ARREN, BORROKA LUZEA IZANGO DA"

ANDREA GONZALEZ, BERGARAKO NESKA GAZTEAK TALDEKO KIDEA

## "ZAINTZAK BIZI DUEN EGOERAZ IKASTEKO ERE BALIO IZAN DU"

JONE ARRAZOLA, OÑATIKO GREBA BATZORDEKO KIDEA

## "ETORKINEN EGOERA HOBETU BEHAR DUGU, OSO LARRIA DA-ETA"

AXUN BADIOLA, ESKORIATZAKO MUGIMENDU FEMINISTAKO KIDEA

**Arnasetik lehiaketan 112 sormen lan osatu dituzte gazteek**

**BIDEOSORMEN LEHIAKETAREN BIGARREN EDIZIOAK SORMENA SUSTATU DU EUSKARAREN ARNASGUNEETAKO GAZTEEN ARTEAN.**



Euskaraz sortuko duten sortzaileak behar ditu euskarak, eta hauen arrastoaren atzetik euskararen arnasguneei bisita egin die "Arnasetik" bideosormen lehiaketak. Arnasa Gara ekimenak antolatutako lehiaketa honen bigarren edizio honetan arnasguneetan bizi diren 10-16 urte bitarteko gazteek hartu dute parte, bai eta arnasguneetako ikasleak jasotzen dituzten ikastetxeetako ikasleek ere. Lehiaketaren bigarren edizioa oso arrakastatsua izan da, iaz baino 13 lan gehiago jaso direlarik.

Ekimena euskararen arnasguneen garrantzia gizarteratzeko eta bertako herritarrak ahalduntzeko helburuarekin jaio zen, UEMAk, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak sustatuta. Aurten "Arnasetik" sormen lehiaketa izan du ardatz ekimenak, eta arnasguneetako gaztetxoenak izan ditu jomugan, haien hizkuntza ohituren inguruan gogoeta egiteko eta haien sormena sustatzeko. Izan ere, euskaldun eduki sortzaile gisa ere funtsezkoak dira euskararen biziberritze prozesuan.

*Idiazabal, Azkoitia, Ataun eta Doneztebeko gazteak izan dira irabazleak.*

*Jasotako 112 lanetan jarri da marka berria eta haien kalitatea azpimarratzekoa izan da.*

*10-16 urte bitarteko gaztetxoek parte hartu dute.*

**www.arnasagara.eus**


Aretxabaletako manifestazioaren geldialdia GSR zentroan; bertako langileak atarira irten ziren txalo egitera.


Greba eguneko bazkaria Bergaran.


Zapia jartzen, Arrasateko Seber Altuben.

kalejirak balio izan du zaintzak bizi duen egoeraz jabetzeko", esan zuen Oñatiko Greba Batzordeko kide Jone Arrazolak.

Aretxabaletan ere, plazatik grebara batzeko dei egin ostean, zaintza lanetan dihardutenei babesa adierazteko kalejira egin zuten. Bitartean, Eskoriatzan, burrundararekin hasi zuten eguna; gero, gosari kolektiboa egin zuten, eta, ondoren, zaharren egoitzara abiatu ziren bertako langileei aurreskua dantzatu eta besarkada kolektiboa emateko. Eskoriatzako mugimendu feministatik funtsezkotzat jo zuten greba, etorkinen egoeran ere arreta jarrita. "Gabezia asko eta handiak daude, eta ezin gara ahaztu emakume etorkinen egoeraz; euren egoera hobetu behar dugu, oso larria da-eta".

Antzuolan 100 lagundik gora batu ziren eguerdiko elkarretaratzera. Elgetan, eguerdian, Amantalak talde feministak deituta, manifestazio zaratatsua egin zuten. Aramaion, auto-karabana bidez grebaren berri eman ostean, zaintza tailerra egin zuten kultura etxean, esaterako.

**Jarraipena, sektorearen arabera**

Grebak izan zuen erantzuna oso ezberdina izan zen sektorearen arabera. Oñatiko Greba Batzordearen arabera, "desorekatua" izan zen erantzuna, eta azpimarratu zuten gizonak nagusi diren lantegietan jarraipena oso txikia izan zela; horien artean, kooperatibak aipatu zituzten: "Gizonak nagusi diren kooperatibetan bozketa gehienetan ezezkoa irten da; kooperatibak izanda, zer pentsatua eman beharko liguke, berez balio etikoak eta ardura soziala badituztelako eta horregatik onura ekonomikoak jasotzen dituztelako, besteak beste, Ogasunetik. Ez dute erantzun". Industrian jarraituz, Natra Oñati, Arcelor Mittal, Polmetasa eta JMA izan ziren greba egin zutenetako batzuk; kontrara, Fagor taldeko kooperatiba gehienek lan egin zuten. Bestalde, grebak erantzun handia izan zuen Mankomunitatean, udaletan eta ikastetxeetan; ostalaritzan eta komertzioetan erantzuna askotarikoa izan zen. Hainbat komertziok egun osoz itxi zuten, esaterako, Arrasateko Musakolako Eroskik. Beste denda batzuk, aldiz, mobilizazioak izan ziren unean itxi zituzten.

## GREBAK IZAN ZUEN ERANTZUNA "OSO EZBERDINA" IZAN ZEN SEKTOREAREN ARABERA

Goiena Komunikazio Taldeko langileek ere bat egin zuten greba feminista orokorrarekin, eta zerbitzu minimoak baliatuta eman zen grebaren berri.



# Arantzazuko ondarea, dokumental batean jasoa

Frantziskotarrek arlo sozial, kultural eta espiritualean herriari egin dioten ekarpena jasotzen duen dokumentala aurkeztu zuten Gandiaga Topagunean. Pello Sarasuak zuzendu du Arantzazutik urteetan egin den ekarpena ezagutzera emateko lana

**Iñigo Barrena Kortabarria** OÑATI

Arantzazuko Gandiaga Topagunean egin zuten Arantzazulab-Arantzazu Gaur fundazioak sustatutako *Arantzazu. 36 zm, 5 mende, herri 1* dokumentalaren aurkezpena. 40 lagun inguruko aforo mugatu batek ikusi ahal izan zuen Arantzazu eta frantziskotarrak ardatz dituen dokumentala. Arantzazutik urteetan egin den ekarpena ezagutzera emateko 70 minutuko dokumentalak elkarrizketa bidez jasotako lekukotzak erakusten ditu, istorioari barruko nahiz kanpoko ikuspegia emateko. Alde batetik, zazpi frantziskotarren testigantzak jaso dira, eta, bestetik, Arantzazurekin modu batean edo bestean harremana izan duten beste zenbait pertsonarenak.


Aurkezpenean egon ziren ordezkari batzuk. ARANTZAZULAB

Pello Sarasua zuzendariak azaldu zuen frantziskotarrek harreman "oso estua" izan dutela herriarekin, eta ekarpenak egin dituztela arlo espiritualean, sozialean nahiz kulturalean. Hain zuzen, protagonistetako bat da Joxe Mari Arregi frantziskotarra, eta gustura agertu da emaitzarekin: "Askorentzat, Arantzazu erreferentzia izan da eta da oraindik ere. Baina beste askok ez dute asko ezagutuko Arantzazu eta berarekin lotura duten hainbat ekarpen. Dokumentalak horretarako balio badu, ondo".

### Gizarteari egindako ekarpenaz

Dokumentalaren sustatzailea den Arantzazulab-en zuzendari nagusi Naiara Goia ere "pozik" agertu zen emaitzarekin. Aurkezpenean parte hartu zuen Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusiak ere, eta frantziskotarrek Euskal Herriarekin izan duten "harremana" azpimarratu zuen. Izaro Elorza Oñatiko alkatea, berriz, Arantzazuk Oñatirentzat eta euskal gizartearentzat duen garrantziaz mintzatu zen, eta egungo Arantzazu "ulertzeko" iraganaz jardutea "funtsezkoa" dela ere nabarmendu zuen.

### Estreinaldia, Durangoko Azokan

Dokumentalaren estreinaldia Durangoko Azokan izango da, Irudienean, abenduaren 6an, 17:00etan. Halaber, Arantzazulabeko zuzendari nagusiak adierazi zuen urtarriletik aurrera zinema-aretoetan estreinatzeko asmoa dutela.

# Bailara Industrial Network Elkartea aurkeztu dute

Debagoieneko hamabost enpresa txikik osatzen dute Garaia Parke Teknologikoan aurkeztu duten elkartea

**I.B.K.** DEBAGOIENA

Duela urte batzuk abiatutako gogoeta batetik sortu dute Debagoieneko 15 enpresak Bailara Industrial Network Elkartea. Ekimenaren aurkezpena Garaia Parke Teknologikoan egindako jardunaldian egin dute. Enpresek zituzten beharrak aztertu eta aurrera egiteko sortutako elkartea da; gainera, unibertsitateetatik-eta ateratzen direnei ere irteera bat emateko helburua du, eta bazkide berriei irekita dagoen erakundea da.

### Talentua eta enplegua

Aurkezpenerako antolatuko jardunaldian, hainbat pertsonak hartu zuten hitza; besteak beste, Espainiako Kontseilu Ekonomiko eta Sozialeko presidentea den Anton Costas-ek edo EHUko Ekonomia katedraduna den Sara de la Ricak. Costasek, adibidez, talentuaz eta hori indartzeko egin beharrekoaz hitz egin du.

EHUko Ekonomia katedradunak, bestalde, berak zuzentzen duen ISEAK fundazioak landutako *Euskadiko enpleguaren liburu zuria* izan du hizpide. Liburua osatzen urtebete daramate, eta enplegu eta hezkuntza sistemen ikuspuntutik Euskadiren abiapuntua zein den zehaztu dute bertan; baita erronka demografiko, teknologiko eta klimatikoaren aurrean zein ekintza-palanka dauden ere. Aurkezpen jardunaldia borobiltzeko, Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziak MGEPekin batera eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin egindako etorkizuneko ZTIM lanpostuei buruzko ikerketako emaitzen berri eman zuten Maite Anayak eta Lierni Rabanetek.

## Gurutze Gorriak 40 urte bete ditu Debagoienean

1983ko abenduaren 3ko gauean, Debagoieneko Gurutze Gorriaren tokiko batzar sortu berriak lehen guardia egin zuenetik berrogei urte igaro dira. Gaur egun, Gurutze Gorriak 1.800 bazkide baino gehiago ditu Debagoienean, ia 100 boluntarioren lanari eta eskualdeko hainbat ongintza-enpresaren ekarpenari esker. Debagoieneko Gurutze Gorriaren jarduerak 3 ardatz ditu gaur egun: salbamendua eta larrialdiei erantzutea, arreta soziosanitarioa eta esku-hartze soziala. 2023an, Debagoieneko Gurutze Gorriak larrialdiko bederatzi aktibaziori erantzun die, eta zaurgarritasun-egoeran dauden 477 familia artatu ditu. Horrez gain, aurten ere ERIE taldea aktibatu da agintariek egindako bederatzi larrialdi-deiren aurrean, eta, horren ondorioz, 47 pertsona izan dira zerbitzu soziosanitarioen onuradunak.


Goienakide izatea %30 merkeago
Goiena Komunikazio Taldeko hedabideek lehentasunezko mezenasgo jarduera izendapena jasoko dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik.
Goienakide zaren horri, zerga onurak ezarriko zaizkizu 2023. urtean Goienari egin diozun ekarpenarengatik. Horrenbestez, zure kuotaren %30 itzuliko zaizu errenta aitorpena egiterakoan.
Horretarako ezinbestekoa da zure datuak Aldundira bidaltzeko onespena ematea.
Onespena iaz emanda badaukazu, ez daukazu aurten berriro eman beharrik.
Onespena emateko bideak: https://goiena.eus/datuenbabesa.
Edo dei egiguzu: 943 25 05 05.
Epe-muga: 2023ko abenduaren 12an.
goiena kide
Okm: batzen gaituen distantzia

**mundukide**
kooperazio kooperatiboa

# MOZAMBIKEKO NEKAZARIEN ALDEKO KANPAINA




- ○ 20€
- ○ 50€
- ○ 100€

**EGIN ZURE NEURRIKO EKARPENA**

Ematen duzun euro bakoitzeko, nekazariek 3€-ko errentagarritasuna lortzen dute jatorrizko herrialdean bizi eta garatu ahal izateko.

613 406 924 | mundukide.org | bizum 00989

## ZABALIK



**MIREN JOSU ARRAZOLA**

# Grebaren eraginkortasuna

Zergatik hainbeste langile-protesta eta mobilizazio Euskal Herrian, beste leku batzuekin alderatuta, lan baldintza eta soldata hobeagoak baldin badaude? Galderak berak dakar erantzuna. Hain zuzen, langile mugimendu indartsua eta mobilizazio handia dagoelako ditugu baldintza txukunagoak.

Udazkena gatazkatsua, beroa, etorri zaigu aurten. Greba feminista orokorraren biharamunean gaude; ziur arrakastatsua izan dela. Bestetik, beste bi greba deitu ditu gehiengo sindikalak arlo publikoan: urriaren 25ean egindakoa eta abenduaren 19an egingo dena.

Ez da erraza greba egitea, ez da erosoa gatazka. Batzuek zalantzan jartzen dute tresna baliagarria denik. Batzuk ez daude prest nagusien aurrean tente jartzeko, eta espero dute besteen sakrifizioa nahikoa izatea helburua lortzeko. Langile batzuek ezin dute jasan diru galera, eta, okerrena, batzuek enplegu informalak eta kontraturik eta eskubiderik gabeak dituztenez, grebarako eskubiderik ere ez dute.

**EZ DAGO AITZAKIARIK. ESKUMENA EZ DA JADA IZANGO ESTATUARENA, EUSKADIRENA BAIZIK**

Baina nabarmen geratu da tresna baliagarria eta eraginkorra badela. Eta nago sektore publikoari eragingo dion neurri bat bultzatzeko balio izan duela. Langile publikoak borrokan daude azkenaldian. Besteak beste, lan kargak murriztea eta soldata igoera eskatzen ari dira, urteetan izan duten galera berreskuratzeko. Kalean ikusten ditugu Osakidetzako langileak, hezkuntzakoak edo ertzainak.

Jaurlaritzatik, orain arte, erantzuna izan da funtzionarioen eta langile publikoen soldatak Espainiako aurrekontuetan zehazten direla eta ez dagoela hemen ezer negoziatzerik. Bada, PSOEren eta EAJren inbestidura-negoziazioan adostu dute Ekonomia Itunaren baitan negoziatu ahal izatea lanpostu kopurua eta soldata igoera ere. Horrenbestez, ez dago aitzakiarik. Eskumena ez da jada izango estatuarena, Euskadirena baizik.

Orain behar da eskumen hori erabiltzea, lan baldintzak eta soldatak hemen negoziatzeko eta hobekuntzak lortzeko. Horrek ere bultzada beharko du. Abenduaren 19an dute hurrengo hitzordua sektore publikoko langileek.

## MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA**




## HANDIK ETA HEMENDIK

### Xofiatik Haxkora

**BLANCA URGELL**
'BERRIA'-N ARGITARATUA
**HTTPS://WWW.BERRIA.EUS/IRITZIA/LARREPETIT/XOFIATIK-HAXKORA_2117192_102.HTML**

Euskaltzaindiak EODAn 158 izen hipokoristiko bildu ditu emakumezkoentzat, ia ehuneko ehunean palataldutakoak, *Xofia*, *Tomaxa*, *Mattina* eta *Mañoli* bezalakoak, edota laburtutakoak (*Axun*, *Katti*, *Maika*, *Xorkun*...); dena dela, tarteka lekua egin die baita atzizkidunei ere: *Argitxu*, *Arritxu*, *Bakartxo*, *Karmentxu*, *Laidatxu*, *Natitxu*, *Maritxu*, *Malentxo*-eta. Polita da *-txo/-txu* dantza hori, zeresanik baleukakeena, baina tartean nahi nuenaren adibide bakarra topatu dut: *Totakoxe* galanta, *Refranes y Sentencias*-en gordea (1596), Ramiro Pinillak eleberrian berpiztua eta, ezustean, Linkedineko profil nafar batean agertu zaidana.

Mikel Martinez Areta lankidearen lanetako batetik *Jo(h)ango* (1470, Zizurkil-Aduna) eta *Johangoxe* (Deba, 1482) bildu ditut; baita *Mariko* (1366, Orbaizeta) eta *Mariako* (1529, Elizondo), *Martingo* (1366) eta *Marticot* (c. 1625, Hondarribia), *Petriko* (1428, Lerga) eta *Peruko* (1366) ere.

Izen horiek hibridoak dira: badute kristautik, bistan da, baina badute baita akitaniar edo baskoitik atzean daramaten atzizkian: *Andrecco* 'Anderetxo', *Attacco* 'Aitatxo', *Belexco* 'Beltxo', *Laurco* 'Lau(garren)txo', *Sembecco* 'Semetxo', *Bonco* 'Ontxo', etab. (itzulpenak hipotesi dira).

Ez dakit esaten noiz, baina noizbait *-ko* atzizkiak galdu zuen lehengo emankortasuna: fosildurik dago, harri eta pergaminoetan izozturik. Non eta ipuinetan bakarrik iraun du bizirik: hortxe ditugu *Astoko, Otsoko, Mandoko* eta *Beleko*, bai *Axelko* ederra, baita Jon Mentxakatorreri esker ikasi berri dudan *Haxko* ere, hartzaren (edo basajaunaren) eta emakumearen semeari deritzana.

Ipuinak hagitz gauza serioak dira, izan ere.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**
Monika Belastegi.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.
**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Itziar Murgiondo.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**
Igone Osinaga.

**Sailetako arduradunak**
Xabier Urzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
**Maketazioa**
Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Amaia Martinez de Arenaza.
**Publizitatea**
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Leire Etxebarria.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*publi@goiena.eus*
**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp: 688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 18.550 ale

**Inprimategia:**
Zeroa Multimedia

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

## GUTUNAK

### Gorbeia gaina

**IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ TELLERIA**
ANTZUOLA

Aspalditik joan barik geunden Gorbeiara, eta ilusio handiz ekin genion igoerari. Bide batez, mendizaleak agurtzen genituen gora eta behera, gailurrera iritsi arte. Zur eta lur geratu ginen han entzundakoaz.

Gazte taldetxo bat hurbildu zitzaigun, gazteleraz: "Oye, por favor, ¿nos puedes sacar una foto de grupo?". Euretako bat ikurrina ateratzera zihoan. Nire erantzuna: "Aterako dizuet; nola ez, bada. Non nahi duzue argazkia ateratzea?". Orduan, euretako bik euskaraz erantzun zidaten, erdipurdi, baina argi esan zidaten non eta nola atera argazkia. Atera orduko, beste gazte kuadrilla bat, euskara eta gaztelera nahasia erabiltzen, beste kuadrillari galdera: "Oye, ¿nos dejáis la ikurriña para sacar una foto?".

Panorama hura ikusita, gailurrean geunden laurogei bat pertsonen arteko hizkuntza komunikazioa zein zen aztertzen ibili ginen –sentitzen dugu, baina deformazio profesionala gurea–, eta ondorioa benetan tristea: gehiengoak, denak ez esatearren, gazteleraz ziharduen. Izututa, jaitsierari ekin genion murmurrean: nola liteke Gorbeian, Begoñako Andramari aurrean –ironia da–, erabateko hizkuntza nagusia gaztelera izatea? Frogatuta, gainera, euretako askok, gehiago edo gutxiago, euskara erabiltzen gaitasuna zutela.

Beraz, gaur, hizkuntza ereduak eztabaidagai direnean, badugu euskaltzaleok beste erronka bat; alegia, nori eman lehentasuna hemendik aurrera: euskararen ezagutzari, erabilerari edota motibazioari. Honetaz literatura handia dago, baina guk ere hausnartu beharko genuke; izan ere, Gorbeiako gailurrean izandako esperientziak esaten digu ez goazela bide onetik euskararen biziraupena bermatzeko.

Nik garbi daukat, nahiz eta sarri jasan behar izan hizkuntza estresa: lehen hitza beti euskaraz.

### 2008-11-19

**TOMAS ELORTZA UGARTE**
HERNANI

Egun horretan, duela hamabost urte, Iruña-Veleiako aztarnategian lanean ari ziren arkeologoei –Eliseo Gil Zubillagari eta Idoia Filloy Nievari– industen jarraitzeko baimena kendu zieten eta kanporatu egin zituzten langileekin batera.

Arrazoi ugari eman bazituzten ere grafitoen faltsutasunaz, bat bera ere ez arrazoi zientifikotan oinarrituta: azterketa fisiko eta kimikorik gabe, C-14 proba egin gabe, dataziorik gabe...

5 urte geroago hasi ziren laborategiko analisiak egiten, eta, hemezortzi ikerlari aritu baziren ere –lau txosten idatzi zituzten–, ikerlari batek soilik –Jose Vicente Navarro– aurkitu zituen faltsutasun zantzuak 36 grafitotan eta beste bat benetakotzat jo zuen. Epaileak 36 horiengatik zigortu zuen Eliseo Gil Zubillaga, bakoitzeko bi euroko zigorra ezarriz. Beste ehunka grafitok analizatu gabe jarraitzen dute.

Bat nator kazetari batek I-Vko auziari buruz zioenarekin: "Tamalgarria da arkeologo, hizkuntzalari eta historialariak elkarlanean jarri eta auzia argitzeko gai ez izatea; deitoratzekoa, jakintzaren arloan dihardutenerakundeek –Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, Jakiunde, unibertsitateak...– horretan ez lagundu izana".

### 15.000 litro baino gehiago

**JOSU GARITAONANDIA**
'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA
BERGARA

Arnastu egiten dugu egunero-egunero.

Kanpoko airea kutsatuta dagoela denok dakigu, baina gutxik dakite etxe barruko airea okerrago egoten dela. Horregatik aholkatzen dute gure etxeak egunero ondo aireztatzea; batez ere, kontuan izanik europarrok gure bizitza erdi etxe barruan egiten dugula.

Naturan bezala, etxe barruan ere landareak dira gure laguntzailerik onenak airea garbitzeko; izan ere, aire garbiak, badakigu, ez du usainik.

Txarra da aire gozagarriak erabiltzea usain ona edukitzeko etxean, kimika gehiago isurtzen diotelako arnasten dugun aireari.

Salaketa-gutuna
Eskertza-gutuna
Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali
*gutunak@goiena.eus* helbidera!

Erantzun-gutuna
Aldarrikapen-gutuna
Kexa-gutuna

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## HAUXE BAI JENEROA!

**GARBINE UBEDA**





Besaide Mendizale Elkarteko kideek eguaztenean aurkeztu zuten dokumentala. Argazkian, atzean Udalatx. IÑIGO BARRENA


Iban Ayesa, dokumentala grabatzen, Arrasate atzean daukala. B.M.E.

## Arrasatear guztientzako interesa du

Ayesak azpimarratu du Udalatx "ikur bat" dela, eta dokumentala ikusteko dei egin die arrasatearrei. "Arrasatear guztientzako interesa duen lana da, eta, beraz, ikustera animatuko nituzke. Seguru nago Udalatxi buruzko gauza asko ikasiko dituztela", adierazi du.

# Babes deiadarra egin du mendiak

'Udalatx, ura eta atxa' dokumentala aurkeztu du asteon Besaide Mendizale Elkarteak eta abenduaren 16an estreinatuko dute Mendi Film Festivalen, Bilbon; egun berean, gainera, Amaia antzokian bi aldiz ikusi ahal izango da, 18:00etan eta 19:00etan

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE
Udalatxek bere baitan gordetzen dituen balio historiko, kultural eta naturalak aitortzeko helburuarekin jaio da *Udalatx, ura eta atxa* dokumentala. 2021ean ekin zioten proiektuari, zuzendari eta ekoizle lanetan aritu den Eñaut Iturberen esanetan. "Aspalditik genuen zerbait egiteko ideia hori buruan. Duela urte batzuk, Aralar parke naturalari balioa emateko dokumental bat egin zuten, eta eredu ona izan da guretzat. Gainera, pandemiaren ondorioz, ohiko irteerak bertan behera gelditu ziren eta une hori aprobetxatu genuen dokumentalari forma ematen hasteko". Momentu horretan, Iban Ayesarekin egin zuten topo, kameran eta erreализazioan aritu den arrasatearrarekin. "Beti ibili izan naiz naturan eta mendi artean eta, arrasatearra naizenez, banuen gogoa Udalatxi buruzko ikus-entzunezko bat egiteko. Besaideko Aitor Zubiaga laguna dut, eta komentatu zidan haiek ere antzeko zerbait egitekotan zirela. Hala egin genuen lehen harremana, eta martxan jarri ginen", dio Ayesak.

### Balioa aitortu eta babesteko

Udalatxi balioa eman gura dio lanak, Iturberen esanetan. "Mendigune aberats batean bizi gara eta inguruko mendi garrantzitsu gehienak parke naturalaren aitortza dute, Udalatxek izan ezik. Beraz, hari balioa emateko lan bat da, gizakion begirunea behar duela aldarrikatzekoa. Izan ere, mendeetan zehar, harriek, mineralek, altzairuak eta burdinak estali dute Udalatx, barrutik zein kanpotik. Parke naturala izatera helduko balitz, ondo legoke guretzat, baina, bestela ere, babesa behar duela aldarrikatu gura dugu", nabarmendu du.

**EÑAUT ITURBE: "UDALATXEN BALIOA HANDIA DA; GIZAKION BEGIRUNEA ETA BABESA BEHAR DU"**

### Mendi baten hitzak geroari

Ikus-entzunezkoan, Udalatxek lehen pertsonan kontatzen du nola jaio zen. "Jakina da Euskal Herrian lehen gizakiak Udalatxen magaletan ibili zirela, eta horren erakusle dira Lezetxikiko aurkikuntzak. Horrekin batera, dokumentalak kontatzen du mendeetan zehar nola erabili izan diren hark eskaintzen zituen askotariko baliabideak. Gaur egun, oraindik bizirik jarraitzen du, eta bere baitan bioaniztasun zabala du", dio Iturbek. "Halaber, hainbat adituren ahotsak jasotzen ditu lanak. Haiek dute jakintza, eta horrek, konfiantza emateaz gain, laguntzen du Udalatxen balioak ondo ulertzen". Honako hauek dira: Asier Hilario geologoa; Markel Arriolabengoa baso ingeniaria; Alvaro Arrizabalaga arkeologoa; Anabel Ugalde historiagilea; Ugutz Basauri geologoa; Mikel Velasco artzaina; Martin Arriolabengoa irakaslea; Ekaitz Aranburuzabala (Besaide); eta Naiara Corcuera (Ingurumen Eskola).

### Talde-lanaren fruituak

Zuzendari lanetan aritu den lehen aldia izan da Iturberentzat, eta elkarrizketak eta grabatu beharreko irudiak koordinatzen eta guztia antolatzen aritu da. "Hala ere, nabarmendu gura dut lantalde zabala aritu garela, eta talde izaera horri balioa eman gurako nioke. Udalatxek lehen pertsonan berba egiteak, esaterako, nortasuna ematen dio dokumentalari eta irismen hori Oihan Zubizarretari esker izan da. Hark lagundu du gidoiari eta narrazioari forma ematen. Horrekin batera, Peru Altube eta Xabi Agirrezabala musikarien lana ere funtsezkoa izan da, dokumentalerako soinua sortu dutelako eta hainbat musikarirekin grabatu. Soinuak pisu handia hartzen du dokumentalean". Ayesak ere lantaldearen indarra azpimarratu du. "Oso erraza izan da elkarlana. Eñaut eta biok lan handiena egin dugun arren, jende asko aritu da, bakoitza berean, lanean, eta hori nabaritzen da emaitzan".

**IBAN AYESA: "JENDE ASKO ARITU DA LANEAN, BAKOITZA BEREAN; EMAITZAN NABARITU DA HORI"**

### Lehentasuna: mezua helaraztea

Emaitza txukuna dela aitortu du Iturbek. "Gure helburua izan da 40 minututik ez pasatzea, mezua herritarrengana iristeko eta entretenigarria izateko. Esentzia da kontatu duguna, muina, baina horrek dakar gauza asko kontatu barik utzi behar izatea. Adibidez, Asentzioko ermitari buruz ez da ezer aipatzen eta garrantzi handia du. Era berean, Udalatxeko burdinari buruz entziklopedia bat egin daiteke eta oso gainetik aipatzen da".

### Mendi Film Festivalen

Jaialdiko sail ofizialean egongo da dokumentala, eta "sorpresa" izan da Besaidekoentzat. "Badugu harremana haiekin eta jaialdian aurkezteko aukera planteatu genien. Baina ez genuen uste sail ofizialean sartuko zutenik eta hori oso pozgarria izan da guretzat. Mendi Film Festivalek nazioarteko oihartzuna du, eta gure mezua etxekoendako izan arren, ahalik eta gehien zabaltzea garrantzitsua da".

# Musakolako eguneko zentroa inauguratu dute

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Aita Mennik 90 plazako zentroa ireki dute Arrasaten, adinekoentzat eta garuneko kaltea dutenentzat. Maiatzetik martxan dagoen arren, asteon inauguratu dute ofizialki, Eider Mendozaren eta Maite Peñaren bisitarekin



Eider Mendoza eta Maite Peña izan dira, besteak beste, zentroan. IÑIGO BARRENA

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE
Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusiaren eta Maite Peña Gizarte Politiketako diputatuaren bisitarekin inauguratu dute zentroa. 60 plaza ditu adinekoentzat, eta 30 garuneko kaltea dutenentzat. Halaber, bereizitako bi gune, gimnasioa, Etxetek etxerako laguntza teknikoen erakusketa-gunea, eremu komunak eta bilera gela ditu. Aipaturiko 90 plaza horietatik 78 Aldundiak itundu ditu, eta Gipuzkoako eguneko zentroen sareari gehitu zaizkio. Hala, gaur-gaurkoz, 64 zentro daude Gipuzkoan, 45 udalerritan banatuta, eta 1.872 plaza dituzte.

### Berrikuntza sozialeko zentroa

Diputatuekin batera, Aita Menniko zuzendari Mikel Tellaetxe ere bisitan izan da, eta azaldu du Musakolakoa "berrikuntza sozialeko zentro gisa" sortu dela, Aldundiaren bultzadarekin. "Komunitatera hurbildu nahi du, adinekoen mendekotasunaren erronkari elkarrekin heltzeko". Horrekin batera, esker hitzak izan ditu Tellaetxek, "komunitatearen zerbitzura dagoen proiektu hau errealitate bihurtzeko konfiantza izateagatik".

### "Kalitatezko" zerbitzua

Mendozak dio Gipuzkoako udalerrien erdiek baino gehiagok eguneko zentro bat dutela eta herritarrek "asko" eskatzen duten baliabidea dela. Gainera, nabarmendu duenez, "funtsezkoak" dira adinekoak etxean bertan artatzeko estrategiaren baitan. "Adineko hamar pertsonatik zortzik etxean bizitzen jarraitu nahi dute, eta nahi horri erantzuteko, eguneko zentroak giltzarri dira, mendekotasunerako prestazioekin, etxez etxeko laguntza-zerbitzuarekin eta laguntza teknikoekin batera". Azkenik, nabarmendu du eguneko zentroek "kalitatezko" zerbitzua eskaintzen dutela.

NIRE USTEZ



**EÑAUT MUXIKA**

## 40 urte… eta zer nahi dugu?

Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak 40 urte bete dituen honetan, utzi aurreko galdera erantzuten: Euskaraz bizi nahi dugu.

Ibilbide honetan milaka pertsona izan ditugu eragile eta bidelagun. Beraiek gabe ezinezkoa litzateke honaino iristea eta Arrasaten egin dituzten ekarpenak esanguratsuak izan dira. Hala nola euskarazko komunikabideetan (ArKo, ondoren Goiena), haurren eta gaztetxoen aisialdian (Txatxilipurdi), emakumeen eta etorkinen integrazioan eta eskubideen aurrerapausoetan (Ekin Emakumeak) edota lantokietan euskararen sustapenean (Euskalan). Badira maila apalagoan ere esanguratsuak diren ekarpenak. Hazitxo hauek guztiak erein dituzten pertsona hauentzat denentzat eskerrik bero eta oparoenak.

Amaitzeko, abenduaren 2an egingo dugun urteurreneko jaialdian parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Egiteko hainbat dugun arren, zer ospatua badugulako eta etorkizunari begira lagun eta animo denak ongi etorriak izango direlako. Milesker!





Abenduaren 16an egingo dute Jostailu Truke Merkatua, Biteri plazan. Argazkian, iazko azokako une bat. IMANOL SORIANO

# Gabonetarako motorrak berotzeko ekintza sorta

Gabonetako kanpaina aurkeztu du Arrasateko Udalak, 'Arrasate Bizia' lemapean, eta, beraz, herritarrek ekintzaz jositako abendua dute aurretik; bihar bertan, esaterako, 'Anbotoko Mari' haurrentzako antzerkia izango da Amaia antzokian, 17:00etan hasita

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE

Gabonei begira, abendu osoko egitaraua aurkeztu du Arrasateko Udalak. Asteburu honi dagokionez, bihar, zapatua, *Anbotoko Mari* haurrentzako antzerkia egongo da Amaian, 17:00etan (sarrera bost euro da). Domekan, ostera, *Joyas sobre ruedas* topaketa solidarioa egingo dute Jose Maria Arizmendiarrieta plazan, 09:00etan hasita.

Datorren astean, ohikoak diren bi ekitaldi izango dira. Batetik, San Nikolas boloa, 12:30ean Herriko Plazan egingo dutena (Usaetxe plazan ere egingo dute, 10:45ean hasita). Bestetik, Arrasateko Akordeoi Jaialdia egingo dute abenduaren 8tik 10era, eta hilaren 9an, gainera, iazko irabazleek kontzertua egingo dute Kulturateko areto nagusian, 18:00etan hasita. Amaia antzokian, Juan Arzamendi Musika Etxean eta Kulturaten izango dira jaialdiaren baitako emanaldi guztiak, eta domekan, abenduak 10, Amaiako itxiera ekitaldiarekin borobilduko dute asteburua, 20:00etan.

**Jolasak eta azokak ere bai**

Era berean, abenduaren 6an, 7an, 8an, 9an, 16an eta 17an, haur eta gazteentzako jolasak jarriko dituzte Biteri plazan, 11:30etik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara. Horrez gain, herriko artisauek ere azoka egingo dute Seber Altube plazan, abenduaren 16an, 17an, 23an eta 24an.

**Hirugarren asteburua ere, betea**

Abenduaren 15ean, astronomia kalejira eskainiko du A&B Show taldeak, 19:00etan Herriko Plazatik abiatuta, eta abenduaren 16a, berriz, egun betea izango da. Batetik, herritar guztiei zuzendutako pandero tailerra egingo dute Kulturolan, 11:00etatik 12:00etara, eta *arrasatetrikitixaeskola@gmail.com* helbidera idatzi beharko da izena emateko. Bestetik, Jostailu Truke Merkatua egingo du Txatxilipurdik Biteri plazan, 11:30etik 13:30era. Azkenik, *Udalatx, ura eta atxa* dokumentala eskainiko dute Amaia antzokian (ikus 8. orria).

**HILAREN 8TIK 10ERA, AKORDEOI JAIALDIA EGINGO DUTE, HAUSPOZ ELKARTEAK ANTOLATUTA**

Hilaren 17an, Arrasate Musikaleko orkestra sinfonikoaren kontzertuaz gozatzeko aukera egongo da Uarkapen, 13:00etan, eta egun berean egingo dute Santamas krosa ere, 11:00etan.

Abenduaren 20an, Arrasate Musikaleko ikasleek Gabonetako kontzertua eskainiko dute Juan Arzamendi Musika Etxean, 18:30ean. Abenduaren 21ean, erraldoi eta kilikien kalejira izango da 16:30ean, eta 19:30ean, aldiz, Santamasetako bertso saioa egingo dute Amaian. Hortik urtarrilaren 4ra arteko ekintza guztiak *Goiena.eus* webgunean daude ikusgai.

## Arrasaten girotutako Sekuoia! mahai-jokoa aurkeztu du Udalak

Herrian girotuta dagoen eta herrian bertan sortu den mahai-jokoa da, eta bizikidetzari eta zaintzari buruz 2020-2021 ikasturtean Arrasateko Haurren Kontseiluak egindako hausnarketaren emaitza da, Itsaso Pagoagak diseinatu eta Helena Azkarragaurizarrek ilustratu duena. Mahai-joko bat izatetik harago, elkarbizitzaren eta elkarren zaintzaren garrantziari buruz kontzientzia sortzeko tresna bat ere badela nabarmendu dute sortzaileek.

Herriko ikastetxeetan, gaztetxokoetan eta ludoteketan eskuratu daiteke, eta udal webgunean ere deskarga daiteke PDF formatuan, inprimatu ahal izateko.

## Aitor Montesi babesa adierazteko elkarretaratzea gaur

*Euskaldunon hizkuntza eskubideen aldeko Arrasateko protokolo*-ko eragileek deituta, Debagoieneko Ospitalearen aurrean elkarretaratzea egingo dute gaur, 13:00etan, "Aitor Montes medikuak euskaraz lan egiteagatik jasotzen dituen jazarpenak salatzeko". Besteak beste, honako hau adierazi dute: "Zerbitzua euskaraz emateko daukan eskubidea aldarrikatzen dugu; Debagoieneko ESIko zuzendaritzari gogorarazten diogu erakunde publikoen betebeharra dela euren zerbitzuak euskaraz eman eta jasotzeko eskubidea bermatzea eta eskatzen diogu babes dezala langileek euskaraz lan egiteko duten eskubidea".

## Gitarra ikastaroa egingo du Portaloi Kultur Elkarteak

Urtarrilaren 12an hasita, hasiberrientzako gitarra klaseak egingo dituzte Kulturolan, Portaloi Kultur Elkartearen lokalean, Pello Herizen eta Mikel Arriaranen eskutik. Abenduaren 11ra arte eman ahalko da izena, 623 16 59 16 zenbakira deituta edo *portaloielkartea@gmail.com* helbidera idatzita. Prezioa 40 euro izango da.

## Gotzon Barandiaranen eta Rafa Ruedaren hitzaldi musikatua

AEDren urteurrena borobiltzeko, biharko jaiaren ostean, *Hitzen ahairea. Zeri kantatzen diogu euskaldunok?* hitzaldi musikatua egingo dute abenduaren 12an, 19:00etan. Kulturolan izango da saioa, Udal Euskaltegiaren aretoan, eta doakoa den arren, izena eman beharko da aurrez, *aed@aedelkartea.eus*-era idatzita, edukiera mugak tarteko.

## OHARRAK

### Santamasetako bazkarirako txartelak

Uarkapeko txarteldegian jarriko dituzte salgai gaur, 19:00etan hasita. Bakoitzak bost txartel erosi ahal izango ditu gehienez. Bazkaria Musakolako kiroldegian izango da, eta hara sartzeko derrigor txartela eduki beharko da.

### 'La ermita' pelikula, Amaia antzokian

Jon Olivares osintxuarrak eta Maia Zaitegi arrasatearrak parte hartzen duten pelikula abenduaren 3an eta 4an ikusi ahal izango da zineman, 19:30ean. Sarrerak salgai daude *Arrasate.eus* webgunean, bost eurotan.

### Gabonetako erakusleiho lehiaketa

Abenduaren 11n abiatuko dute, eta establezimenduek gaurtik 10era arte eman ahalko dute izena, BAZen zein *Arrasate.eus*-en.

### Sasoibideren abenduko irteerak

Olandiora, Miraballesera, Ollerias museora eta Donostiara joango dira, besteak beste (ikus agenda).

### Ttak Eguna, abenduaren 9an

AEDren gazte taldeak abenduaren 9an ospatuko du bere eguna.

# Sinadura bilketa abiaraziko du Udalak

Aramaioko Udalbatzak 'Ez gaude ados' adierazpena onartu zuen eguazteneko osoko bilkuran; Itsaraz parke eolikoaren proiektuarekiko kezka eta desadostasuna jasotzen du mozioak. Herritarrek adierazpena babesteko aukera izango dute sinadurarekin

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO

Eguaztenean egindako osoko bilkuran *Ez gaude ados* adierazpena onartu zuten, EH Bilduren aldeko bost botoekin, eta EAJren abstentzioarekin. Aipatutako adierazpena jendaurrean jarriko dute orain, eta herritarrei eskatuko diete adierazpena babestea sinadura bidez. Sinadura bilketa abenduko barikutan egingo dute, bai Ibarran eta baita auzoetan ere.

"Aramaioko Udal Gobernua osatzen dugun kideak kezkatuta gaude Itsaraz parke eolikoak herrian izango duen eraginaz, eta, hori dela eta, proiektuak aurrera egitearen inguruko desadostasuna erakutsi nahi dugu udal mozio honen bidez", azaldu zuen Amaia Pavon zinegotziak. Gaineratu zuen proiektuaren prozesuan egon diren argi-ilunek mesfidantza eragin dutela herritarren artean: "Kezka handia dago Aramaion; horrela baieztatzen du Aramaioko herritarren iritzia jasotzeko Aztikerrek gidatu duen prozesuak. Udal Gobernuak aintzat hartu nahi izan du prozesuko emaitza, parkearen aurrean posizionatzeko".



Eguazteneko ezohiko osoko bilkura. A.E.G.

## Alegazioak

Gobernuaren ordezkaritzan jarri dituzten alegazioak ondorengo puntuetan laburtzen dira: atzera bueltarik ez duten ingurumen kalteak; Aramaioko herritarren osasunean eragina; kokapenari buruzko alegazioak zehazki beste lurralde plangintzekin dituen kontraesanak; udal hirigintzan bateraezintasuna; eta, azkenik, paisaiaren suntsipena.

Udal Gobernuaren asmoa da eguaztenean onartutako adierazpenarekin amaitzea Aztikerrekin egindako prozesua: "Eta erabateko amaiera etorriko litzateke sinadura bilketa batekin". Ikerketa prozesuan herritar kopuru handiak parte hartu duela azaldu dute, eta hori borobildu nahi dutela herritarrek euren izen-abizenekin eta euren parte-hartzearekin babestuz mozio testua.

**ASMOA DA SINADURA BILKETAREKIN AMAITZEA AZTIKERREKIN EGINDAKO PROZESUA**

## EAJren erantzuna

EAJko hiru zinegotziak abstenitu egin ziren adierazpenaren bozketan. "Gardentasun falta dagoela esan dugu; izan ere, aurreko astean batzarra zegoela herritarren partetik jakin genuen", dio Alberto Amenabar EAJko zinegotziak. Gainera, EAJk beste mozio bat aurkeztu zuen: "Guk ezer jakin barik, eguenean, Statkraft etorri zen Aramaiora, eta kasualitatez jakin genuen... izan nuen aukera han egoteko eta eurek emandako informazioa jaso nuen; oso interesgarria. Horregatik, gure mozioaren bitartez eskatu dugu bilera bat egitea Statkraftekin eta herritarrekin euren aldetik azaltzeko zein egoeratan dagoen proiektua". EAJren mozioa ez zen onartu.

## Statkraftekin batzarra

Eguenean, azaroaren 21ean, Statkraftek eta Krean-ek eskatuta batzarra egin zuten udaletxean. "Proiektua ze puntutan dagoen aurkeztu zuten, eta Udalak jarritako alegazioen aurkako erantzunak eman", azaldu zuen Asier Agirre zinegotziak. Udalbatza osatzen duten bi alderdiak eta Aramaio Bizirik taldekoak izan ziren batzarrean. "Egin nahi duten hurrengo pausoa izango da proiektua sozializatzea, baina hori Kreanen esku egongo da". Eguazteneko osoko bilkurak ikusmina sortu zuen herritarren artean; horren adierazle da bilkuren aretora joan zirela dozena bat herritar.

Udalak Aztikerrekin egin duen prozesua amaierara iritsi da. Martxoan hasi zuten prozesua; ondoren, udara arte elkarrizketa bidez iritziak batu zituzten; ekainean herritarrekin talde hausnarketak egin zituzten, eta azaroaren 20an aurkeztu zituzten ondorioak.

# Euskararen Eguna ospatzeko herri lasterketa egingo dute

Domekan izango da Euskararen Eguna; bihar, zapatua, trikiti kalejira eta Jolas Molaz jolasak izango dituzte

**A.E.G.** ARAMAIO

Euskararen Egunaren harira antolatu dituzten ekitaldietako bat gaur amaituko da: *online* lehiaketa, hain zuzen. Astelehenaz geroztik egunero bi galdera egin dituzte sarean: euskarari buruzko bat, eta bestea *Common Voice* eta Gaitu kanpainei buruzkoa.

Aste bukaerari begirako ekitaldiak asko izango dira. Bihar, Trikikalejira elkarteak antolatuta kalejira egingo dute 13:30ean, tabernen inguruan; eta, ondoren, kantu bazkaria Barajuengo Koskoltegi elkartean. 17:30etik 19:30era bitartean, Jolas Molaz jolasak izango dituzte kultura etxean. Domekan, azken urteetako ohiturari eutsiz, herri lasterketa egingo dute. 12:00etan irtengo dira plazatik, eta, ondoren, *photocall*-a, luntxa eta animazioa egongo dira. Arratsaldean, 16:00etan, partxis lehiaketa Sastiñan, Txirritola euskara elkarteak antolatuta. Astelehenean, hitzaldia egingo dute kultura etxean, 18:30ean: *Adimen artifizialak lagundu ahal dosku euskararen jatorrira hurbiltzen?*



# Argazki onena, 'Irla artasoroan'

Aramaioko Udalak antolatutako argazki lehiaketako sari nagusiaren irabazlea Aitor Rementeria Totorika izan da, *Irla artasoroan* lanarekin. Aurtengo lehiaketara 44 argazki aurkeztu dituzte. Sari nagusiaz gain, neguko saria ere Rementeriak irabazi du; udaberriko saria, Lurdes Mateok; udako saria, Konsuelo Errastik; eta, udazkeneko saria, Izar Elorzak.

## Abenduaren 12an argia moztuko dute herri osoan, goizez

Aramaioko Argindar Banatzaileak jakinarazi du argindar instalazioaren kalitatea eta fidagarritasuna hobetzeko lanak egingo dituztela abenduaren 12an, martitzena. Hala, argia moztuko dute herri guztian zehar, Oletan izan ezik, 09:30etik 13:30era bitartean. Hornidura aldez aurretik jakinarazi gabe berrezarriko da.

## Kalean da The Clayton taldearen 'Over the red light' diskoa

Aramaioarrek Danbakaren bosgarren edizioa irabazi zuten, eta, ondorioz, diskoa grabatu dute. Azaroaren 26an argitaratu zuten *Over the red light* lan berria. Plataforma digitaletan argitaratu dute, Youtuben eta Spotifyn, eta fisikoki Durangoko Azokako Musikazuzenean-en standean izango da CD eta binilo formatuan.

# Eskaintza oparoa, herrian kontsumitzeko Gabonetan

"Sekula ez digute kenduko gertutasuna!" oihukatuta, Aretxarteko merkatariek herrian erosteko gonbidapena egin dute. Ildo beretik, Udalak bonuak jarriko ditu salgai gaur, baita erakusleiho lehiaketa eta azoka antolatu ere, eta kultura ekitaldi mordoa iragarri

**Mirari Altube** ARETXABALETA
William Wallace –*Braveheart* filma– pertsonaiaren "sekula ez digute kenduko gertutasuna" oihuarekin, Aretxarteko merkatariek Gabonetako kanpainari ekin diote. "Uste dugu bideoa hunkigarria dela, indartsua; eta merkatariak gerrarako gertu agertu dira", adierazi du AZ Gaubelakeko kide eta Kultura zinegotzi den Ibai Zangituk.


Udal ordezkariak eta Aretxarteko kideak kanpaina aurkezten. MIRARI ALTUBE

**Bonuak, gaurtik salgai**
Gabonei bonuek emango diete ongietorria; urteko hirugarren bonu kanpaina izango da, hain zuzen ere. Aretxarteko kideek salduko dituzte Arkupen gaur, egubakoitza hasita (10:00-19:00) eta 20 euro ordainduta 30eko bonua eskuratuko dute 16 urtetik gorakoek –bakarra–, nortasun agiria erakutsita. Bonu horiek gastatu beharko dira abenduaren 30a artean.

Erakusleiho lehiaketa, ostera, abenduaren 11n jarriko dute abian, eta 22 arte iraungo du; parte hartzeko, gainera, ez dago izenik eman beharrik. Sari nagusia 300 euroko bonua izango da. "Erakusleiho onena aukeratuko du eskaparategintzan aditua den kide batek, eta kontuan hartuko ditu originaltasuna, kalitatea, eta saltokiko ohiko produktuen eta argien erabilera", azaldu du Nahia Agirrek, Enplegu eta Garapen teknikariak. Bigarren saria herritarrek hautatuko dute abenduaren 11tik 18ra bitartean; botoa emateko bi aukera egongo dira: aplikazio bidez eta Arkupen jarritako kutxan. Botoa emandakoen artean, 50 euroko bonua zozketatuko da.

Gabonetako azokak ere ez du hutsik egingo; abenduaren 16an eta 17an egingo da Durana kalean, goizez, eta herriko ekoizleak, artisauak, merkatariak, elkarteren bat edo beste, eta hiru bat idazle elkartuko dira.

## Ekitaldiak

**Abenduak 4**
**11:00** Erakusketa: *Opil eta Muxilen binetak. Komiki lesbikoak bi ertzetatik.*

**Abenduak 6**
**17:00** Eleder magoa: *Magia berri on!.*

**Abenduak 7**
**19:00** La Cuerda Teatro: *Euli dantza.*

**Abenduak 10**
**12:30** Akordeoi kontzertua: Kresimir Lulic.

**Abenduak 11 eta 14**
**18:00** Ikastaroa: sendabelarrak.

**Abenduak 12**
**18:30** Hitzaldia: *Batch-cooking.* Garazi Abasolo.

**Abenduak 14**
**19:00** Folk kontzertua: B&C Quartet.

Abendua borobilduko dute kultur ekitaldiek. "Egitarau betea osatu dugu, askotariko ekintzekin", esan du Zangitu zinegotziak, eta bi emanaldi nabarmendu ditu: "Nhil etxeko taldeak gonbidatu bereziekin emango duen kontzertua eta Gaztela eta Leondik etorriko den B&C Quartet folk taldearena".

**Aretxarteren eskaintzak**
Azken urteetan legez, zigiluen kanpaina jarriko du abian merkatarien elkarteak. Abenduaren 5etik urtarrilaren 5a bitartean Aretxarteko saltokietan bezeroek zigiluak eskuratuko dituzte erosketen truke, eta, behin txartela zortzi zigilurekin osatuta, zozketa baten parte hartu ahal izango da; urtarrilaren 10ean izango da hori Idoia Elexpuru kideak aurreratu duenez: "200 euroko bonu bat jasoko du sari nagusiaren irabazleak, eta 50 euroko beste 32 bonu ere banatuko dira", adierazi du Idoia Elexpuru kideak.

Poltsak ere banatuko dituzte datozen egunetan. Eta abenduaren 15ean, UDArekin batera, buzkantz dastaketa eskainiko dute.

# Bira amaierako kontzertua etxean emango du Nhil taldeak

Abenduaren 23an izango da Arkupen, eta hainbat gonbidatu izango dituzte lagun; sarrerak salgai daude

**M.A.** ARETXABALETA
*Bizi bagina bezala* bigarren diskoarekin ekindako birari bukaera emango dio Nhil talde aretxabaletarrak abenduaren 23an. Etxean emango du azken kontzertua, Arkupen (19:00). Sarrerak gaur, egubakoitza, jarriko dituzte salgai (5 euro) Arkupen bertan eta online –*Aretxabaleta.eus*–.

Kontzertu berezia izango dela aurreratu dute taldeko kideek: "Aurretik gurekin elkarlanean jardun izan duen artistaren bat edo beste etorriko da".

Disko hori 2022ko ekainean argitaratu zuten, eta ordutik emandako 42. kontzertua izango da datorrena. "Oso pozik gaude emandakoarekin; genituen aurreikuspenak ez bakarrik bete, gainditu ere egin dira". Nabarmentzekoen artean aipatu dituzte Madrilen Radio3 irrati saioan eta Hondarribiko jazz jaialdian parte hartu izana.

2024an kantu berriak sortzen hasiko dira: "Ez dugu ezer zehaztuta, baina poliki-poliki lanean hasi gura dugu, eta diskoa prest dagoenean argitaratu".


NIRE USTEZ
**MIKEL ARROIABE**

## Xingola gorriak

Abenduaren 1a Hiesaren Aurkako Nazioarteko Eguna da 1988. urtetik hona. 1981ean azaldu zen gaixotasuna, eta 1983an identifikatu zen GIB birusa. EAEn 1984an azaldu ziren aurreneko kasuak, eta hogei urtetan 10.000 pertsona kutsatu ziren. Horietatik erdiek gaixotasuna garatu zuten, eta ia 3.000 pertsona hil ziren (Euskarazko Wikipedia).

Parekotasunak ikusi izan dizkiot hiesari eta COVID-19aren pandemiari. Hasieran, sorpresa eta ezjakintasuna izan zen; horrek beldurra eragin zuen, eta, ondoren, mesfidantza eta konspirazio paranoiak; azkenik, soluzioa topatu zuen Zientziak, hiesaren kasuan antirretrobiralekin kroniko bihurtuz eta COVID-19aren kasuan txertoa garatuz.

Hiesari aurre egitea ez zen samurra izan. GIB erretrobirusa da, zelula barnean ezkutatzen da, eta urteak eman ditzake gaixoak jakin gabe. Baina isilean sistema immunologikoa erasotzen ariko da, eta gorputza babesgabe uzten.

Aurtengo Hiesaren Egunaren leloa *Utzi komunitateari gidari izaten* da. Komunitatea, elkar zaintza... hausnarketarako ideia.

## Gabonetako parkerako begiraleak behar ditu Udalak

Urtarrilaren 3an eta 4an kiroldegian jarriko duten Gabonetako parkerako begiraleak behar ditutze. Ezinbestekoa izango da 18 urte beteta izatea eta euskaraz ondo jakitea; eta herrikoek lehentasuna izango dute. Curriculumak honako helbidera bidali behar dira: *gazteria@aretxabaleta.eus;* horretarako azken eguna abenduaren 11 da.

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

# Guraso talde berria, espazio propio eta guzti

6 urtetik beherako haurren zenbait gurasok TipiTapa elkartea sortu dute, eta datorren astelehenean egingo dute aurkezpena. Euskara ardatz, espazio seguru bat izango dute Ludotekan, guraso eta haurren arteko harremanak sendotzeko helburuarekin

**Hasier Larrea** ESKORIATZA
Eskoriatzan haurrekin egoteko espazio seguru eta itxi baten beharrak bultzatuta sortu berri da TipiTapa guraso elkartea. Maite Santamaria eta Maitane Ayalari otu zitzaien ideia, iazko ikasturtean Aretxabaletako Kukumiku elkarteko kide eta ekintza arduradun izan ostean. Bi horiek gehi beste lau ama dira oraingoz kideak. Baina "TipiTapara ahalik eta familia gehien batzea" gura dute, eta, horretarako, bazkidetza kanpaina bat abiatuko dute, abenduaren 4tik 20ra bitartean.

Proiektuaren nondik norako guztiak hilaren 4an, astelehena, emango dituzte aditzera, 17:30ean, Kultur Etxean. Bertaratu ezin denak informazio gehiago jaso dezake *tipitapaelkartea@gmail.com* helbidera idatzita.

### Udalaren babesa

Santamaria eta Ayala kontziente dira "gurasotasun munduan sartu berri direnen ardurak eta kezkak egoera berdinean dauden guraso lagunekin" konpontzearen garrantziaz, eta, horretarako, beharrezko jotzen dituzte "espazio itxi eta seguruak". Lanak aurreratuta joango dira aurkezpenera, Udalaren oniritzia lagun, Ludoteka zerbitzuaz partekatutako espazioa izango baitute aurrerantzean eskura: "Gurasoen alde emozionalari lekua emango dion bilgune bat sortuko dugu, non guraso eta haurren arteko bizipenak ere gehituko diren. Haur txikien psikomotrizitatea lantzeko espazio bat izango da, eta umeek material eta bizipenak elkarbanatu ahal izango dituzte".

### Ekintza gehigarriak

Horrez gain, herriko ikastetxeen arteko sarea sortzeko ere baliatuko dute topagunea, baita eredu desberdinetako, beste hizkuntza bateko edo kultura desberdineko familien integrazioa sustatzeko ere, euskara izanik hizkuntz oinarria. Gainera, informazio eta formazio guneak sortzeko ahalegina ere egingo dute, herrira irekitako eta haur zein helduei zuzendutako ekintzak antolatuta.

Oro har, espazio berriak gurasoen arteko elkarlaguntza eta haurren garapena bilatuko ditu, "kaleko parke eta espazio irekietan izan ditzakegunen osagarri modura".



Maite Santamaria eta Maitane Ayala, aurkezpen ekitaldiko kartelarekin. TIPITAPA

## Euskara haizatzeko ariketaz jositako asteburua gaurtik

Eskoriatzako Udalak prest ditu guztien gozamenerako ekintzak, Euskararen Egunaren harira. Gaur Gaitu kanpainarekin egingo dute bat plazako karpan. Bihar Potx eta Lotx pailazoek, bazkariak eta zuzeneko musikak hartuko dute protagonismoa, eta, etzi, Euskararen Egunean, Zero KM azokak eta Dorleta Kortazarren ipuin kontaketak.

## Udal langile baten aurkako margoketen aurrean, gaitzespena

Igande goizean Eskoriatzako udal langile baten aurkako pintadak agertu ziren herrian, eta Udalbatza osatzen duten alderdietako kideek aho batez salatu zuten gertaera. "Herritarren ezadostasunak edota kexak helarazteko beste bide batzuk daude, udaletxeko ateak beti daude zabalik eta errespetua funtsezkoa da", adierazi zuten.

## 'TRAdIZIOAK' erakusketa hilaren 20ra arte, HUHEZIn

Onintza Etxebeste Liras ikertzaile, irakasle eta artistak identitate kulturalak aztertzen ditu, eta ikusgai jarri du *TRAdIZIOAK* erakusketa HUHEZIn, abenduaren 20ra arte. "Prozesu bizi" bezala definitzen du proiektua: "Gure erreferente kulturalen kontserbazioaren eta subertsioaren artean sortzen den gatazkara zuzentzen da".



Gatzagako emakumeak, mural berriaren aurrean. GATZAGAKO UDALA

## Emakume askeen aldeko murala talde argazkiaz inauguratuta

Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunaren bueltan askatasun aldarria daraman murala pintatu dute herrian

**H.L.** LEINTZ GATZAGA
Gatzagako Sorginak emakume elkarteak eta Gatzagako Udalak indarrak batu zituzten pasa den asteburuan, azaroaren 25aren harira. Egun hori Iban Urreta marrazkilari aretxabaletarrak egindako murala inauguratzeko baliatu zuten. Zehatz esanda, haurren autobus geltokiaren atzeko paretan margotu du Urretak murala, herritarren eskariz: "Dorleta Elkorobarrutia alkateak azaldu zidan gaia, eta zirriborro batzuk erakutsi nizkien, bat aukera zezaten; onarpena jasota, hiru eguneko lana hartu dut. Gustura aritu naiz murala margotzen, aitaren laguntza ere izan baitut", adierazi du muralgileak.

Ane Zuazubiskar bertsolariak idatzitako bertsoak janzten du hitzez horma-irudia. Zuazubiskarrek aipatu du marrazkiko tximeletekin eta hesiekin jolastu duela: "Horiek era batean aipatu ditut, baina beste alde bat ekartzen ere saiatu naiz, irudian ikusten denetik harago joanaz. Egunero ikustea beharrezkoa den mezu bat da, eta horren gainean egindako zatitxoa".

### Arratsalde betea

Horma-irudia ofizialki estreinatzeko, talde argazkia egin zuten bertan emakume gatzagarrek zapatuan, puntu moredun banderak eta Gatzagako Sorginen zapi berriak aldamenean zituztela. Ondoren autobusa hartu eta Eskoriatzara jaitsi ziren, elkarretaratzean parte hartzeko.

### Ipuin kontaketak

Hurrengo egunerako, domeka, aspaldiko ezagun bat gonbidatu zuten, Amaia Elizagoien ipuin kontalaria. Baztandarra izan arren, Eskoriatzan bizi izan zen duela urte batzuk, eta Gatzagako Ludotekan lan egin zuen, besteak beste: "Horregatik, ilusio handia egin zidan Udalaren deia jasotzeak", azaldu du.

Saio bikoitza egin zuen Elizagoienek, hain justu, Ludotekan bertan. Haurrentzako ipuinak kontatu zituen lehendabizi, gitarra doinuez lagunduta: "3 eta 12 urte arteko publikoa izan genuen aurrean, eta arreta handia jarri zuten uneoro. Euskal Herriko kondaira batzuk kontatu nizkien, baina baita Gatzagako pertsonaia berezietan oinarritutakoak ere. Bidaia fantastiko polita burutu genuen, istorioen eta irudimenaren bitartez herria hobeto ezagutuz".

Helduentzako ipuinak ere prestatuta zeuzkan. "Jende dezente" bertaratu zen horiek entzuteko irrikaz: "Emakumeen barrenetan murgiltzen ziren lau istorio kontatu nizkien, Euskal Herrian bizi diren atzerritar jatorrikoenak. Errusian hasi, Palestina eta Mexikora joan, eta gurera itzulita bukatu genuen".

**DOMEKAN, EMAKUMEEN ISTORIO ANITZAK KONTATU ZITUEN AMAIA ELIZAGOIENEK**

# "Aldarrikapen ekintza bat da 'Belarriprest'"

**AMAIA BONO** ANTZERKILARIA

Euskara ikasten dabiltzanak izan ditu gogoan Bonok bere euskarazko lehen sorkuntza lanean, esperientzia propiotik abiatuta. DAP plataformari esker gauzatu du proiektua

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria** ANTZUOLA

DAP Debagoieneko Antzerki Plataformak antolatuta, Amaia Bono artistak (Gasteiz, 1989) *Belarriprest* antzezlana aurkeztuko du domekan, hilaren 3an, 18:00etan, Torresoroan. Karoi Debagoieneko antzerki jaialdiko azken ekintza da.



Amaia Bono artista gasteiztarra, ikuskizun bat bukatu berritan. AMAIA BONO

**Zer da *Belarriprest*? Zerekin topo egiteko aukera izango du ikusleak?**

*Belarriprest* estetika sinpleko ikuskizun bat da, hitzaldi itxurakoa. Euskara ikasteko nire historia kontatzen du, eta, aldi berean, prozesu horretatik igaro diren Euskal Herriko pertsona askorena.

**Ikuskizunaz gain, protesta ekintza bat ere ba omen da. Zergatik?**

Agian ez da *protesta* hitza, baizik eta bitartekotza ekintza bat. Pertsona asko daude euskara dutenak ama hizkuntzatzat, edo ikastoletan ikasi dutenak, konturatu gabe; batzuetan, ez dute enpatiarik komunikatzeko arazoak ditugunokin, gure arazoekin, hitz jarioekin, zalantzekin eta abarrekin... Uste dut espektakulu honen bidez sentsibilizazioan eragin daitekeela. Aldarrikapen ekintza bat ere bada. Batzuetan esaten dudan eran, Euskal Herrian hiru pertsona mota daudelako: euskaldunak, erdaldunak eta gu, akastunok. Sarritan ez gaude espazio publikoan.

**Osagai biografiko pila bat ere badituela diozu, eta zuretzat erronka handia izaten ari dela.**

Ez baitakit euskaraz ondo hitz egiten. Euskalduna naiz, hortaz ez dut zalantzarik, baina txikitan A ereduan ikasi nuen eta urte asko daramatzat ikasten, barnetegietan, euskaltegietan... Oraindik ez dut sentitzen elkarrizketa argi bat izan dezakedanik euskaraz. Baina proiektu honek asko lagundu dit jendaurrean hitz egiteko beldurra galtzen!

**"ARTE ESZENIKOEN BIDEZ ULERTZEN DUT MUNDUA; HALA SARTU NUEN EUSKARAREN IKASKUNTZA HEMEN"**

**Izan ere, zure lehenengo sortze lana da euskaraz, ezta?**

Bai, urteak daramatzat arte eszenikoetan lanean, eta ez naiz inoiz ausartu; batzuetan, uste dut mundua arte eszenikoen bidez ulertzen dudala, eta, beraz, pentsatu nuen nire euskararen ikaskuntza mundu honetan sartuz gero, errazagoa izango litzatekeela. Bide onean doa.

**Zer da ikuskizun honekin lortu nahi duzuna?**

Gu ere euskal kulturaren parte garela azaldu eta aldarrikatu nahiko nuke.

**Nola egingo duzu hori antzerkiaren bidez?**

Enpatiaz eta ironiaz, baina batez ere umorez!

**Euskara, gainera, hizkuntza oso figuratiboa dela diozu, jakin-mina duena. Hala da?**

Bai. Kontzeptuak hitzez adierazten dituen hizkuntza da euskara, hitz elkartuetan eta esanahietan ikus daitekeen eran.

**Ikuskizunaren lehen urratsetako batzuk Antzuolako sormen egonaldian egin zenituen. Orain, herrian aurkeztuko duzu.**

Bai, eta asko eskertzen dut DAPek proiektu honekin izan duen konfiantza eta testuinguru zoragarri honetan lan egiteko aukera. Oso denbora eta espazio baliotsua eskaini zidaten proiektu hau su motelean sortu eta prestatzeko. Beraz, orain Antzuolara joatea eta han jardutea plazer handia da.

**Orain, lantalde handiagoarekin zabiltza lanean Azala espazioan, Araban. Idoia Zabaleta eta Hannah Whelan dituzu bidelagun. Zer egingo duzue elkarrekin? 'Belarriprest' proiektuaren jarraipena?**

Ideia izan da ildo horretan jarraitzea, eta euskaraz hitz egiten ez dakitenena hurbiltzen jarraitzea. Baina une honetan geldirik dagoen prozesu bat da. Artista gisa ez naiz ekoizteko makina bat, eta, aldi berean, denbora behar duten proiektuetan sartuta nago. Beraz, oraingoz, bigarren fase hori geldirik dago. Ikusiko dugu etorkizunak zer kontatzen digun!



NIRE USTEZ

**ION LIZARAZU**

## Bidaide

Ikaragarria da gorputza zertarako gai den. Sortzeko gai. Bi behar omen dira, baina zama batek darama.

Gorrotoen zerrendan aurrena "haurdun gaude" esaldia. Esango du inork bidaideak ere bere lana daukala eta sufritzen duela, baina zer nahi duzue esatea, Behobiako azkarrenaren prestatzaileak irabazten al du lasterketa? Utziko duzu kafea hartzea konplizitatez, baina ez nazka eta botaguragatik. Utziko duzu alkohola edatea edo delakoa jatea konplizitatez, baina ez barruan sortzen ari dena galtzeko beldur. Saiatuko zara bere lekuan jartzen, eta haren buruhausteak ulertzen, baina ez zara inoiz bere kezka eta zalantzetara gerturatzeko gai izango. Desberdina da, eta, behar du, norbere osasunaren eta barrukoaren kezka edo ondokoa ondo egotearena.

Bidaideak, hitzak dioen bezala, bidaiako kide izan behar du. Zalantza eta beldurrei perspektibatik erantzuten lagundu, sortzen diren beharrak ase. Bizitza berria nabaritzen uzten den orduko, huraxe bizi eta elkar momentura ekarri, sabeleko kolpe bakoitza haurra ezagutzeko bidean pauso bat izango da eta.

## Aquariumera txangoa antolatu du Landatxopek

Landatxope jubilatuen elkarteak beste txango bat du eskuartean: Donostiako Aquariumera joango dira abenduaren 14an, eguena. 09:30ean izango da irteera eta 11:00etan bisita. Bazkaria, ordea, norberaren kontura da. Hala ere, izena eman behar da aurrez, eta horretarako aukera izango da Landatxope elkartean hilaren 5 eta 7an, 16:30etik 18:00etara. Bazkideek 35 euro ordaindu beharko dituzte; ez direnek, aldiz, 40 euro.

Horrez gain, abenduaren 21ean, eguena, txistorra jana egingo dute, 18:00etan, baina horretarako ere lehenago eman behar da izena: zehazki, abenduaren 11n eta 12an.

## 'Konponbiderako giltzak' hitzaldia izango da hilaren 11n

Ez Dot Moztuko Bizarra taldeak, ohi den moduan, abendurako egitaraua antolatu du aurten ere, *Konponbiderako giltzak* lelopean. Eta, hain justu, titulu bera izango duen hitzaldia egingo du abenduaren 11n, astelehena. Nahikari Iturbe Sareko kidea eta Haizea Ziluaga abokatua izango dira hizlariak, eta Olaranen arituko dira, 18:30ean.

Horrez gain, abenduaren 24an ere izango dute zer egina. Luntxa egingo dute 12:30etik aurrera Zurrategi plazan, eta, ondoren, argazki herrikoia aterako dute. Are, abenduaren 29an, egubakoitza, *Konponbiderako giltzak* ekitaldia egingo dute, Zurrategin, 19:00etan.

## Sukena eta Lemak taldeen kontzertuak, bihar, gaztetxean

Antzuolako gazte asanbladak antolatuta, bi kontzertu izango dira bihar gaztetxean. Sukena talde oñatiarra izango da, batetik, oholtza gainean, *Guztia gordetzea ezinezkoa da* lana aurkezten; bestetik, baita Lemak ere. Hiru bergararrek eta antzuolar batek osatzen dute taldea. 22:00etan hasiko dira eta sarrera librea da.



EUSKARAK 365 EGUN

# EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2023




## Euskara egoera berrietarako gaitzen

Gaitu: euskal ahotsen datu-basea elikatzeko
Appa Hi!, 'hika' aritzeko aplikazioa
Enpresak euskalduntzeko Harixa egitasmoa
Loramendi euskara elkarteak 30 urte
'Goiena.eus': 20 urte euskaraz eremu digitalean
Euskararen Nazioarteko Eguneko hitzorduak

IMANOL SORIANO



# Euskaraldia, hizkuntza ohiturak aldatzen

Euskaraldiaren hirugarren edizioaren ikerketaren emaitzek nabarmendu dute, besteak beste, Euskaraldia "eraginkorra" dela eta "egonkortu" egin dela. Egitasmoaren koordinatzaile Goiatz Urkijok azaldu du laugarren edizioa egingo dela

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ARRASATE

Donostiako Egia auzoko *Egian euskaraz bizi nahi dugulako* ekimena abiapuntu hartuta, antzerako egitasmoak jarri zituzten martxan Euskal Herriko beste 20 herritan, eta "tokian tokiko ekimen arrakastatsu" horiek ardatz hartuta sortu zen Euskaraldia, hizkuntza ohiturak euskarara aldatu eta euskarara ekartzeko helburuarekin; Euskaraldiaren koordinatzaile Goiatz Urkijoren esanetan, euskara gehiago erabiltzeko, euskarari eusteko eta euskarari bide emateko: "Askotan aipatzen dugu: euskararen alde egotetik euskaraz egitera pasa nahi dugu Euskaraldiarekin".

Ordutik, Euskaraldiaren hiru edizio egin dira –2018an, 2020an eta 2022an–, eta egitasmoaren balorazio positiboa egin du Urkijok: "Euskaraldiaren sorreratik esan dugu epe luzeko proiektua dela. Askotan, maratoia dela diogu, ez esprint bat. Badakigu ekarpen bat dela, baina, aldi berean, ez duela konpontzen euskararen auzia". Argi dauka Euskaraldiak ekarpen hori ezin duela bakarrik egin, eta beharrezkoak dituela Korrika, euskara elkarteek, euskaltegiek nahiz ikastolek egiten duten lana, edo hizkuntza politikak.



*Belarriprest* eta *ahobizi*, Elgetako eskolan, 2022ko Euskaraldian. LARRAITZ ZEBERIO

## Azken edizioaren emaitzak

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra egin zen Euskaraldiaren hirugarren edizioa, eta egitasmoaren koordinatzaileak nabarmendu du atera duten ondorioetako bat dela Euskaraldia eraginkorra dela: "2022ko abenduan balorazioa egin genuenean aipatu genuen ariketa jendartean egonkortu, finkatu eta normalizatu zela sentitzen genuela, eta azken aldiaren ikerketak baieztatu digu hori". Hori horrela izan denaren adibidetzat jarri du 2022ko partaideen %85,2k ezagutzen zutela Euskaraldia lehen ediziotik.

*Ahobizi* eta *belarriprest* rolak, berriz, jokaerarekin lotzen direla dio: "Hizkuntza jokabideak nagusitzen dira %60,2an rolak hautatzeko arrazoien artean. Badakigu eta badirudi oraindik hizkuntza gaitasunak pisu handia duela rol bat edo beste hautatzeko orduan, baina hori ere garrantzitsua da rolak ulertzen ari eta hizkuntza jokabideekin lotzen direlako".

Ariguneei dagokienez, 8.610 izan ziren 2022ko edizioan izena eman zuten elkarte, lantegi eta bestelako erakundeak. 2020arekin alderatuta, Ariguneek %3,6 egin dute gora. Adierazi du Ariguneen funtzionamendua ondo ulertu dela; hiru entitatetik bik hala erantzun du: "Ariguneek babesa eskaintzen dute, taldetasun sentsazioa areagotzen baita. Gehiago dira taldean erosoago sentitzen direnak bakarka baino. *Ahobizi* eta *belarriprest*-ak adostasun batera heltzen dira, eta adostu dute Euskaraldian elkarrekin parte hartzea. Hori da egiten duten ekarpena". Era berean, esan du ikerketak erakutsi diela Euskaraldia egonkortzen ari dela eta jendeak ulertzen duela zer den ariketa.

## Euskaraldiaren eraginkortasuna

Urkijok adierazi du Euskaraldiaren helburua bete dela azken edizioan ere: "Iruditzen zaigu azpimarratzeko datua dela ikustea ikerketak esaten duela parte hartu dutenen bi herenek intentsitate ezberdinetan ohiturak aldatu dituztela".

150.000 pertsonak baino gehiagok hartu zuen parte azken edizioan: "Ekimen masiboa da. Partaide askoren inplikazioa ez da ariketak dirauen denbora tartera mugatzen. Antolaketa lanetan, hainbat pertsona aritzen dira, eta horrek euskararen aldeko mugimendua indartzen du". Balioa eman die herrietan osatzen diren batzordeei; koordinatzailearen hitzetan, horiek baitira egitasmoaren motorra.

**"2022KO PARTAIDEEN BI HERENEK HIZKUNTZA OHITURAK ALDATU DITUZTE"**

GOIATZ URKIJO, EUSKARALDIKO KOORDINATZAILEA

"Gipuzkoak eta Bizkaiak egin dute ekarpen kuantitatibo handiena" partaide kopuruari dagokionez; hamar herritarretik zortzi gipuzkoarrak edo bizkaitarrak ziren. Datuei erreparatuz, esaterako, parte-hartzaileen %45,1 dira gipuzkoarrak. Alde kualitatiboari buruz ere mintzatu da: "Ikerketak adierazten digu ia egoera guztietan ingurua zenbat eta euskaldunagoa izan, orduan eta gehiago egiten dela euskaraz Euskaraldiaren aurretik; hori normala da, baina gehiago egiten da ariketaren ondoren ere. Hala ere, ikerketak esaten du aldaketa handiagoa izaten dela ingurune erdaldunagoetan. Kualitatiboki ere datu garrantzitsua da, benetan, eragina inguru erdaldunagoetan ematen dela".

## Izango du beste edizio bat

Hiru edizioen ostean, laugarrena egingo da. Hurrengo edizioari dagokionez, ordea, ezer gutxi aurreratu du Urkijok: "Euskaraldiak izango du laugarren edizioa, hori ziur. Gainera, laster izango duzue horren berri. Baina, momentuz, horraino irakurri dezaket".

2022ko edizioaren ondoren, sakon hausnartu dute: "Aipatu daiteke hirugarren edizioaren ostean, balorazioa egiteko orduan, ikusi genuela beharra hausnarketa prozesu potente bat egiteko. Gogoeta prozesu sakona egin dugu ordutik, Euskaraldiaren inguruan dauden norbanako eta eragile ezberdinekin, erakunde publikoekin… Euskaraldia urrunago geratzen zaien eragile eta norbanakoekin ere egon gara, eta hortik jasotakoak oinarri hartuta ari gara momentu honetan laugarren edizio hori irudikatzen".

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
Proiektuak · Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com




Aurkezpen-ekitaldiko kideak eta udaletako ordezkariak, Leintz Gatzagan. AHOTSAK.EUS

# Appa Hi!, bailarako 'hika' ikasteko aplikazioa

Appa Hi! hitanoa ikasteko aplikazioaren bertsio berriak aurkeztu zituzten Gatzagan. Leintz aldeko hitanoak batu dituzte aplikaziora, eta, orain, Arrasateko, Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako 'hika' ikasteko aukera eskaintzen du

**Miren Arana** LEINTZ GATZAGA

2021ean, hitanoa sustatzeko asmoarekin, Appa Hi! aplikazioa sortu zuten Badihardugu euskara elkarteko kideek CodeSyntax-en laguntzarekin. Duela bi urte Oñatin sortutako aplikazioaren bertsio berria eta berrikuntzak aurkeztu ziren martitzenean, Leintz Gatzagako Gatz museoan. Aplikazioak hitanoa ikasi eta praktikatzeko aukera ematen du, bost aste irauten duen ikastaro batean.

**Bertsio berria**

Oñatiko Ingo Xonau! proiektuaren baitan sortu zen aplikazioa, eta orain arte euskara batuko hitanoa, Oñatikoa eta Eibarkoa egon diren arren, bertsio berrian Leintz aldeko hitanoak sartu dituzte, udal hauen laguntzari esker: Arrasatekoa, Eskoriatzakoa, Aretxabaletakoa eta Leintz Gatzagakoa.

Martitzenean, Leintz Gatzagako Gatz museoan izan zen bertsio eta berrikuntza berrien aurkezpena, eta herri guztietako teknikari eta ordezkariak izan ziren bertan. Dorleta Elkorobarrutia Leintz Gatzagako alkateak, Amaia Arana Arrasateko teknikari eta Udal Euskaltegiko irakasleak eta Aintzane Agirrebeña Badihardugu elkarteko kideak zuzendu zuten hitzaldia, eta beharrezko azalpenak eman zituzten.

**Hitanoaren egoera**

Dorleta Elkorobarrutiak eman zion hasiera aurkezpen ekitaldiari, eskerrak emanez hurbildu zirenei; eta Debagoien aldean hitanoaren egoera zein den azaldu zuen: "Bai Gatzagan eta baita bailaran ere, esango nuke nagusiak direla hitanoa menperatu eta hitz egiten dutenak, eta ez gazte, ez ertainek ez dutela erabiltzen. Orduan, herritarrei hitanoa hurbiltzeko izugarrizko tresna izango da aplikazioa".

Euskararen erregistroei eman zien paso Amaia Aranak, eta erregistro bakoitzaren azalpena eman ostean, hitanoaren transmisio falta azpimarratu zuen: "Hitanoa komunikaziorako daukagun baliabide bat da; lehengo euskaldunek hika hitz egiten zioten elkarri, baina azken urteetan alde batera utzi dugu, eta *zuka* tratamendua zabaldu da. Transmisio falta izan dugu".

Hitanoaren barruan, bi hizkera edo tratamendu bereizi zituen Aranak: *toka* eta *noka*. Lehenengoa gizonezkoei zuzentzeko erabiltzen da, eta bigarrena, emakumezkoei: "Esan dugu hitanoa galtzear dagoela; hori galtzear baldin badago, egoera okerragoan dago emakumeei zuzendurikoa, *noka*". Hori horrela izateko hainbat arrazoi zeudela azaldu zuen Udal Euskaltegiko irakasleak, baina hiru azpimarratu zituen: *noka* hizkera "zakartzat" jo izan dela, "gizonen" hizkeratzat eta "baserritarren" hizkeratzat.

**Aplikazioaren azalpenak**

"Hitanoaren egoera kaxkarra ikusita, herri askotan hitanoa bultzatzeko proiektuekin hasi ziren. Bailaran oso ezaguna egin zen Oñatin sortutako proiektua. Urtero egiten dituzten proiektuetatik sortu zen aplikazio bat egitearen ideia, eta 2021ean Appa Hi! aplikazioa sortu zen", azaldu zuen Aintzane Agirrebeñak.

"Hitanoaren oinarriak" ikasteko helburuarekin, aplikazioak bost asteko ikastaroa eskaintzen duela azaldu zuen Badihardugu elkarteko kideak: "Appa Hi! deskargatu eta ikasi nahi den bertsioa aukeratu behar da, eta gero hasten da ikastaroa. Egun bakoitzean, pilula bat zabaltzen da, eta ikasi beharrekoaren azalpenak eta adibideak dakartza, ondoren, galderak erantzun ahal izateko. Pilulak gainditzeko, galdetegiak bete eta gainditu behar dira; gainditutakoan zabalduko da hurrengoa. Gainera, aste amaieran, ikasitakoa laburbiltzen duen galdetegi bat ere erantzun beharko da mailaz pasatzeko. Ezin daitezke pilula guztiak egun berean egin; egun bakoitzean bat irekiko da. Ez da zertan egunero egin; bakoitzak bere erritmora egin dezake".

Aplikazioa hobetzen joango da; adibideak gehitzen eta lagungarri diren azalpenak gehitzen joango dira. "Gehienetan, herri bakoitzak bere adibidea izango du, baina beste herrietakoak ere erakutsiko dira, aberasgarria baita", dio Agirrebeñak.

**"HERRITARREI HITANOA HURBILTZEKO IZUGARRIZKO TRESNA IZANGO DA"**



# 'Goiena.eus'-ek 20 urte bete ditu

2003ko azaroan sortu zen 'Goiena.net' eta 2014an eman zuen '.eus'-erako jauzia; komunikazioan teknologien erronkei aurre egin nahiz informazioaren garai berrietara egokitzen jarraitzen du euskara hutsean informazioa ematen duen webguneak

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ARRASATE

2003ko azaroan jaio zen *Goiena.eus* ataria –orduan *Goiena.net*– eta dagoeneko 20 urte daramatza abiadura bizian etengabeko berrikuntzak egiten. Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusi Iban Arantzabalek gogoan du sorrera: "Osagarri ona zen sarea, orduko lantzen genituen papererako, irratirako eta telebistarako. Nabarmenduko nuke Goienak beti izan duela puntan egoteko gogoa eta ardura. Tren honetara tokiko euskal hedabidegintza goiz igo zen. Asmatu genuen lekua hartzen".

Ordutik geroz eta pisu handiagoa hartzen joan da sarea, eta Arantzabalek azpimarratu du "anaia-arreba nagusia" dela gainerako hedabideendako: "Gure lan fluxuetan ere Internet da lehenengo geralekua, eta ondoren datoz papera eta telebista". Horren emaitza ere erakusten da atariko audientzia datuetan; izan ere, egunean, 6.000 erabiltzaile eta 10.000 bisita ditu *Goiena.eus*-ek, batez beste. Aipatzekoa da, baita ere, 2014an *.eus*-erako saltoa eman zuela, euskararen normalizazioaren aldeko lanaren adierazgarri.

Iban Arantzabalek gaineratu du inork gutxik usteko zuela eskualdeko hedabide liderra izango zenik sarean: "Gaur-gaurkoz, euskarazko toki komunikazioan milaka bisita daude egunero. Iragarki bat jartzeko Tokikomek batzen duen amarauna da efektiboena. Afektiboa den tokikotasuna lantzen da eskualdez eskualde, eta efektibotasuna denok batuta lortzen da. Etorkizunean ere gaur arte beste landuko dugu sinesgarritasuna. *Goiena.eus* fidagarria da, eta aurrerantzean nahiko genuke pertsonalizatuagoa izatea. Lanean dihardugu".

### Tokikomeko webguneen erroa

Tokikom plataformako medio gehientsuenek ere Goienaren webgunearen erro –diseinu– bera daukate, eta horretaz ere berba egin du Goienako nahiz Tokikomeko zuzendari nagusi Arantzabalek: "Eskualde batean irla moduan funtzionatuta ez da behar besteko eraginkor normalizaziorako. Eskualdekako *Goiena.eus* gehiago baleude, euskara izango litzateke lider informazioan. Hori egiteko dago, eta gure nahia da bai plataformarekin bai bestelako erremintekin euskarazko toki informazioan eraginkorrak izatea Debagoienean zein Euskal Herriko gainontzeko eskualdeetan".

### Garai berrietara egokituz

Urte horiek guztiak berrikuntzek markatu dituzte, eta azken hilabeteetan ere badira webgunean ikus daitezkeen eduki berriak nahiz komunitateari zuzendutako beste zenbait berritasun. Irakurleei begira, Elhuyarrekin batera garatutako ahots sintesiaren proiektua da azpimarragarriena. Duela hilabete batzuetatik atari digitalean argitaratutako albisteak irakurri ez ezik entzun ere egin daitezke ahots sintesia erabiliz –pertsona baten ahotsa–. Mirari Altube *Goiena.eus*-eko arduradunak dio tokiko komunikabideen artean aitzindaria izan dela, eta orain Tokikomeko beste hedabide batzuetara zabaltzen ari direla aukera. Halaber, asmoa dute Vicomtech-ek garatutako proiektuarekin bideoetan transkripzio eta azpitituIatze automatikoak gehitzeko.

Komunitatearekin elkarlanean jarraitu gura du Goienak eta bailarako elkarte, eragile nahiz norbanakoek edozein edukiren

**"GOIENA.EUS' GEHIAGO BALEUDE, EUSKARA IZANGO LITZATEKE INFORMAZIO-LIDER"**

IBAN ARANTZABAL, GOIENAKO ZUZENDARI NAGUSIA









Erabiltzaile bat *Hala dio argazkiak* podcastaren atarian. A.R.K.

berri eman nahiz ekarpenak egin ditzakete *Komunitatea* atalean. Altubek aurreratu du 2024an leiho horren itxura berritu egingo dutela.

Edukiei dagokienez, esaterako, podcasten aroan murgildu da *Goiena.eus*. Arrasate Irratian hainbat gairi buruzko gogoetak jasotzen hasi dira; horren adibide dira, adibidez, gurasotasunari buruz adituei egindako elkarrizketak –*Guraso.eus* atariarekin lankidetzan– edo Arrasateko mugimendu feministako kideekin batera A-30aren harira eginikoak.

Era berean, Tokikomen Matx proiektua ere jaioberria da, eta badu lekua *Goiena.eus*-en: "*Kirolak* atarian herrietako kirol modalitate ezberdinetako –oraingoz, futbola, saskibaloia eta eskubaloia– taldeen informazioa jasotzen eta erakusten hasita gaude".

Tokiko merkatariei eta ostalariei zabalik dagoen *0 km gida* guneak ere berritasunak izan ditu. "*Eskaintzak eta Jaso ta jan* atalak gehitu zaizkio, haiek zuzenean igo ditzaten bezeroei eskaini gura dieten guztia", dio Altubek.

Aurten, gainera, 2000. urtearen aurretik kaleratutako bailarako aldizkariak digitalizatu dituzte. *Arrasate Press, Berrigara, Aretxagazeta, Goibekokale, Zebarri?, Kontuola, Txirritola* eta *Urlatik Goiena.eus*-eko *Aldizkariak* atalean daude ikusgai, GOIENA aldizkariarekin eta *Puntua* astekariarekin batera.

Aurtengoa hauteskunde urtea izan da, eta "esfortzu berezia" egin da sarean: "Unean uneko datuak azkar, eta azken orduko informazioa erakutsi dugu". Bestalde, nazioarteko komunikabideetatik ikasten jarraitzen du Tokikomek eta EITBrekin elkarlanean egin du *Saretzen* egitasmoa; euskarazko datu-kazetaritzaren adierazle. Webgunean izan du isla, besteak beste, grafiko interaktiboekin edo adituek eginiko datu-analisiekin.

**Etorkizuneko erronkak**

Erronka argia du *Goiena.eus*-ek: erabiltzaile berria atarira ekarri eta dagoeneko erabiltzaile direnak fidelizatzea. Horrek komunikabidea sinesgarria eta *zero kilometrokoa* izatea eskatzen duela dio atariaren arduradunak: "Errotutako komunitate bat izatea, Goienakideekin osatua. Hori guztia lortzeko, pertsonalizazioaren alde egin beharra dago, norberaren intereseko edukiak eskaini eta gustuko formatuan".

Argi du berrikuntza prozesuak ez duela etenik eta adimen artifizialarekin geroz eta azkarrago doazela aldaketak: egokitzea beharrezkoa dutela "punta-puntan jarraitu" gura bada.

**"ERRONKA BETI DA ERABILTZAILE BERRIAK ATARI DIGITALERA EKARTZEA"**

MIRARI ALTUBE, 'GOIENA.EUS'-EKO ARDURADUNA








Jaurlaritzako, Aldundiko eta eskualdeko herrietako ordezkariak bileran, Debagoieneko Mankomunitatean. BERGARAKO UDALA

# Debagoienean lan arloa euskalduntzea helburu

Bergarako Harixa egitasmoa oinarri, lan mundua euskalduntzeko Debagoien osorako proposamena landu dute Jaurlaritzak eta Bergarako Udalak. Dagoeneko bi bilera egin dira herri guztietako udal ordezkariekin, eta asmoa da 2024an abiatzea

**Miren Arregi Amasorrain** ARRASATE

Lan mundua euskalduntzeko planak Debagoieneko herrietan garatzeko proiektua martxan da. Zentzu horretan, Jaurlaritzako, Aldundiko eta eskualdeko udal ordezkariek bi lan bilera egin dituzte dagoeneko, bata urrian eta bigarrena azaroan, eta oraingo hilabetean burutuko dute hirugarren bat. Helburua da Debagoieneko herrietako enpresek euskara sustatzeko urratsak ematea, lan mundua ere euskarazko eremu bihur dadin.

### Harixa egitasmoa oinarri

Enpresa planak Debagoien mailan garatzeko proposamenak iaz Bergaran abiatu zuten Harixa egitasmoan du abiapuntua. Egitasmoa Bergarako Udalak bultzatu zuen, lan-mundua ere euskarazko eremu bilakatu asmoz. Eta hain zuzen ere, azken hori da Debagoien osoan landuko denaren oinarria. Bergarako alkate Gorka Artolarendako pozgarria da Bergaran duela urtebete martxan ipinitako proiektua erreferentzialtzat hartzea. "Bergaran, egitasmo honen bueltan, 38 eragilek sinatu zuten hitzarmena. Lan handia dugu oraindik, eta elkarlana beharrezkoa izango da konpromisoak betetzeko. Eskualde mailako plan indartsu bat abian jartzea Bergararako ere oso lagungarri izango litzateke".

Bergarako Udalak eta enpresek iazko urrian sinatu zuten hitzarmena, eta horren bitartez hainbat konpromiso hartu zituzten euren gain. Besteak beste, enpresa bakoitzean euskararen egoeraren inguruko diagnostikoa egitea, urteko egitasmo ezberdinak zehaztea edota hitzarmena sinatu duten enpresen artean euskara lehenestea dira horietako batzuk. Sinatu duten erakundeak egoera desberdinetan dauden lantegiak dira. "Batzuk urte asko daramate euskara planekin, eta beste batzuk hutsetik hasiko dira. Langile kopuruak eta langileen euskararen ezagutza ere desberdinak dira batetik bestera", dio Estepan Plazaolak, Bergarako euskara teknikariak. Hitzarmena sinatu duen enpresa bakoitzak bere ibilbidea finkatuko du, eta konpromiso berriak hartzen joango dira. Hitzarmenak lau urteko iraupena izango du.

### 2024an, Debagoienera

Esan bezala, Harixa egitasmoak hartutako bideari jarraikiz sortu zen proposamena bailara osora hedatzeko asmoa. Hitzarmenaren gidaritza daraman Bergarako lan-mahaiak hasieratik pentsatu zuen Bergararako ere oso onuragarria izango litzatekeela egitasmoa bailarara hedatzea, eta horren haritik, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Harixako ordezkariak harremanetan izan dira, Debagoien osorako plana lantzeko. "Jaurlaritzari egoki iruditu zitzaion Bergaran landutako proposamena; izan ere, lan munduan euskara sustatzeko Jaurlaritzaren plan estrategikoan aurreikusita dago enpresetan euskara planak bultzatzea. Hala, urrian eta azaroan Debagoieneko Mankomunitatean udal ordezkariekin egindako bilerak Jaurlaritzak berak gidatuta egin dira", azaldu du Plazaolak. Asmoa da 2024an Debagoieneko gainontzeko herrietara zabaltzea egitasmoa.

### Lana euskalduntzea, gakoa

Lan mundua euskalduntzeko ahaleginak ez dira berriak. Debagoieneko hainbat enpresak urteak daramatzate euren jarduna euskaraz izan dadin lanean. Elay eta Fagor erreferente dira horretan, eta aipatzekoa da EMUN aholkularitza enpresa, lantegietan euskara planak bideratzen espezializatua. Hala ere, lan-munduan euskararen presentzia ahula da oraindik ere. Badira hiru hamarkada gure herrietako gazteek ikasketak D ereduan egiten dituztela. Eskolaz kanpoko zenbait alorretan ere –aisialdia, kultura, kirola...– aurrerapauso nabarmenak egin dira azken urteetan, eta nagusiki euskaraz funtzionatzen dute. Lan munduan, aldiz, euskararen presentzia nabarmen ahulagoa da, eta, aldiz, ezinbestekoa da euskararen sustapenerako eta bizitzaren arlo guztietan euskaraz bizi ahal izateko.

**DEBAGOIENEKO ENPRESAK EUSKALDUNTZEKO URRATSAK EMATEA DA HELBURUA**





Gazte talde bat Badalaben, esperimentatzen. BADALAB

# Badalab, etorkizunean ere euskara erabilia izateko

Badalab Hizkuntza Berrikuntza Laborategia hizkuntzaren eta berrikuntzaren intersekzioan kokatzen da. Hizkuntzatik abiatuta, bi eginkizun ditu: euskararen biziberritze prozesuan berrikuntza txertatzea, eta berrikuntza prozesuetan hizkuntzaren aldagaia txertatzea.

Asko eta oso azkar aldatzen den munduan, hegemonikoa ez den hizkuntza batek aurrera egin nahi badu etengabe aritu behar du iraupenerako estrategiak egokitzen.

Estrategiek osagai berriak behar dituzte, eta horiek probatzeko tokia da Badalab Hizkuntza Berrikuntza Laborategia. Badalaben egitekoa etorkizuneko agertoki eta interakzio sistemetan euskara erabilia izan dadin ekarpena egitea da, eta, horretarako, galdera berriak eta ezohiko lankidetzak probokatuko ditu.

**Zer da Badalab?**

Badalab Hizkuntza Berrikuntza Laborategia hizkuntzaren eta berrikuntzaren intersekzioan kokatzen da. Hizkuntzatik abiatuta, bi eginkizun ditu: euskararen biziberritze prozesuan berrikuntza txertatzea, eta berrikuntza prozesuetan hizkuntzaren aldagaia txertatzea.

Berrikuntzako laborategi izaerari helduta bide berriak probatzeko aukera du, baita akatsak egiteko aukera ere. Are gehiago, errorea eskatzen du, ausardiaz aritu eta horretatik ikasi ahal izateko. Hori posible izan dadin esperimentazio gune seguru eta irekia izan nahi du.

**Badalab, nola?**

Badalab Hizkuntza Berrikuntzako Partzuergoa 2021eko uztailean eratu zen partzuergo misto gisa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz egitasmoaren baitako erreferentzia zentroa da, Errenterian (Gipuzkoan) egoitza duena.

Partzuergoak badu sortze-marka berezi bat: lankidetza publiko-sozialetik sortu da eta lankidetza hori bere egituran txertatu du, gobernantza partekatua eraikiz. Bere Gobernu Batzordea osatzen duten hamabost kideetatik bost dagozkie erakunde publikoei; beste bost kide eragile sozialek izendatzen dituzte; eta azken bostak bidelagunak dira. Horrek dakar erabakigunean hegemoniarik eza; gehiengoak adostu egin behar dira, eraiki.

Badalabek bere egin duen konbentzimendu sendo bati erantzuten dio gobernantza partekatuak: gizartearen ekimena eta erakundeen ahalmena uztartuta bakarrik izango du euskal komunitateak herri garapenerako aukera.

Eguneroko jardunean hiru pertsonak osatzen dute lantaldea. Eginkizun nagusi bi ditu; prospekzio lana, batetik, eta sare edo ekosistema zabala artikulatzea, bestetik.

**'Etorkisuneku'**

Euskaraz ere bizitzeko hautua egingo duen eta gizarte digitalean bizi den hiztun komunitatea osotasunean ulertu nahi du Badalabek. Horretarako, sei lan ildoren arabera irudikatu du bere jarduna: etorkizuneko ikuspegiaren lanketa, komunitateko gorputzen aniztasuna, komunitatearen baitako harremanen nolakotasuna, komunikazio sistemak, tresna eta baliabide digitalak, eta tokikotasuna jorratzeko Errenteria laborategia.

Ardatz horien baitan asko eta askotarikoak dira eskuartean darabiltzan esperimentuak, baina esanguratsuena izan daiteke *Etorkisuneku*, euskararen eta hiztun komunitatearen etorkizun desiragarri eta posibleak argitara ekarri nahi dituen egitasmoa. Hizkuntzaren auziarekin dagoeneko konektatzen dutenez gain, gehiagorengana iristeko asmoa du, komunitatearen ideien mundua elikatu eta helburu partekatu berriak sortzeko. *Zein elementuk zeharkatzen dituzte? Zein antolaketa eta harreman eredu behar dute? Nola zaintzen dute elkar? Zer daramate poltsan? Nola baliatzen dituzte tresna eta teknologia digitalak? Nola elikatu eta trinkotuko da komunitatea? Zein baliabide, kanal, formatu edo eduki mota behar dira euskal komunitatea elikatzeko? Eta beste batzuk erakartzeko? Esperimentazio hori guztia nola ekartzen da herri mailako politika publiko edo ekintza komunitarioetara? Nola lekualdatu ikasketak?* Tankerako galderak probokatuz, irudimena elikatzea du helburu, gaur egungo aukerak ulertu eta berriak esploratuz mundu posibleak irudikatzeko, non etorkizunean euskaraz (ere) bizitzeko hautua egingo duten gorputzak biziko diren.

**Gobernu Batzordea osatzen duten hamabost kideetatik bost dagozkie erakunde publikoei; beste bost kide eragile sozialek izendatzen dituzte, eta azken bostak bidelagunak dira; honek dakar erabakigunean hegemoniarik eza; gehiengoak adostu egin behar dira, eraiki**

Badalabek propio garatu duen metodologiaren baitan elkarrekin pentsatzeko eta irudikatzeko tarteek garrantzi handia dute; askotariko pertsonak ideia eta leku kolektiboak elkarrekin irudikatzen.

*Etorkisuneku*-ren lehen emaitza ukigarria izan da: *Itzultzeko eskubidea* fabula. Nerea Arrien idazleak kontakizuna josteko osagai izan zituen gazte talde batek sortutako agertoki desberdinak.

Bigarren fasea martxan da, *Nola berrinterpretatuko dugu kontakizuna hainbat arte diziplina eta begiradetatik?* premisa helburu irailean esleitu ziren sormen beken bidez.

*Euskozenoa*-rekin elkarlanean jorratu da *Etorkisuneku* egitasmoaren beste erpin bat, lehen belaunaldiko migratzaile talde baten galdera eta hausnarketek inspiratuta: *Hizkuntzak, gorputzak eta tarteko zirrarak* instalazio interaktiboa. *Nola sentitzen zara ezagutzen ez duzun hizkuntza batean ezaguna duzun abestia kantatuz? Zer, hizkuntza ezezagunean kontatutako ipuina entzutean? Nola ilustratuko zenuke? Zure auzokidearen istorioa ezagutzeak nora zaramatza?*

**Eta orain, zehazki zer?**

Etorkizuneko komunikazio edukiei, formatu edota interakzio sistemekin esperimentatu eta eragiteko *Etorkisuneku komunikazioa* egitasmoa martxan da 2deorekin elkarlanean. Komunikazioan interesa duten 18-30 urte bitarteko gazteentzako zortzi lan saio ireki egingo dira: adimen artifiziala eta emozioak, algoritmoa eta generoa, *fake news*-en unibertsoa, formatuen eboluzioa, ikus-entzunezkoak eta hizkuntza teknologiak, eta komunikazioaren eragina aldaketa klimatikoan. Hilabetean behin etorkizunari begira jarriko dira parte-hartzaileak, eta proposatu ahalko dituzte bertaratzeko aditu eta arituak. Saioetako metodologia dinamikoen emaitzekin ikus-entzunezko etorkizuneko formatuak eta interakzio prototipoak proposatuko dituzte.

Izen-ematea zabalik dago *Badalab.eus* webgunean.

# Arrasateko ereduari jarraituz, Aretxabaletan ere loratu zen

1993ko abenduaren 10ean sortu zuten Loramendi elkartea, Aretxabaletan euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin. Beteko dituen 30 urteak ospatzeko, omenaldi, kontzertu eta kultur ekitaldi "bereziz" beteko dute datorren urtea

**Miren Arana Pagaldai** ARETXABALETA

AEDk 40 urte betetzen ditu aurten, eta Euskal Herrian beste hainbat elkarterendako aitzindari eta eredu izan zen. Testuinguru horretan, euskararen aldeko beste batzuk ere sortu ziren: Bergaran, Jardun; Oñatin, Laixan; Aretxabaletan, Beinke; Eskoriatzan, Axtroki; Antzuolan, Idolaz; Aramaion, Txirritola, eta Elgetan, Goibeko. Eta, hain justu ere, Aretxabaletan, Beinkeren ostean, Joakin Arana Loramendi kultur elkartea sortu zen 1993an. Loramendik 30 urte betetzen dituela-eta, AED bezala, Loramendi ere ospakizunetan murgilduko da abenduaren 10etik aurrera.

1993ko abenduaren 10ean sortu zen Loramendi elkartea; Beinke elkartea eta Loramendi ikastola batzearen emaitza izan zen. Hala oroitzen ditu Patxi Lazkanok –Loramendiren lehendakari izanak eta sortzaileetako batek– elkartea sortu aurreko pausoak: "AEDko bazkide ginenok Aretxabaletan horrelako zerbait egin nahi genuen, eta sortzeko dei bat egin genuen. Uste baino jende gehiago etorri zen, eta horrela sortu zen Beinke, 1987an". Gerora sortu zen Loramendi, 1993an, Loramendi ikastola eta Beinke elkartearen baturatik: "Hasieran, Beinke Loramendi izenaz hasi ginen, eta aurreko elkartearen helburuak mantenduz jardun genuen".

### Inplikazioa eta lan handia

Ordutik, etengabe aritu dira lanean, herriari ekarpen eta onurak egitea helburu izanik. Patxi Lazkanok azaldu du hasiera batean lantalde asko izan zituztela; besteak beste, emakumeen talde bat, umeentzat beste bat, kultur taldea eta euskalkiak lantzeko taldea. *Aretxagazeta* izeneko egunkari bat ere izan zuten. "Loramendik harrera bikaina izan zuen herrian; izan ere, mugimendu handia zegoen orduan, eta, lan handia zegoen arren, jendea asko inplikatu zen hasieratik".

Oraindik ere, lan handia egiten ari dira Loramendi elkarteko kideak; gaur egun, Lierni Zangitu da lehendakaria, eta euskararen alde eta hizkuntzaren erabilera bultzatzeko urtean zehar proiektu asko dituztela azaldu du: "Alde batetik, euskararen erabilera sustatzen ahalegintzen gara; haur eta nerabeei zuzenduta, aisialdirako ludotekak eramaten ditugu, eta baita hizkuntza errefortzuak ere. Helduei ere euskara hurbiltzen saiatzen gara, Auzoko eta Berriketan programekin".

**"OSASUNTSU ETA BIZIRIK DAGO TALDEA, BESTELA EZ GENITUZKE 30 URTEAK BETEKO"**

### Etorkizuneko erronkak

"Lehen gazteleraz asko egiten zen, eta horri aurre nola egin asmatzea izaten zen zailena", dio Lazkanok. Urteak joan urteak etorri, erronkak berbera izaten jarraitzen du: euskararen erabilera maila handitu eta sustatzea. Hala azaldu du Zangituk: "Ez Aretxabaletan bakarrik, leku askotan, erabilera jaisten ari da, eta batez ere kaleko giroan eta hezkuntza formaletik kanpo, euskararen erabilera hori handitzea nahi dugu. Baita euskaltzaletasuna berriz bultzatzea ere; azkenaldian, epaileak hizkuntzaren aurka jarri dira, eta indarrak batu behar ditugu".

### Aktiboa eta indartsua

"Osasuntsu eta bizirik dago taldea; bestela ez genituzke 30 urteak beteko", azpimarratu nahi izan du Zangituk. Hala ere, boluntario lanak "asko aldatu" direla ere gaineratu du: "Gaur








**Loramendiko lehen zuzendaritza batzordearen argazkia.** LORAMENDI ELKARTEA

egun, asko galdu da boluntario lan egitea. Egia da Aretxabaleta herri nahiko aktiboa dela, eta orokorrean herriak beti erantzuten duela. Baina gaur egun erronka bat da elkarte guztiondako musu-truk zerbait egiteko jendea lortzea, eta gizartea eraldatzen doan heinean horri aurre egiteko zer egin behar den asmatzea".

Arazoak arazo, taldea "indartsu eta aktibo" mantentzen dela azaldu du lehendakariak: "Egia da euskararekiko herria nahiko pasibo dagoela azkenaldian, eta guk talde gisa beti dauzkagula hobetzeko gauzak. Hala ere, indartsu dago taldea; izan ere, kide berriak ditugu, eta sortu dugun lantaldeari esker, Loramendi aktibo eta indartsu mantentzen da".

**Urte "berezia"**

Abenduaren 10ean, domekan, izango da urteurrena, eta horrekin batera ekingo diote ospakizunari; egunean bertan, omenaldia egingo zaie gonbidatu "bereziei", Loramendi elkartea sortu zuten pertsona eta elkarteei. Udaletxe zaharreko atartean izango da ekitaldia. Ospakizuna ez da egun bakarrera mugatuko, ordea, eta 2024. urteari begira jarri dira jadanik elkarteko kideak. Lierni Zangituk urte "berezia" aurreikusten duela adierazi du, ekintza ezberdinez josia: "Orain ari gara guztia prestatzen, baina kontzertuak, omenaldiak, kultur ekitaldiak eta beste asko izango ditugu. Ekintza guztiak bereziak izango dira, baita horren kutunak ditugun San Migel jaiak ere. Aurten, Loramendirentzat horren garrantzitsu diren jaiei berezitasun bat eman nahi diegu, baina aurrerago zehaztuko dugu hori guztia".

## AEDren 40. urteurrena

AED 40. urteurrena ospatzen ari da; izan ere, 1983ko azaroaren 29an sortu zen elkartea, orduko hartan euskarak bizi zuen egoera zaila iraultzeko helburuarekin. 40 urteetan egindakoa erakusteko ospakizunetan murgilduta egon dira; hala, adibidez ekainean, *AED, 40 urte Arrasate euskalduntzen* erakusketa jarri zuten Kulturaten.

Bestalde, udazkenerako egitarau oparoa antolatu zuten; hala, urrian, *Ni ta nitarrak* antzezlana estreinatu zuten JAMEn; azaroan, aldiz, *Literatura emanaldi musikatua* egin zuten, izen handiko kulturgileekin, eta *Loreak belaunetan: kulturaren zazpi ahots gazte* solasaldia eskaini zuten. Abenduaren 2rako, urteurren jaia antolatu dute: 12:00etan, Kulturaten hasiera ekitaldia; 13:00etan, alde zaharrean bisita gidatua; eta 14:30ean, baba jana.



# Adimen artifiziala euskaraz gaitzeko

Euskal ahotsen datu-basea sortzeko kanpaina da Gaitu; horren bueltan eta Euskararen Eguna ardatz hartuta, Eusko Jaurlaritzak ahotsen bilketa masibo bat jarri du martxan. Hala, debagoiendarrek ere proiektuan beren aletxoa jartzeko aukera dute

**Miren Arana** DEBAGOIENA

2021eko azaroan, Bergarako Udalak etorkizunean makinei euskaraz aginduak emateko xedez, Aroztegi aretoan auzolan digitalean grabaketak egiten aritu ziren. Orduan Bergaran eginiko ekimena Euskal Herri osoan zehar zabaldu da orain, *Gaitu* izenarekin. Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak bultzatuta, urriaren 2an aurkeztu zuten kanpaina, Donostiako Tabakalera zentroan.

**Euskal ahotsen datu-basea**

Mozilla fundazioak martxan jarritako *Common Voice* ekimena elikatzeko eta euskarazko ahots-corpusa sortzen laguntzeko asmoz sortu da Gaitu kanpaina. Hala, eremu digitalean euskararen presentzia bermatzea da helburua, baina, hori lortu ahal izateko, teknologia berriei euskaraz irakatsi behar zaie, eta horretan datza proiektua.

Adimen artifizialak euskaraz egin dezan, makinek gure hizkuntza ulertu eta hitz egin dezaten, euskarak testuinguru digitalean dagokion presentzia izan dezan, teknologia arloan duen erabilgarritasuna finkatzeko asmoarekin eta erabilera eremuak handitzeko helburuarekin sortu da Gaitu proiektua, euskal ahotsen datu-basea elikatzeko. Hori guztia lortzeko eta teknologia berriei euskaraz irakasteko, milaka eta milaka herritarri egin die dei Jaurlaritzak, hizkuntzaren eta kulturaren garapenari arlo digitalean ekarpena egiteko. Izan ere, adimen artifizialak euskaraz egin dezan, milaka ahots eta grabazio orduren beharra dago.

**Pausoz pauso**

Irizpideak hiru dira: 20 urte baino gehiago izatea, euskaraz jakitea, eta irakurtzen jakitea; horiek betetzen dituen edonork lagundu dezake kanpainan. Izan ere, ahots asko eta askotarikoak behar dira: adin tarte, genero eta mota guztietakoak.

"Hasteko, garrantzitsua da Gaitu plataforma bat dela aipatzea eta ez aplikazio bat. Hori horrela, *Gaitu.eus* web-orrian sartu behar da lehenengo", azaldu du Eskoriatzako euskara teknikari Mari Karmen Arrietak. Behin web-orrian egonda, *Eman zure ahotsa* atalean egin behar da klik.

"Plataformak berak bi aukera desberdin eskaintzen ditu parte hartu ahal izateko; erabiltzaileak horietako bat aukeratu beharko du: ahotsa sartu edo balioztatu", dio euskara teknikariak. Ahotsa sartzeko, plataformak emandako esaldiak irakurri eta grabatu beharko dira; bost esaldiko paketeak eskaintzen ditu plataformak, guztiak euskara batuan: "Behar bezala irakurri behar dira esaldiak, ez bada zuzen irakurtzen ez du balioko eta; kasu honetan, euskara batuan dira guztiak". Behin ahotsa grabatuta, entzuteko aukera ere eskaintzen du programak; eta errepikatu nahi bada, erabiltzaileak aukera du.

"Ahotsa sartu nahi ez baina lagundu nahi duenak ere jarri dezake bere alea; izan ere, plataformak besteen esaldiak entzun eta balioztatzeko aukera ematen du. Aurrekoan bezala, bost esaldiko paketeetan datoz esaldiak, eta erabiltzailearen lana izango da horiek entzun eta zuzen irakurriak daudela egiaztatu eta balioztatzea".

**Gaitu, bailaran**

Abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna dela oinarri

**AHOTS ASKO ETA ASKOTARIKOAK BEHAR DIRA: ADIN TARTE, GENERO ETA MOTA GUZTIETAKOAK**









*Gaitu.eus* webguneko irudi bat. GAITU

harturik, Eusko Jaurlaritzak udazkenean euskal ahotsen bilketa masiboa egiteko proiektua jarri zuen martxan. Hori horrela, egun hauetan zehar, Debagoieneko herrietan aurkeztu dute proiektua; hala, herritarrek aukera izan dute eta izango dute proiektuaz gehiago jakin eta ahotsa sartuz parte hartu ahal izateko. Oñatik, Eskoriatzak eta Bergarak Euskararen Egunaren bueltan egitarau oparoa eskaini diete herritarrei, eta horren baitan dago auzolan digitaleko Gaitu kanpaina. Elgetan ere egingo dute. [ikus 35. orria]

Eguaztenean, oñatiarrek aukera izan zuten proiektua ezagutu eta parte hartzeko: 16:00etatik eta 19:00etara, Euskaldun Berria gelan izan ziren oñatiarrak hizkuntzaren eta kulturaren garapenean laguntzeko ahotsak sartzen.

Gaurkoan, Eskoriatzako plazan aurkeztuko da kanpaina: "Gure asmoa da pare bat orduz plazan egotea; hala, herritarrei web-orrirako bidea egiten lagunduko diegu, eta bertan *Gaitu.eus*-en bost esaldi sartzeko eta beste bost balioztatzeko eskatuko diegu", azaldu du euskara teknikariak. Horren ostean, herritarrak aukera izango du etxean "bide erraz" batetik berriz ere nahi dituen esaldiak sartu eta balioztatzeko. "Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako bilketa masiboan gure aletxoa jarri nahi izan dugu; hortaz, herritarrak plazako karpara etorri eta ahotsa sartzera animatzen ditugu, 18:00etatik aurrera".

**Bergarara bueltan**

2021ean Bergaran eginiko proiektua Euskal Herri osora zabaldu ostean, bueltan da herrira berriz ere. Hala, Bergara izango da Gaitu kanpainak euskararen egunaren bueltan zapalduko duen bailarako azken herria, abenduaren 3an, hain zuzen. Jardunek eta Bergarako Udalak elkarlanean auzolan digitala antolatu dute, 10:00etatik eta 14:00etara. 100 herritarren ahotsa sartzeko helburuarekin, animatzeko deia egin zaie herritarrei.

Parte hartu nahi duen orok hitzordua eskatu beharko du aurrez (ordua ere zehaztu behar da); txanda Bergarako Udalaren web-orrian eskatu behar da, *Bergara.eus*-en, hain zuzen. Saio bakoitzak ordu erdi iraungo du; beraz, hurbiltzen den bakoitzak denbora hori izango du esaldiak grabatu edo balioztatzeko. Bakoitzak bere mugikorra eta aurikularrak eramatea gomendatzen dute antolatzaileek. Gainera, saioak iraun bitartean haurren zaintza zerbitzua eskainiko zaie parte-hartzaileei; eta parte hartzen duten guztientzat, salda eta txorizoa egongo da.

**"HERRITARRAK PLAZAKO KARPARA ETORRI ETA AHOTSA SARTZERA ANIMATZEN DITUGU"**



# "Irulegiko Eskua aurkitzean gure kulturako ikur bat sortu zen"

**MATTIN AIESTARAN** ARKEOLOGOA

Hitzaldia eskaini zuen Mattin Aiestaran arkeologo tolosarrak eguaztenean Kulturaten, eta Irulegiko Eskuaren indusketak ekarri zuena izan zuen berbagai, besteak beste

**Julen Murua Mesonero** ARRASATE

Eguaztenean eskaini zuen Mattin Aiestaran (Tolosa, 1991) arkeologoak Kulturaten *Irulegi, bidaia arkeologo bat baskoien lurraldera* hitzaldia. Hitzaldian jasotakoaren inguruan eta 2021. urtean aurkitu zuten Irulegiko Eskuak euskal kulturan, baina, batez ere, euskal herritarrengan izan zuen eraginaren inguruan mintzatu da Aiestaran GOIENArekin.

**Zer kontatu zenuen hitzaldian?**

Izenburuari kasu eginaz, bidaia arkeologiko bat da, beraz, bistan da, oro har, arkeologiaz mintzatu nintzela. Irulegi zer den azaldu nuen, eta bertako aztarnategia izan zuen ardatz, baskoien eremuaren bihotzean aurkitzen dena, eta baskoiak berak ere ardatz izan nituen; Burdin Aroaren amaierako baskoiak –erromatar garaiko lurralde administratibo baten izena ere izan zen, baina gu aritu ginen garai horren aurreko baskoiez–. Aipatu nuen, gainetik, Irulegin zer egiten dugun, zein ibilbide izan dugun eta nola den aztarnategi arkeologiko batean lan egitea, baita bertako aztarna nagusiak zeintzuk diren eta zer dakigun baskoiez ere. Hor tartean, bistan da, sartu nuen eskua, gaur egun arte izan dugun aztarna garrantzitsuena delako, baskoien inguruko informazioari dagokionez, eta hor sakondu genuen: eskuaren inguruan ditugun hipotesi linguistiko eta epigrafikoak zeintzuk diren esanaz. Horiek dira, oro har, hitzaldian landu genituen gaiak.

**Zer lan egiten duzue Irulegin?**

Edozein toki arkeologikotan egiten dugun lan bera. Lehendabizi identifikaziotik hasi ginen; tokian bertan, gazteluan, aritu ginen hamar urtez lanean. Ni 2017an sartu nintzen, eta 2018tik gabiltza, gaztelua amaituta, herrixkan lanean –gaztelua baino mila urte zaharragoa da–. Herrixka horren aztarnen ikerketan ari gara.

**Eskua da Irulegiko aztarna esanguratsuena.**

Bai, eskua bera da esanguratsuena; ikur bat bihurtu zen momentu hartan. Hori da berrikuntza nabarmenena suposatu duena baskoien gaineko jakintzaren egoera honetan. Guk bagenekien, aurretik agertu diren gauzengatik, aztarnategia oso garrantzitsua zela eta, batez ere, egiten ari ginen lanarekin historiografian hutsune bat betetzen ari ginela. Burdin Aroko baskoiez benetan gutxi dakigu; badirudi ikaragarri dakigula, baina ez da horrela. Beraz, ateratzen dugun informazio hori guztia beti da berrikuntza bat. Espero ez genuena da horrelako pieza bat ateratzea eta pieza horrek linguistikoki izan dituen esanahiak izatea. Horrek ekarri du azken urteotan egin beharre-

EUSKARA
UMEAK ELKARRIZKETAN PARTE HARTZEN DAUDENETAN, HELDUEN EUSKARAREN ERABILERA %72,4KOA DA
UMERIK TARTEAN EZ DAGOENEAN, HELDUEN EUSKARAREN ERABILERA %47,3KOA DA
ANTZUOLAKO UDALA



ko lan mordoa eta iraultza txiki bat jakintza esparru honetan.

**Zer ekarri zuen Irulegiko Eskuaren aurkikuntzak?**

Aurkitu genuen momentuan, egia esan, ezer gutxi, ez genekielako esku bat zenik ere. Momentu hartan beste edozein pieza arkeologiko bezala altxatu genuen bere lur eta guzti. Hori eta gero, nafar gobernuan entregatu genuen pieza bera, eta handik urte erdira esan ziguten pieza hori idatzita zegoela. Zaharberritzaileek brontzezko lamina hura garbitu zutenean ohartu ginen piezak zuen garrantzia zer-nolakoa zen. Hasiera batean berunezko, brontzezko edo burdinazko beste pieza bat bezala hartu genuen. Egia esan, bai ikusi genuen hau xafla mehe bat zela eta, orduan, zerbait berezia izan zitekeela, baina ez genekien ongi zer zen, eta horrela utzi genuen. Guk arreta jarri genuen indusketan eta agertzen ziren gainontzeko pieza guztietan. Itxaron egin genuen pieza hura zaharberritua izatera iritsi arte, gehiago jakin ahal izateko. Momentuan gutxi esan genezakeen, oso kontziente ginelako zientzialariok behar dugula gure lasaitasuna eta isiltasuna lana ongi egin ahal izateko, eta, batez ere, jendaurrera agertu behar ginenean, agerraldi hori egin behar genuela berme zientifiko batzuekin.



Mattin Aiestaran, Kulturaten, eguaztenean, Arrasate Zientzia Elkarteak antolatutako hitzaldiaren aurretik. TXOMIN MADINA

**Espero zenuten horrelako harrera izatea?**

Espero genuen, nolabait, gure jendarteko zati bat hunkituko zuela eta berri hori iritsiko zitzaiola, baina inola ere ez genuen espero modu honetara iristea. Are gutxiago espero genuen Irulegiko Eskuaren kontua nazioartean zabaltzea. Horrek erakusten digu nola gutxiesten ditugun gure kulturako zenbait elementu; kasu honetan, gure hizkuntza. Europarrek beraien ondaretzat ere baduten hizkuntza bat da, eta ikusten da nazioartean ere balio handia ematen diotela kontu honi, ez dela soilik etxeko gauza bat. Horrek ere asko poztu gintuen, noski.

**Aurrerantzean horrelako ikur garrantzitsuren bat aurkitzea espero duzue?**

Galdera hau egiten didatenean beti ekartzen dut gogora Joakin Gorrotxategik eta beste filologo batzuek esan zigutena: beraiek susmatzen zuten horrelako zerbait egon zitekeela; baskoiek bere garaian idatzi ahal izan zutela. Baina ez zuten pieza hori topatzen eta ez zuten uste inor horrelako pieza bat aurkitzeko gai izango zenik ere. Eta, halako batean, kontserbazio berezia duen aztarnategi honetan agertu zen pieza hori, Irulegin. Ikusten dugu ezinezkoak ziruditen gauza horiek ere egon daitezkeela lurpean, eta, bat baldin badago, beharbada gehiago ere egon daitezkeela. Orain arte uste genuen ezin zela aurkitu, ezinezkoa zela, baina orain uste dugu, eta ikusi dugu, posible den kontu bat dela. Beraz, guk bilatzen jarraituko dugu.



# Euskara eta kultur aniztasuna

Jardunaldiaren bigarren edizioa izango da gaurkoa, eta, lehenengo edizioan bezala, euskara eta kulturartekotasuna izango dute berbagai; zehazki, udalerri euskaldunetan euskararen erabilera eta immigrazioa nola bateratu jorratuko dute

**Julen Murua Mesonero** ESKORIATZA

Euskara eta kulturartekotasuna batuko dituen bidea eraikitzeko gogoeta egiteko jardunaldia antolatu du Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. Mondragon Unibertsitatearen Eskoriatzako fakultatean izango da hitzordua gaur goizean 09:15ean hasita. *Euskara eta kulturartekotasuna hezkuntza-komunitateetan* izena du jardunaldiak, eta bigarren edizioa da aurtengoa. Bertan azalduko da eskoletan nola landu daitekeen euskaraz bizi nahi dutenen eta oraindik euskaraz ez dakiten baina ingurune euskaldunean bizi direnen arteko bizikidetza.

2021. urtean jarri zuten martxan ekimena Zaldibian, eta, iaz, Zestoa, Aizarnazabal, Ondarroa, Ibarra eta Leitza batu ziren. Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearekin elkarlanean egindako ekimen bat da, eta aurten beste hamalau udalerri batu dira; horietako bat gure bailarakoa da: Oñati. Hauek dira, Oñatiz gain, ekimenera batu diren gainontzeko herriak: Azpeitia, Markina-Xemein, Orio, Bera, Alegia, Legorreta, Arbizu, Lizartza, Areatza, Asteasu, Itsasondo, Mutriku eta Ereñotzu.

Antolatzaileek adierazi dute ezinbestekoa dela "udalerrietako hezkuntza-komunitateen, udal-eragileen, UEMAren eta Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen arteko lankidetza, euskara eta kulturartekotasuna uztartuko dituen bidea eraikitzeko". Horrez gain, jakinarazi dute "ekitaldia euskaraz" izango dela, baina gaztelaniaz ere eskainiko dela "Telegram bidez". Jardunaldian parte hartu nahi dutenek aldez aurretik eman beharko dute izena *Mondragon.edu* web orrialdean.

### Errealitate ezberdinak

Jardunaldian parte hartuko duten adituek gaur egungo gizartean bizi diren bi errealitate ezberdin izango dituzte hizpide: "Euskaraz dakitenek hizkuntza horretan bizitzeko duten nahia eta euskaraz ez dakitenen egoera. Hau da, ikastetxeetan euskaraz bizitzen jarraitzea eta, aldi berean, euskaraz ez dakiten guraso immigranteei informazioa ematea eta horiek parte hartzea lortzeko modua aurkitzen saiatuko dira".

**EUSKARA ETA KULTURARTEKOTASUNA LANTZEKO ANTOLATU DUTEN BIGARREN JARDUNALDIA DA**

### Hainbat hizlari egongo dira

Egunaren hasieran, Nagore Ipiña Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoak jardunaldia aurkeztuko du, eta, jarraian, hainbat hizlari izango dira. Lehenik eta behin, Karmele Perezek (Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko kidea da) hartuko du hitza, eta proiektuaren berri eman eta sustatutako aldaketek ekarri dituzten jardunbide egoki batzuk partekatuko ditu. Ostean, Eider Amundarain Zaldibiako Lardizabal ikastetxeko zuzendariak eta Amelia Barquin fakultateko kideak ikasturte-hasierako bileren formatua nola aldatu den eta zein inpaktu lortu duten azalduko dute, eta, ondoren, Maialen Zuazo UEMAko kideak proiektua aurkeztuko du. Atsedenaldiaren ostean, Nora Palmitano Zestoako euskara-teknikariak herrian euskara bultzatzeko, beste hizkuntza batzuk ere aintzat hartzeko eta kulturen arteko harremanak sustatzeko sortu diren jarduerak zeintzuk izan diren kontatuko du; eta, hizlariekin amaitzeko, ekimenean parte hartzen duten zenbait uda-

Bergara • metagra México • Group

EUSKARAK 365 EGUN

'GAITU' AUZOLAN DIGITALA
Teknologiari eta adimen artifizialari euskaraz irakatsi behar diogu mundu digitalean euskaraz aritu ahal izateko. Milaka ahots behar ditugu; zurea ere bai. Zatoz!
ABENDUAK 3, IGANDEA, 10:00ETATIK 14:00ETARA SEMINARIXOAN
Telefono mugikorra eta aurikularrak eramatea komeni da
• 20 urtetik gorakoentzat
• Ordu erdiko txandak. Hartu ordua, hemen: https://euskara.bergara.eus/eu/gaituauzolana
• Haurrentzat zaintza zerbitzua egongo da
• Parte hartzaileentzat salda eta txorizoa

BATU DITZAGUN GURE AHOTSAK,
TEKNOLOGIARI EUSKARAZ IRAKASTEKO
Bergarako udala
Jardun



Iazko jardunaldiko argazkia. MONDRAGON UNIBERTSITATEA

lerritako gurasoek haien ikuspuntua plazaratuko dute, hala, haiek betetzen duten rola zein den eta prozesua nola bizi duten ezagutzera emateko.

Eguna amaitzeko, galderak eta ekarpenak egiteko tarte bat izango dute jardunaldira bertaratzen direnek. Horren ostean, etorkizunean ekimenarekin aurrera jarraitzeko eman beharreko urratsekin emango diote itxiera jardunaldiaren bigarren edizioari.

**Bailarako ordezkaritza**

Guztira, Euskal Herri osoko hemezortzi udalerri daude proiektuaren barruan, eta udalerri horietatik bat Debagoienean dago: Oñati. Azken urteetan, Oñati eta euskararen gainontzeko arnasgune guztiak ere geroz eta anitzagoak bihurtu dira, eta, Asier Lauzurika Oñatiko Udaleko Hezkuntza batzordeburuak dio, neurri batean, hori erronka bihurtu zela haientzat: "Anitzagoak izate hori aberastasun gisa ulertzen dugu Oñatin, baina, era berean, erronka berriak jartzen dizkie gure herriari eta hizkuntzari; nolabait, jarraitu behar dugulako izaten euskararen arnasgune eta euskara ardatz duen komunitate, kulturarteko testuinguru batean. Horretarako, hainbat urrats eman ditugu herrian; Txipistin proiektuaren sorrera, esaterako. Gure asmoa da erantzutea aniztasun horri eta jatorri anitzeko oñatiarren behar horiei. Proiektu horiek guztiak martxan jartzen hasi ginenean iritsi zitzaigun UEMAtik ekimen honetara batzeko proposamena, jakiteko nola parte hartu eta komunikatu familia horiekin guztiekin batera eta nola eraiki kulturarteko komunitate bat, euskararen arnasgune garen testuinguru honetan. Aukera hori egoki ikusi genuen, guk ere norabide horretan urratsak eman nahi genituelako, eta herriko ikastetxeei luzatu genien proposamena".

Proiektuak ardatz batzuk ditu, eta udalak "ardatz horiekin bat" egiten duelako erabaki zuten aurrera egitea: "Gure artean kultura eta hizkuntza anitzak daude, eta gure lana da, testuinguru horretan, jatorri, identitate eta hizkuntza anitzak harilkatzea euskara ardatz izanik, eta uste dugu proiektu honek horretan laguntzen digula".

Dagoeneko hemezortzi udalerri daude MUk eta UEMAk kudeatzen duten proiektu honen barruan lan egiten, baina gero eta gehiago batzea da helburu nagusia Lauzurikaren arabera: "Oñatitik harago, Euskal Herriaren etorkizuna ere hori da: kultura, identitate eta hezkuntza ezberdinak harilkatzea, eta, beraz, udalerri gehiago batzea".

**PROIEKTUAN, HEMEZORTZI UDALERRI DAUDE, ETA HORIETAKO BAT DA OÑATI**



# Egin Ttap!, azken txanpan

Kukulaisik lehenengoz antolatutako 'quiz' formatuko lehiaketan 114 talde aritu dira; horietatik 36 Debagoienekoak. Aretxabaletarrek domekan jokatuko dute herriko finala



Kukulaisi, Jardun, Loratu eta Atxutxiamaika taldeetako ordezkariak. KUKULAISI

**L. Zeberio Lekuona** DEBAGOIENA
Euskararen Egunaren bueltan sortu du Kukulaisik Egin Ttap! online lehiaketa. Azaroaren 24tik 30era bitartean haurrekin zein helduekin osatutako 114 talde nor baino nor aritu dira antolatzaileek egunero jarritako zazpi galderen erantzunaren bila. Alegia, erantzun zuzenak ahalik eta azkarren ematen ahalegindu dira. "*Quiz* dibertigarria sortu dugula uste dugu. Denetariko galderak egon dira: euskararekin lotutakoak, euskal kulturarekin erlazionatutakoak, galdera geografikoak...", azaldu dute bultzatzaileek.

Kukulaisirekin batera hiru elkartek jardun dute diseinu lanetan: Bergarako Jardun, Aretxabaletako Loratu eta Elgoibarko Atxutxiamaika. Gero, beste bost elkarte batu dira ekimenera: Kirikiño Atseden Taldea, Geu Elkartea, Berbaizu Euskara Elkartea, Berbaro Elkartea eta Hitzaro Euskara Elkartea. "Elkarte horiek jarduten duten herriez gain, Euskal Herriko beste herri batzuetako jendeak ere hartu du parte. Hala nola Arrasateko, Beasaingo, Lantziegoko eta Lekeitioko parte-hartzaileak ere izan ditugu".

Gazteengana heltzeko ekimena izan da Egin Ttap! online lehiaketa. "Aisialdi digitalean euskarak presentzia urria du, eta horri erantzuna emateko zein familian jokatzeko modu dibertigarri bat proposatu dugu. Egia esan, pozik gaude lehen edizioak izan duen harrerarekin".

Parte hartzaile gehienendako amaitu da lehiaketa. Atzo erantzun zuten azken galdera sorta eta abenduaren 4an jakingo dute zein talderendako izango diren IrriSarri Land-erako sarrerak. Zozketaz erabakiko da.

**Finala Aretxabaletan**

Zazpi eguneko online lehiaketaren ostean bi herritan egingo dituzte aurrez aurreko finalak; Aretxabaletan eta Elgoibarren. "Ekimenaren lehenengo urtea izanik proba pilotua da, eta bi herri horietan jokatuko dira finalak". Aretxabaletaren kasuan finala domekan jokatuko da,






17:00etan, Ibarra kiroldegian. "Nork bere erara egingo du finala. Aretxabaletaren kasuan puntuazio handiena lortu duten hamar taldeak sailkatu dira final handirako, eta bakar batek irabaziko du. Tartean, noski, sorpresatxoak egongo dira", azaldu dute Loratu Aisialdi Taldeko Ainhoa Sanchezek eta Beñat Arizabaletak. Aurreko egunotan 31 talde aritu dira nor baino nor Aretxabaletan; guztira 108 lagun. "Oso fin aritu dira guztiak", azaldu dute Sanchezek eta Arizabaletak. Balorazio oso positiboa egiten dute, eta ezer gutxi aurreratu dute etzi jokatzekoa den finalari buruz.

### Jarraipen handia

Finalarekin edo finalik gabe Egin Ttap! lehiaketan parte hartu duten elkarteek jarraipenaren inguruko balorazio positiboa egiten dute eta oso pozik daude izandako erantzunarekin. "Talde gehienek fin-fin erantzun dute egunero bidalitako galdera sorta". 2-5 pertsonako taldeak izan dira eta guztietan egon da gutxienez pertsona heldu bat. "Aisialdi digitalarekin zalantza handiak daude Kukulaisiko bazkideen artean; izan ere, teknologiak gure bizitzetan duen presentzia ukaezina da, baina oso aukera gutxi ditugu teknologia berriez euskaraz gozatzeko, eta euskarazko edukiak sortzea garrantzitsua dela uste dugu. Era berean, teknologia modu arduratsu eta hezitzaile batean erabiltzea funtsezkoa dela uste dugu, eta ekimen honen helburua ez zen haurren artean mugikorraren erabilera sustatzea. Teknologia taldean eta heldu baten presentziarekin erabiltzea aukera egokia iruditu zitzaigun. Horrez gain, familiartean euskaraz ondo pasatzeko aukera bat izan dela uste dugu".

### Saretuta egotearen garrantzia

Hainbat euskara elkarte dira Kukulaisiko bazkide. Bergarako Jardun eta Aretxabaletako Loratu elkarteetako ordezkariendako oso aberasgarriak izaten ari diren dinamikak sortu dira sare horren barruan. "Kukulaisiko parte izatea elkarteen saretzea ekartzen ari da, eta horrek elkarteak indartu, lagundu, gure artean esperientziak trukatu, formakuntzak jaso eta modu zabal batean lehiaketa hau modukoak antolatzeko aukera ematen du. Garrantzitsuak dira elkarteen artean sortzen ari den elkarlana eta sortzen ari diren proiektuak", azaldu du Bergarako Jardun elkarteko Saioa Garitanok.

Iritzi berekoak dira Aretxabaletako Loratu Aisialdi Taldeko Ainhoa Sanchez eta Beñat Arizabaleta. "Guretzat oso aberasgarria izaten ari da; izan ere, errealitate desberdinak ezagutzeko aukerak eta horrek ematen digun perspektiba irekierak aukera ematen digu gure errealitatera moldatzeko. Gainera, askotariko formakuntzak jasotzen ari gara".

Lehiaketako irabazleak ezagutzeko zain, ikusteko dago ekimenak jarraipenik izango duen. "Azken balorazioak esango du hori, baina baikorra naiz. Uste dut balorazioa positiboa izango dela eta berriz ere martxan jarriko dugula. Hori bai, erakunde publikoen laguntza ere beharrezkoa izango da", esan du Kukulaisiko zuzendari June Furundarenak.

## "Erantzuna guk espero genuena baino handiagoa izan da"

**JUNE FURUNDARENA ARTESANO** KUKULAISIKO ZUZENDARIA



L.Z.L.

Kukulaisitik balorazio positiboa egiten dute. Aisialdi euskalduna garatzen eta saretzen jarraituko dute.

**114 talde ari dira Egin Ttap lehiaketan. Bada zerbait!**

Erantzuna espero genuena baino handiagoa izan da. Gainera, jarraipen nahiko handia izan du. Hala ere, balorazio-fitxak bidaliko ditugu. Horrek emango digu benetako balorazioa egiteko aukera.

**Gazteengana heltzea ez da erraza.**

Aurrez aurrekoa da gure funtsa, baina argi dago gaur-gaurkoz pantailek sekulako garrantzia dutela. Kalitatezko eduki euskalduna sortzea beharrezkoa da, ahaztu gabe gure helburua denbora murriztea eta aurrez aurreko harreman eta esperientzia positiboak eskaintzea dela.

**Beste hamaika ekimen dituzue martxan, ezta?**

*Ahozgora* gazteekin herriko aisialdiaren diagnostikoa egiteko prozesu parte hartzailea da. *Entrenatzen,* berriz, kirolean euskara sustatzeko proiektua da, eta *Bapiruke* euskaraz jolasteko jolas-bilduma. Kukulaisitik aisialdi euskalduna garatzeko aukera ematen saiatzen gara, betiere elkarlana eta saretzea oinarri izanda.



FAGOR
Euskaraz dihardugu, etorkizuna hobetzeko lanean
FAGOR ARRASATE
FAGOR AUTOMATION
FAGOR ELECTRÓNICA
FAGOR PROFESSIONAL
fagorederlangroup
MONDRAGON ASSEMBLY
galbaian intellectual property
COPRECI

# EGITARAUA

## ABENDUAK 1

**Oñati 'Bake lehorra' antzezlana**
Tartean Teatro taldearen antzezlana, Batxilergoko ikasleendako. Aitor Borobia eta Aitor Fernandino oholtzan.
*Santa Ana antzokian, 12:00etan.*

**Oñati 'Appa hi!' lehiaketa**
Tribial erako galdera-erantzunen jokoa, *Egunean Behin* modukoa.
*Gaztelekuan, 12:00etan.*

**Aretxabaleta Appa Hi! aplikazioaren aurkezpena**
Mokadutxoa eta txokolate beroa. Idoia eta Ainhoa bikotearen kontzertu akustikoa.
*Udaletxe zaharrean, 18:00etan.*

**Elgeta Gaitu kanpaina**
Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak antolatuta, adimen artifizialak euskaraz egin dezan lanean diharduen Gaitu kanpainaren gaineko informazio mahaia.
*Mendizaleen plazan, 18:00etan.*

**Eskoriatza Gaitu kanpaina**
Adimen artifizialak euskaraz egin dezan beraien ahotsa grabatu gura duten herritar guztiendako.
*Fernando Eskoriatza plazan, 18:00etan.*


*Bakean lehorra* antzezlaneko une bat. TARTEAN TEATRO

**Oñati Euskal kantuen saioa eta txokolate-jana**
Ikastetxeetako guraso elkarteek banatuko dute txokolatea debalde. Ikasleek bizkotxoak salduko dituzte euro baten truke.
*Foruen plazan, 18:00etan.*

**Bergara 'Izotz ondoko eguzki. Euskararen historia soziala (1940-1980)' liburuaren aurkezpena**
Idoia Etxeberriaren liburuaren aurkezpen ekitaldia. Egilea ekitaldian egongo da.
*Osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.*

**Oñati 'Bake lehorra' antzezlana**
Tartean Teatro taldearen antzezlana. Saio irekia. Sarrerak, zortzi eurotan, Txokolateixan eta Udal webgunean. Aitor Borobia eta Aitor Fernandino oholtzan.
*Santa Ana antzokian, 19:00etan.*

## ABENDUAK 2

**Eskoriatza 'Aireportuan' ikuskizuna**
Potx eta Lotx pailazo taldearen eskutik. Debalde. Potx eta Lotxen ametsa betetzear da: denbora luzez aurrezten ibili eta gero, hegazkinez bidaiatuko dute.
*Zaldibar antzokian, 12:00etan.*



**Eskoriatza Txalaparta eta bertso emanaldiak**
Eskoriatzako txalaparta taldea, Hankamotx bertso eskolako kideak, eta Lide Arregi eta Urko Egaña bertsolariak.
*Fernando Eskoriatza plazako karpan, 13:15ean.*

**Aramaio Triki-poteoa**
Kalejira tabernen inguruan, Trikikalejira elkartearen eskutik.
*Aramaion, 13:30ean.*

**Aramaio Kantu-bazkaria**
Barajuengo Koskoltegi elkartean.
*Barajuenen, 14:30ean.*

**Eskoriatza Kantu-bazkaria Sei Pistols & Trabuko Bat taldearekin**
Patatak errioxar erara, haragi-bolak eta pastela.
*Fernando Eskoriatza plazako karpan, 14:30ean.*

**Aramaio 'Jolas molaz' tailerra**
Herritar guztiendako.
*Kultura etxean, 17:30ean.*

**Eskoriatza Musika eta dantza**
20:00etan, Mugi Panderoa taldearekin dantzaldia; eta 23:00etan, DJ Ittaurrenen emanaldia.
*Fernando Eskoriatza plazako karpan.*


GOIENA

**Eskoriatza 'Aireportuan' ikuskizuna**
Potx eta Lotx taldearen eskutik. Debalde. Bi pailazoen ametsa betetzear da: denbora luzez aurrezten ibili eta gero, hegazkinez bidaiatuko dute.
*Bihar, zapatua, Zaldibar antzokian, 12:00etan*

## ABENDUAK 3

**Bergara Gaitu auzolan digitala**
Adimen artifizialak euskaraz egin dezan beraien ahotsa grabatu gura duten herritar guztiendako.
*Seminarixoan, 10:00etatik 14:00etara.*

**Eskoriatza 0 km azoka**
Ordutegia: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.
*Fernando Eskoriatza plazako karpan.*

**Bergara Labirintoa**
Parte-hartzailea. Ordutegia: 11:00-14:00 eta 17:30-20:30.
*San Martin plazan.*

**Aramaio Herri lasterketa**
Herritar guztiendako.
*Bizente Goikoetxea plazan, 12:00etan.*

**Eskoriatza 'Alarma morea' emanaldia**
Runba flamenko feminista euskaraz, Ainhoa eta Uxue Plagarorekin eta Nerea Dualekin.
*Fernando Eskoriatza plazako karpan, 13:00etan.*

**Aramaio Partxis lehiaketa**
Herritar guztiendako.
*Sastiñan, 16:00etan.*

**Elgeta Bakarrizketa saioa**
Maria Blanco, Maialen Sorzabalbere, Julen Portillo eta Iker Plazaola. Debalde.
*Espaloian, 17:00etan.*

**Aretxabaleta 'Egin ttap' lehiaketaren finala**
Irekia.
*Kiroldegian, 17:00etan.*

**Antzuola 'Belarriprest. Nire lehenengo sortze-lana euskaraz' antzezlana**
Amaia Bono artistaren antzezlana, Karoi antzerki jaialdiaren barruan. Sarrerak, bost euro.
*Torresoroan, 18:30ean.*

**Eskoriatza 'Ispiluak' ipuin kontaketa**
Helduendako ipuin kontaketa, Dorleta Kortazar eskoriatzarren eskutik. Debalde.
*Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

## ABENDUAK 4

**Aramaio 'Adimen artifizialak lagundu ahal dosku euskararen jatorrira hurbiltzen?' hitzaldia**
Irekia, interesa duten herritar guztiendako.
*Kultura etxean, 18:30ean.*






# Euskaraz amets egin, ikasi, idatzi, lan egin, maitemindu, jolastu, gozatu, sentitu… **zu zeu** izan Kutxabanken ere, **bizi euskaraz**.

Aukeratu euskara Kutxabankeko harremanetarako.
Kanal guztiak euskaraz erabil ditzakezu. Informa zaitez.




Abenduak 3.
**Euskararen Nazioarteko Eguna**

Kutxabanken Hizkuntza Politika ikusi hemen:
**www.kutxabank.eus**

Kutxabank, S.A., Kale Nagusia, 30-32, Bilbao, IFK A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. 5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa.

# "Gero eta umore gehiago egiten da euskaraz"

**JULEN PORTILLO** UMORISTA

Barre egin nahi duenak domekan lau bakarrizketa entzuteko aukera izango du, 17:00etan, Espaloian. Euskarazko lau saio izango dira, eta sarrera doan

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Tiktoker moduan eman du ezagutzera bere burua Julen Portillok (Zarautz, 1994). Udalak Euskararen Egunaren bueltan domekarako antolatu duen bakarrizketa saioko umoristetako bat izango da.

**Barre egitea oso gustuko dugu Elgetan. Indartsu zatozte?**

Jakina baietz. Gogotsu joango gara Elgetara. Egia esan, leku guztietara horrela joaten gara. Maria Blanco zestoarra, Maialen Sorzabalbere donostiarra, Iker Plazaola oñatiarra eta laurok izango gara kafe antzokiko bakarrizketa saioan.

**Bakarrizketak modan daude. Euskaraz eta Euskal Herrian ere bai?**

Gero eta umore gehiago egiten da euskaraz, eta gero eta umore gehiago kontsumitzen da euskaraz. Asteburu honetan, esaterako, lau saio ditugu. Ostiralean, Beasainen eta Baliarrainen; eta igandean, Elgetan eta Ean. Esango nuke beste leku batzuetan baino bakarrizketa gutxiago egiten direla eta publikoa formatu honetara hezteko dagoela, baina, behin hasita, jendeak errepikatu egiten du. Donostiako Doka aretoan hilean behin egiten ditugu bakarrizketak, eta sarrera guztiak minutu gutxitan saltzen dira.



Julen Portillo. TIK TOK @JULENPO

**"IKASTEN ARI GARA, BAINA ORAINDIK ERE BADIRA ZENBAIT GAI UKIEZINAK DIRUDITENAK"**

**Eta euskaldunok badakigu gure buruaz barre egiten?**

Ikasten ari gara. Oraindik ere badaude zenbait gai ukiezinak dirudítenak, baina poliki-poliki ari gara bidea egiten. Umore mota asko daude, eta bakoitzak konektatzen du berearekin, eta normala da hori.

**Zirikatzea gustuko duzue umoristek. Komeni da domekan atzeko ilaretan esertzea?**

Jendea, mesedez, lasai etor dadila antzokira. Ez dugu inor eszenatokira igoko ez ezer, baina zehaztu behar dut ez dela umeentzako ikuskizuna. Sarri etortzen dira, baina ikuskizuna helduentzako da. Egunerokotasuneko gaiak jorratuko ditugu gehien-gehienetan, baina tonua eta komentarioak ez dira publiko guztientzat.

## Auzolan digitala gaur Elgetan

Gaitu proiekturako audio grabazioak egingo ditu gaur Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak. Boluntarioak behar dira; bakoitzak hainbat esaldi irakurri beharko ditu. 16 urtetik gorako herritar orok har dezake parte. "Gerturatu plazara, zure ahotsa behar dugu", adierazi dute Goibekotik. Grabatutako audioak erabiliko dira adimen artifizialak euskaraz egin dezan laguntzeko. Elgetako grabazioak 16:00etan hasiko dira.

Euskal Herri mailako dinamika da, eta Euskaltzaleen Topaguneak bultzatzen du beste hainbat erakunderekin batera. Elgetan kasuan, Udalaren babesarekin egingo da. Bultzatzaileek dei berezia egin diete emakumeei; izan ere, emakume ahotsak falta dira bereziki.

**Herri Eskolan ere ekintzak**

Elgetako Herri Eskolan ere aldarrikatuko dute Euskararen Nazioarteko Eguna. Gaur, barikua, hamaiketako berezia izango dute ikasle guztiek eta euskarazko pelikulak ikusiko dituzte hainbat ikasgelatan. Gainera, LHko ikasleek herri kirolak izango dituzte. Astelehenean, berriz, LH2ko ikasleek UEMAren *Ispiluari begira* dinamika egingo dute. Familiek ere parte har dezakete.

## Bi zortziko izango ditu Elgetako 'pumptrack' gune berriak

Lanak martxan dira atzera ere, eta hiru hilabeteko epean prest beharko luke kirol azpiegiturak

**L.Z.L.** ELGETA

Gaztetxea zegoen ondoko orubean hasita dago berriro ere makinen mugimendua. *Pumptrack* gunea egiteko lanak dira, eta Ibon Unzetabarrenetxea alkateak azaldu duenez aurreikuspena da hiru hilabeteko epean kirol azpiegitura berria erabilgarri egotea. "Eguraldiak laguntzen badu, lehenago bukatuko dira lanak; baina horrelako obrak eguraldiaren menpe daude".

Bi zortziko izango ditu Elgetako *pumptrack* guneak eta bata bestearekin konektatuta egongo dira. Udal arduradunek nahiko lukete *wallride* egiteko aukera ere eskaintzea. "Lanak aurrera joan heinean jakingo dugu posible den edo ez", esan du Unzetabarrenetxeak.

**500 bat metro karratu**

*Pumptrack* guneak 500 bat metro karratuko azalera hartuko du. Urtarrilean egin zituzten orubea prest uzteko lanak, eta, hormigoizko horma altxatzearekin batera, Aixolarako bidean hobekuntzak egiteko baliatu zituen obrak Udalak.

## GORA ETA BEHERA





### Belgikarren posizioa kaltetuta berriz ere

Sei hilabeteko epean bi aldiz kaltetu dute Intxortako fronteko ibilbide tematikoan dagoen Belgikarra posizioa. Maiatzeko konponketa lanetan estruktura indartu zuen Udalak.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

## OHARRAK

### Ipuinen ordua liburutegian, gaur, 17:30ean

Ipuin kontalari boluntarioen taldearen eskutik hiru ipuin kontalari saio izango dira gaur liburutegian. 17:30ean, HH2-HH4 arteko neska-mutikoendako; 18:00etan, HH5-LH2 arteko umeendako, eta 18:30ean, LH3tik LH5era arteko neska-mutikoendako. Elgetako liburutegiak antolatuta.

### Dantza-jaia Escamot Catala taldearekin

Urteroko bisita egingo dute Escamot Catala taldeko kideek Elgetara. 40 bat laguneko taldea izango da Espaloian, hilaren 6an, 19:00etan. Dantzaldi irekia izango da. Egitaraua da: 19:00etan dantzaldia, 21:00etan partekatze-afaria eta 22:30ean bat-batekoa.



Bergarako pentsiodunen ordezkaritza bat egon zen asteleheneko bilkuran, euren eskaeren berri emateko udalbatzari. J.B.L.

# Pentsio duinak, zaintza erdigunean jartzeko ere

Gutxieneko pentsioak 1.080 eurora arte osatzeko eta zaintza eredu "publiko, eraldatzaile, feminista, komunitario eta sendo bat" eskatzeko aldarrikapena egin du udalbatzak, EH Bilduren babesarekin; Euskararen Egunarekin bat egiteko bi adierazpen onartu dira

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak, San Joxepek, Nagusilanek eta Duintasuna elkarteak aurkeztutako *Gutxieneko pentsioa 1.080 euro* izeneko mozioa izan zen eztabaidagai nagusietako bat asteleheneko bilkuran. Bergarako pentsiodunen ordezkaritza bat izan zen osoko bilkuren aretoan udalbatzari eskaera nagusi bat egiteko: Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari eskatzea gutxieneko pentsioa 1.080 eurora arte osatzeko, urtean 14 ordainsaritan eta 2023ko urtarrilera arteko atzeraeraginezko ondorioekin. EH Bildu izan zen mozioa defendatu zuen talde politiko bakarra, pentsiodunen borrokari aitortza moduan ere ulertuta. "Astelehenero ikusten ditugu herriko plazan pentsio duinen aldeko borrokan. Gu denon borroka ere bada etorkizunari begira; aitortza merezi zutela uste dugu", esan zuen EH Bilduko bozeramaile Maite Usabiagak.

**EAJ eta PSE-EE, kontra**

EAJk eta PSE-EEk kontra bozkatu zuten. Jeltzaleen eledun Mikel Letek gogoratu zuten pentsioena ez dela ez Udalaren ez Jaurlaritzaren eskumena eta Pedro Sanchez Espainiako presidente izateko negoziazioetan akordioa baduela EAJk pentsioen eskumena Jaurlaritzari pasatzeko: "Argi utzi behar da pentsioen eskumena estatu espainiarrarena dela; hala ere, eman dira urratsak. Adibidez, DSBEren bidez ari gara osatzen pentsiorik baxuenak. Bestalde, Pedro Sanchez Espainiako presidente izateko negoziazioetan behin eta berriro eskatu dugu pentsioak hemendik kudeatzea eta, hasiera baten, akordioaren barruan sartuta dago. Pentsioak hemendik kudeatzeak pentsioen egoera orokorra hobetzen lagunduko duela uste dugu".

PSE-EEko bozeramaile Alberto Alonsok adierazi zuen egoera asko hobetu dela azken sei urteetan: "Pentsioetan %8,5eko eguneraketa bat egon da, 1.000 euroren bueltan zeuden batez besteko pentsioak gaur egun 1.274 eurokoak dira batez beste. Gure mozioan badira eskaera batzuk beste mozioa aurkeztu duten eragileekin bat egiten dutenak, adibidez, pentsiorik baxuenak Europako akordiora hurbiltzeko eskaera. Horrekin ados gaude, betiere erabakiak Toledoko Itunaren testuinguruan hartzen badira".

**Zaintza sistema, "krisian"**

Greba feminista orokorraren atarian (ikus 2. orria), zaintza eredua ere izan zen berbagaietako bat. EAJk eta PSE-EEk mozio bat adostu zuten, baina ez zen onartu EH Bilduk mozio alternatibo bat aurkeztu zuelako. EH Bilduren mozioak egin zuen aurrera, zaintza eredu "publiko, eraldatzaile, feminista, komunitario eta sendo bat" aldarrikatzera datorrena.

Ainhoa Lete alkateordearen arabera, "krisialdi baten" bizi da zaintza sistema: "Beharrak areagotuz doaz, bai. Eta premia hauei erantzun ezinean gabiltza. Baina beharrak areagotzen doazen honetan ezin dugu esan gabe utzi gaur egungo sistema gainbeheran dagoela". Eta honako hau ere gaineratu zuen Letek: "Gaur egungo zaintzari administraziotik erantzun asistentziala ematetik askoz haratago joan beharra dugu, eta Udaletik horretan saiatzen ari gara. Lehenengo zaintza plana onartu dugu aurten, eta pausoak bide horretan ematen ditu planak. Zaintza duinak, balioan jartzen direnak, partekatuak…. Bergarak azken lau urteetan egin du esfortzu bat, baina, aldi berean, ezin diogu aurre egin Bergarako txikitasunetik bakarrik".

**Euskara babesteko adierazpenak**

Euskararen Egunaren bueltan ere bi adierazpen onartu ziren. Batetik UEMArena, EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin eta PSE-EEren kontrakoarekin onartu zena; eta, bestetik, EAJk eta PSE-EEk aurkeztutako adierazpena, aho batez onartu zena. EH Bilduk UEMAkoa azpimarratu zuen, eta zinegotziei eskatu, besteak beste, adimen artifizialari euskaraz irakasteko Gaitu ekimenak abenduaren 3rako Seminarixoan deitu duen ahots grabaketa saioan parte hartzea.

**SEI MOZIO IRAKURRI ETA BOZKATU ZIREN; BATZORDE NAGUSIAN DINAMIKA ALDATZEKO LANEAN ARI DIRA**

## Aholkularitza juridikoa zaintza lanetan ari diren langileei begira

Eguaztenetan, 15 egunean behin, Ehunduren bulegoan emango dute zerbitzua arratsaldez: 'baz@bergara.eus'

**J.B.L.** BERGARA

Udal Gobernuak martxan jarri nahi duen zaintza planaren testuinguruan, Udalak zaintza eta etxeko langileei eta kontratatzaileei zuzendutako lege aholkularitza zerbitzua eskainiko du. Helburua da zaintza eta etxeko langileei, eta haien kontratatzaileei eskubideei eta betebeharrei buruzko informazioa ematea. Horrez gain, erreklamazioak aurkezteko moduari eta kontratatzeko tramiteei buruzko informazioa ere eskainiko dute zerbitzu berri honen bidez.

**Ehundun, 15 egunean behin**

Udalak zerbitzu hau Mizpildi kalean kokatuta dagoen Ehunduren bulegoaren bidez kudeatuko du; 15 egunean behin eskainiko dute zerbitzua, 16:00etatik 19:00etara. Interesatuek aukera izango dute Bergarako Arreta Zerbitzuaren bidez informazioa jaso edota hitzordua eskatzeko: *baz@bergara.eus* edo 010 (Bergaratik kanpo: 943 77 91 00).

## 'Amaraun' ikuskizunaz gozatzeko aukera bihar Seminarixoan

Oihana Iguaran eta Amaiur Luluagak sortutako *Amaraun* ikuskizuna bihar, abenduak 2, helduko da Seminarixora (20:00); sarrerak salgai daude *Seminarixoa.eus* webgunean, zortzi eurotan. Amatasunaren inguruko hausnarketa bat kontatzeko musika, kantua eta dantza uztartzen dituen ikuskizuna da, 50 minutu irauten duena.

## Laboratorium: bisita gidatuak abenduaren 6an, 7an eta 8an

Laboratorium museoak bisita gidatuak antolatu ditu abenduko zubirako. Hilaren 6an lorategi historikoa (11:00) eta Bergara monumentala (12:30) bisitatu ahalko dira; hilaren 7an, museoa (11:30) eta *Emakumeak botanikan* erakusketa (12:30) bisitatzeko saioak daude; eta hilaren 8an, museoa bisitatu ahalko da (11:00), gazteleraz: 943 76 90 03.

# Aurten, ekintzek ez dute esperotako harrera izan

Movember Gara ekimenaren barruan antolatutako ekitaldi gehienetan jende gutxi egon dela adierazi dute antolatzaileek, eta 2024an hamar urte beteko dituztela-eta, "buelta bat" eman nahi diote egitarauari, helburuak merezi duela sinistuta daudelako

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA

Indarkeria matxista salatzeko egunean, azaroaren 25ean, borobildu zuen hilabete osoko egitaraua Movember Gara ekimenak. Martxanterek deitutako manifestazioarekin bat egin ostean, biboteak moztu eta enkantean jarri zituzten salgai.




Biboteen enkantea hasi aurretik, talde argazkia atera zuten Iralan. MOVEMBER GARA

**Ez dute esperotako harrera izan**

Hori bai, aurtengo erantzuna ez da beste urteetakoen besteko ona izan. Hurrengo urtera begira "buelta bat" eman beharko zaiola uste du antolakuntzako kide Eñaut Uriartek: "Ekitaldi interesgarriak antolatu ditugu, baina erantzuna ez da esperotakoa izan; ekitaldi batzuk oso pobre geratu dira. Alex Muelak suizidioa prebenitzeko eman zuen hitzaldian, esaterako, hamabi lagun bakarrik elkartu ginen. Berritasun moduan txiste poteo bat ere antolatu genuen, baina jende gutxi hurbildu zen. Datorren urtera begira gure artean elkartu eta buelta bat eman beharko genioke, helburuak merezi du-eta".

Helburuak merezi duela dio Uriartek, alegia, gizonezkoen osasun arazoei eta bereziki prostata-minbiziari ikusgarritasuna ematea. Ekitaldiek ez dute esperotako harrera izan, baina ekimenak batu duen diru kopurua iazkoaren antzerakoa izan da, aurten ere 4.500 euro inguru lortu dituzte-eta: "Eskerrak eman nahi dizkiegu zozketarako txartelak erosi dituzten guztiei; jasotako diru guztia prostata-minbiziaren aurkako ikerketara bideratuko da".

**Bigarren sarituaren bila**

Dirua batzeko ekimenetako bat izan da azaroaren 25ean egin zuten zozketa. Antolatzaileek aditzera eman dute berehala agertu zirela lehen eta hirugarren sarituak baina bigarren sariaren irabazlea ez dela oraindik azaldu. Abenduaren 15era arte itxarongo dute bigarren sari hori agertu arte: "Bigarren saria askotariko produktuez osatutako otarre bat da, eta irabazlea agertzen ez bada Elikagai Bankuari emango diogu saski hori".

2024an Movember Garak hamar urte beteko ditu, eta gustatuko litzaieke zerbait berezia egitea: "Ea gai garen lanean aritu garenok elkartu, indarrak batu eta datorren urtera begira zerbait berezia antolatzeko".

## Erakusleiho lehiaketa: izen-ematea hilaren 9an itxiko dute

Eguaztenean ireki zuen Udalak Gabonetako erakusleiho lehiaketarako izen-ematea, eta herriko komertzioek abenduaren 9ra arte eman ahalko dute izena (943 76 10 16); abenduaren 8tik aurrera erakusteko gertu egon beharko dira erakusleihoak. Ondoren, herritarrek erakusleiho gustukoena aukeratuko dute abenduaren 13tik 18ra, *Bergara.eus* webgunean. Udalak 900 euro banatuko ditu lau saritan hilaren 20an, ziurtagiriez gainera: lehen sailkatuak 350 euro jasoko ditu; bigarrenak, 300 euro; hirugarrenak, 200 euro; eta herritarren saria 50 eurokoa izango da. Sari guztiak udal bonuetan banatuko dira.

## Martxan da BKEko futbol sailaren Gabonetako zozketa

BKEren futbol saileko Gabonetako zozketa martxan dago. Bost sari izango dira aurten ere: lehen saria, saski erraldoia; bigarrena, patinete elektrikoa; hirugarrena, asteburu baterako opari txartela; laugarrena, telebista bat; eta bosgarrena, BKEko kirol materiala. Txartelak Deporren, Irrintzin eta Labegaraietako kiroldegiko tabernan eta Agorrosingo kantinan egongo dira salgai; zozketa abenduaren 31n egingo da Depor tabernan (20:00).

Bestalde, klubeko askotariko materiala erosteko aukera dago *Bergarakedenda.com* atarian; eskaerak garaiz egiteko eskatu dute BKEtik, azken orduko pilaketak ekiditeko.

## OHARRAK

### ZinemaOn zinekluba: abenduko kartelera

Eguaztenero, pelikula bat Seminarixoan (20:00). Abenduaren 6an, Felipe Galvezen *Los colonos*; hilaren 13an, Erige Sehiriren *Under the fig trees*; hilaren 20an, Victor Ericeren *Cerrar los ojos*; eta abenduaren 27an, Isabel Hergueraren *El sueño de la Sultana*.

### Pilotako errendimendu maila: banaka

Gaur, abenduak 1, Gipuzkoako txapelketa barruko bost pilota partidu jokatuko dira udal pilotalekuan, 18:30ean hasita.

### Pentekosteetara begirako bilera irekia

Txosnagunea antolatzen hasteko bilera deitu du Xaxau konpartsak biharko, abenduak 2, Ehunduren bulegoan (11:30).

### Bertso saioa antolatu dute Arrano tabernan

Miren Amuriza, Alaia Martin eta Iker Garitagoitia bertsolariak gonbidatu ditu Sortuk; abenduaren 15ean izango da, 22:30ean.

### Xinporna Fest jaialdia Kartzela zaharrean

Hilaren 15ean DJ Turtukiña (20:00) eta Olor eta Ginger taldeen kontzertuak izango dira (22:00). Sarrerak aldez aurretik Aldoka Maldoka, Arrano edo Pol-Pol tabernetan, zortzi eurotan.





Herriko pentsiodun batzuk egon ziren eguaztenean egindako azaroko ohiko osoko bilkuran. O.E.G.

# Hiru puntutan sei mozio azaroko osoko bilkuran

Abenduaren 3ko Euskararen Egunari, pentsioen egoerari eta zaintza ereduari buruzko mozio bana aurkeztu dute udalbatza osatzen duten bi alderdiek; bateratua azaroaren 25ari lotutakoa. Araozko ostatuaren lizitazio berria ere onartu zuten eguaztenean

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI
Ordubete pasa iraun zuen azaroko osoko bilkurak, eta alderdiek aurkeztutako mozioen azalpenek eta irakurketek hartu zituzten minuturik gehienak, Euskararen Egunaren bueltan aurkeztutakoetan barne. Pentsioen egoerari eta zaintzari buruzko bana eta azaroaren 25ari lotutako adierazpen bateratua ere gai zerrenda barruan zituzten ezohiko egunean egindako osoko bilkuran. Udal Gobernuak eta udal langileek bat egin zuten atzorako deitua zegoen greba feminista orokorrarekin, eta, hileko azken eguenean izan ordez, egun bat aurreratu eta eguaztenean egin zuten.

### UEMAren adierazpena

Digitalizazio aroan sartuta egonda, hori "euskararen zabalkundearen alde" erabiltzea defendatzen duen mozioa aurkeztu zuen alderdi jeltzaleak Euskaren Egunari lotuta. EH Bilduk, baina, harago joan behar dela deritzo,"azkenaldian euskarak jasandako erasoak ikusita", eta UEMAren adierazpena aurkeztu zuen. Bozketan, aho batez onartu zuten Udal Gobernuak aurkeztutakoa. Pentsioen egoerari buruzkoan eta zaintza ereduenetan, berriz, bakoitzak bereari eutsi zion. Herriko hainbat pentsiodun ere izan ziren osoko bilkuren aretoan, eta euren idatzia izan zen mozio bidez Udal Gobernuak aurkeztutakoa. Idatzia eztabaidatzea eta onartzea eskertu egin zuten.

Onartutako beste puntuen artean, aho batez onartu zuten Pago Uso elkarteak Orkatzategiko herri mendian ehiza postuak jartzeko egindako eskaera, baita Araozko ostatua ustiatzeko kontratua amaitzeko eskaera eta lizitazio berria abiaraztea ere.

**ARAOZKO OSTATUAREN LIZITAZIO BERRIA SEI HILABETETAN EGINGO DUTE, ITXI BARIK**

### Lizitazio berria, abian

Bost urterako esleitu zuen Udalak Araozko ostatua 2022ko uztailean, beste bost luzatzeko aukerarekin; urte bereko irailean zabaldu zuten. "Kontratua etetea eskatu du hartu zuenak, eta berriz esleituko dugu. Baldintzak berrikusiko ditugu eta auzotarrekin batera aurrera eraman prozesua, orain arte moduan. Sei hilabetetan egitea da asmoa, eta ostatuak zabalik jarraituko du", adierazi zuen Landa Garapeneko batzordeburu Xabier Igartuak. Baldintza hauetan ostatuta ez dela bideragarria dio ustiatzaileak, Itziar Mondragonek: "Ilusio handiz hartu genuen Araozko ostatua eta proiektuarekin jarraitzeko gogoa dugu, baina baldintza hauetan ez da bideragarria. Baldintzak hobetzen edo laguntzak gehitzen badira, berriz aurkeztuko naiz; pozik nago hemen".

# Egunean lau bat bisita gidatu egingo dituzte abenduko zubian

Oñatiko trenaren ingurukoak ere antolatuta dituzte abendurako; Turismo Bulegoan jarriko dute erakusketa

**O.E.G.** OÑATI
Abenduko zubian kanpotik datozen turistek herria ikusteko eta etxekoek herria hobeto ezagutzeko bisita gidatuak antolatu dituzte Turismo Bulegoan zein Arrikrutz kobetan. 53. galeria ikusteko aukera egongo da han, esaterako, baita umeekin familian kobara sartzeko plana ere. Herrigunean dauden Sancti Spiritus unibertsitateari eta San Migel parrokiari buruzko esku orrietan ez datorren informazioa eskainiko dute, berriz, herriko ondarea bisitatzeko irteeretan. Lauzpabost bisita egingo dituzte egunero zubian.

Batzuetan, gainera, kakaoaren eta trenaren arteko loturaz jardungo dute. Izan ere, Oñatiko trenaren inguruko erakusketa jarriko dute datorren astean Turismo Bulegoan. Bisita gidatuak eta hitzaldiak ere egongo dira trenaren historiari lotuta. Hilaren 12an, esaterako, Juanjo Olaizola etorriko da, eta Oñatiko trenaren inguruko lana egin duen Jabi Bujanda oñatiarrak 16an egingo du, Elorregitik abiatuta.



NIRE USTEZ

**ITZIAR ALONSO**

## Patria, Minerva eta M. Teresa ahizpak

Joan da Azaroaren 25a. Wikipediak dioenez, egun horretan hamaika gertakari izan dira urteetan zehar. Azken mendetik hona, Albert Einsteinek erlatibitate teoria aurkeztu zuen. Mussolinik Italiako Parlamentuko boterea hartu zuen, eta, geroago, Fidel Castrok eta Che Guevarak, beste 79 espedizionariorekin batera, Kubako iraultzari ekin zioten. 1960. urte arte, ez zaie emakumeei erreparatzen.

1960. urteko azaroaren 25ean, Dominikar Errepublikan, Rafael Leonidas Trujillo diktadorearen aurka egiteagatik, Mirabal ahizpak hil zituzten. Egun ezagutzen dugun Emakumearen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna da ondorioa. Emakumeen hilketak icebergaren tontorra besterik ez dira. Festa giroan ukituak jasatea, bikotekideak mugikorra kontrolatzea, ikaskide edo lankideen begirada lizunak jasatea, etxeko arduren karga emakumeen gain jartzea, edo janzteko askatasuna ez izatea ere jarrera matxistak dira.

Azaroaren 25a pasatu den arren, jarrai dezagun gizartea feminismorantz bideratzen.

## Inauterietako entseguekin hasiko dira datorren astean

Datorren urteko Oñatiko Inauteriak prestatzen hasteko lehen entseguak hurrengo astean egingo dituzte. Martitzenetan 19:00etan eta zapatuetan 12:00etan izango dira, biak Eltzian.

Aurten, 2023an, hamasei urte bete dituztenetatik hasi eta hortik gorako guztiek parte hartu ahal izango dute hurrengo otsaileko inauterietan, eta guztiak daude gonbidatuta entseguetara joatera. Hala ere, lehen biak lehendabiziko aldiz parte hartuko duten herritarrei zuzendutakoak izango dira, bereziki. Hau da, abenduaren 5ekora eta 9kora orain arte ibili ez diren herritarrak daude deituta, eta 12tik aurrekoetara, parte hartuko duten denak.

Norbaitek pertsonaia konkreturen bat hartu gura badu edo musikari moduan irten, Oñatiko Inauteriak taldeko edonorekin jar daiteke harremanetan.

# Musika eskolan jarri du arreta berezia EAJk

EAJko udal taldeak zortzi proposamen aurkeztu dizkio Udal Gobernuaren 2024ko aurrekontu proposamenari. Musika eskolaren kokapenaren azterketa, Herribusaren beste linea bat jartzea eta Kale Zaharreko azken zatia urbanizatzea dira batzuk

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

EAJk zortzi proposamen aurkeztu dizkio Udal Gobernuaren 2024ko aurrekontuen proiektuari. Guztiak direla garrantzitsuak aipatu dute pentsaurrekoan Xabier Mugarza eta Amaia Erostarbe alderdikideek; hala ere, musika eskolan dute jarrita arreta. Izan ere, uste dute kokapen "desegokia" duela, eta ez dela lekurik "egokiena" irisgarritasunari dagokionez; hortaz, aztertu beharreko egoera delakoan daude. "2023ko aurrekontuetan berrikuntzak egiteko diru lerro bat zegoen, eta orain ere bada, baina nik uste dut buelta batzuk eman behar zaizkiola. Beraz, proposatu duguna da konparaziozko azterketa egitea, estrategikoa eta arkitektonikoa", zioen Erostarbek.

**San Martin eta Olaitturri**

Azterketa estrategikoari dagokionez, kokapena erabaki beharra aipatu zuen jeltzaleen udal bozeramaileak, mahai gainean bi leku jarrita: San Martin eta Olaitturi. "San Martin da Udal Gobernuak begiz jota duena; guk, aldiz, Olaitturri. Aukera horien artean begiratu beharko lirateke alde onak eta txarrak; zirkulazio fluxuak; hobekuntza eginez gero, ingurunean izango duen eragina, eta, ondorioz, herriko ekipamenduen banaketa epe ertain-luzera nola gelditzen den". Horrez gain, azterketa arkitektonikoa egin beharra ere azpimarratu zuen, eraikinaren planoak egitea kokapen ezberdinetan. Bada, behin hori eginda, herri galdeketa bat proposatu nahiko luke EAJk, aztertutako aukeren artean herritarrek euren iritzia eman dezaten.

**BEHIN AZTERKETA DENAK EGINDA, HERRI GALDEKETA BAT PROPOSATU GURAKO LUKE EAJ-K**

**Hiru informazio pantaila**

Beste proposamenei dagokienez, berriz, Herribuseko hirugarren linea ezartzea proposatu dute, Elorregiraino irits dadin. Horrez gain, Kultur etxean, herriko plazan eta Eltzian informazio pantaila bana jarri gura dute, Zubikoa kiroldegiaren unean uneko betetze mailaren berri eman dezan software bat instalatuta; baita Arantzazuko komunak hobetzea, Kale Zaharreko azken zatia urbanizatzea, Aldakiñoko bidean segurtasuna hobetzea, Bizikidetza Batzordea sortzea eta Kanpantxoko iturriaren egoera aztertzea ere.

Zortzi proiektuen aurrekontua, guztira, 250.000 eurokoa da. "Saiatu gara begiratzen aurrekontua, hor ezarrita dauden diru lerroak, eta horregatik gure proposamenean diru lerro horiek hartu ditugu gogoan aurreikuspenak egiteko. Ez dugu kredituri eskatzeko beharrik ere ikusten", azaldu zuen Amaia Erostarbek.



Mugarza, Erostarbe, Gayubo eta Biain zinegotzi jeltzaleak, martitzeko agerraldian. AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

## GORA ETA BEHERA

### Olakuako urmaelaren egoeraz kexa

Olakua auzoan dagoen urmaelak azkenaldian duen egoera salatu du irakurle batek argazki honekin, "tamalgarria" dela eta arratoiendako leku aproposa bihurtu dela gaineratuz: "Tamalgarria da Olakuako urmaelak duen egoera. Gainera, arratoien habia da".



**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?**
*berriak@goiena.eus*
edo 688 69 00 07.

### 'Bake lehorra' antzezlanarekin dator aurten Tartean taldea

Euskararen Egunaren baitako ospakizunetara etorri ohi da Tartean Teatroa antzerki taldea Oñatira, eta aurten ere badator. *Bake lehorra* antzezlana da gaur, egubakoitza, antzeztuko duena. Patxo Telleriaren dramaturgia eta zuzendaritzarekin, Aitor Borobia eta Aitor Fernandino aktoreekin sortutako lana da, gerran oinarritutakoa.

Aurrekoetan moduan, aurten ere ikasleendako egingo dute saio bat: 12:00etako emanaldia herriko ikasleendako izango da eta 19:00etakoa herritar guztiendako; biak dira Santa Anan. Gainera, Karoi antzerki jaialdiko ikusle klubean ere landuko dute antzezlan hau.

## OHARRAK

### Ipuin musikatuak

Ipuin kontaketa musikatua egingo dute zapatuan Maider Alcelay eta Asier Sala arrasatearrek, Araozko ostatuan, 18:30ean.

### Gailu eta Braulio

Abenduaren 15ean izango da Burrunda Faktoriak antolatutako hurrengo kontzertua: Gailu eta Braulio taldeek joko dute zuzenean.

### 'Go!azen 10' dator

Abenduaren 28an helduko da *Go!azen 10* birako kontzertua Oñatira. Bi emanaldi egingo dituzte, Santa Anan. Horietarako sarrerak, baina, bihar, abenduak 2, jarriko dituzte salgai, zortzi eurotan.





Gizonezkoen kategoriakoak Oñatiko duatloia hasteko gertu, iaz. GOIENA

# Urtebeteko etena egingo du duatloi zaharrenak

**DUATLOIA** Euskal Herri mailako erreferentziazko lasterketak urtebeteko etena egingo du; 2024an ez da Oñatin duatloirik izango. Antolatzaileek urtea erabiliko dute hausnartzeko, 2025ean indarrez bueltatu edo ez erabakitzeko

**Xabier Urtzelai Atxa** OÑATI

2024an ez dute Oñatiko duatloirik egingo. Oñatiko Triatloi Taldea 30 urtez ibili da lasterketa antolatzen –gaur egun Aloña Mendi elkarte barruan daude–, eta azken urteotan lanean ibili diren lagunek martxoan proba arrakastaz antolatzearekin batera aurreratu zuten 2024ko edizioa kolokan zegoela. Bada, egunotan berretsi dute hori. "Taldean hausnartu ondoren hartutako erabakia izan da. Urtetik urtera soka tenkatzen joan gara; izan ere, Oñatiko lasterketa antolatzeaz batera triatloi taldea ere bagara, eta martxa honetan jarraituz gero dena kolokan jartzeko arriskua geneukan, bai lasterketa eta baita taldea ere. Hala, erabaki dugu 2024a atseden hartzeko erabiltzea, taldea berrantolatzeko baliatzea eta 2025ean lasterketa antolatu behar dugun ala ez erabakitzea", adierazi dio GOIENAri Andoni Correasek.

### Pandemian apustu sendoa

Ez da erabaki erraza izan, Aloña Mendikoak urtero proba osoagoa antolatzen saiatu direlako eta honek eten bat ekarriko duelako. Esaterako, oñatiarrak izan ziren pandemia betean lasterketa antolatzearen aldeko erabakia hartu zuten bakarretakoak, euren eskuetan zeuden segurtasun neurri guztiak kontuan hartuta. "Kanpotik asko eskertu ziguten ahalegin hura, baina taldean desgaste handia ekarri zuen; gauza batzuek min egin ziguten. Gainera, azken orduko aldaketa mordoa egin behar izan genituen eta buruhauste dezente izan genituen; edizio nekagarria izan zen, bai".

Hiru hamarkada hauetan Oñatiko duatloiak egoera berrietara moldatzeko gaitasuna erakutsi du, aldaketak –ibilbideari eta distantziei dagozkienak, esaterako– etengabeak izan direlako. Seguruenik, duatloia antolatzeko zailena den kirol ebentoetako bat izango da gurean, errepideak moztu egin behar direlako, korrikako zirkuitua egiteko kaleak egokitu... "Baina, egia da zirkuitu itxi bat egiteari neurria hartua geniola; hori nahiko kontrolpean geneukan, beste gauza batzuk joan zaizkigu zailtzen", dio Correasek barrez.

### Lasterketa streamingez

Izan ere, lasterketa antolatze hutsarekin konformatu ez, eta urtero apustu berriak egin dituzte, probari ikusgarritasuna emateko. Horrek ere ordaina izan du: streamingez lasterketa eskaintzea, kirolariei GPS bidezko jarraipena egitea... "Ez gara lasterketa antolatzera mugatu; behin lanak hartuta, berritasunak sartzen saiatu gara etengabe, eta halakoekin ere lanak pilatu egin zaizkigu, gauzak diren moduan. Eta hausnarketa prozesu hau baliatu beharko dugu erabakitzeko halako kontuekin ere zer egin erabakitzeko. Hau da, noraino sartu behar garen halako kontuetan, eta ondo neurtu gure baliabideen barruan zer egiteko kapaz garen".

### Barrura begirako ariketa

Correasek, baina, garbi dauka 2024a talde barrura begiratzeko urtea izan behar dela. "Gauza bat daukagu ona, lasterketa hau 30 urtez antolatu dugula lagun askoren artean eta orain gaudenok ez diogula inori ezer zor; orain arte egin duguna asmo onenarekin izan da. Orain, baina, lehenengo egin behar duguna da talde barrura begiratu, gu zelan gauden ikusi, eta gero erabaki lasterketarekin zer egin behar dugun. Baina taldearendako onena dena egitea tokatzen da".

Hala, Correasek badaki urtebeteko etena egiteak badituela bere arriskuak, gero ostera ere martxa hartzea zaila izaten delako. "Zentzu horretan, nahiko ezkorra nintzen, baina taldeko batzarrean ikusi nuen jendea baikor dagoela, eta urtebeteko etena eginda ere posible dela 2025ean lasterketa antolatzeko indarra izatea. Egia da hor ez badugu egiten oso zaila izango dela bueltatzea, bi urteko etena larregi izango litzatekeelako. Ikusiko dugu".

**"2024AN ETENA EGINDA ERE, 2025EAN INDARBERRITUTA BUELTATZEKO ASMOZ IKUSI DUT TALDEA"**


**ANDONI CORREAS**
ANTOLATZAILEA

## Maratoian laguntzen

Aurten ere Arrasate Atletiko Taldeko atleta gazteak Donostiako maratoian izan dira kolaboratzen. Hain zuzen, lasterketako 5. eta 22. kilometroetan zeuden anoa postuetan ibili ziren laguntzen. Bide batez, Debagoieneko atleten artean nabarmentzekoa izan zen Juanpe del Pozok egindako lasterketa. Arrasatekoak 2.39.47an geratu zuen erlojua.


ARRASATE ATLETIKO TALDEA

## ERRUGBIA Bigarren dauden Bilbokoen kontra, bihar (16:30)

Bilboko unibertsitarioen kontra jokatuko dute Kanpazar ARTko mutilek zapatu arratsaldean (16:30, Mojategi). Bizkaitarrak ligako bigarren postuan daude, eta azkeneko hiru partiduak irabazi egin dituzte. Arrasatekoak, berriz, liga makal hasi eta gero behetik gora datoz; Julen Barrutiaren mutilek azken bost partiduak irabazi egin dituzte.

## FUTBOLA Bergarak domekan jokatuko du Ordiziaren kontra

Gizonezkoen ohorezko erregionalean, UDAren zelaian puntu bat batu eta gero, Bergarak Ordiziaren kontra jokatuko du domekan (17:00, Agorrosin). Aretxabaletak, berriz, atzealdeko postuetan dagoen Deustoren zelaian jokatuko du domekan (11:00). Emakumezkoetan, Debagoiena Bailarak Tolosan jokatuko du bihar (19:30).

# Burgoskoa ahazteko, ongi etorri, Pielagos

**SASKIBALOIA** Pas Pielagosen kontra, denboraldiko partidu makalena ahazteko aukera izango dute Julen Berrocalen mutilek etzi. Burgosen ia 30 puntuko aldeagatik galdu zuten moreek; lehenengo laurdenetik partidua malda gora jarri zitzaien partiduan

**X.U.** ARRASATE
Orain arte galdu dituen partiduetan (4) EBA mailako Mondragon Unibertsitateak ez du aparteko egurrik jaso; ez, behintzat, markagailuari begira. Arrasatekoak maila politean dihardute, eta, iaztik hona izan dituzten bajak eta min hartuta dituzten jokalarien hutsunea igartzen badabiltza ere, talde lehiakorra da.

Joan den astean, baina, Burgosko talde Grupo Santiago askoz ere gehiago izan zen (84-55) –nabarmentzekoa izan zen talde kontrarioko Mike Mukendik egindako lana, 22 puntu eskuratuta–. Etxekoen partetik, berriz, MUko jokalariek zenbaki apalak batu zituzten, eta Aitzol Lagunilla izan zen gehien nabarmendu zenetako bat, 10 puntu eta 10 erreboterekin.


**MUko jokalari bat.** GOIENA

### Pas Pielagos, indartsu

Aurreratu moduan, Mondragon Unibertsitateko mutilek domekan etxeko zaleen aurrean (18:30, Iturripe) izango dute aurrera begira jarraitzeko aukera. Eta ez dute edonolako kontrarioa izango, Kantabriako Pas Pielagosek bi partidu baino ez dituelako galdu ligan, eta laugarren postuan daude sailkapenean. MUkoak, berriz, erdiko postuetan daude.

### MUko neskak, Zornotzara

MUko neskek, kontrara, asteburuko garaipenak (101-57) utzi dien zapore onari jarraipena eman nahi diote Zornotzan. Bizkaitarrek moreek baino bi puntu gutxiago dituzte, ligan hiru partidu irabazi eta gero –Arrasatekoek, aldiz, bost irabazi dituzte–.

### Biotz Aloña Mendik, etxean

Euskadiko bigarren mailan, berriz, Biotz Aloña Mendik Zubikoan jokatuko du domekan. Ordiziarren bisita izango dute, eta horiek ere beheko postuetan daudela jakinda, txantxikuak partidua irabaztea posible dela sinistuta kantxaratuko dira (12:00). Kontrara, Soraluce BKEk laugarren dagoen Indautxuren kantxan jokatuko du (domekan, 12:15, Bilbo).

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

OHOR. ERREGIONALA
**Bergara-Ordizia**
Dom. 17:00. Agorrosin.
**Deusto-Aretxabaleta**
Dom. 11:00. Zubieta.

OHOR. ERREGIO. EMAK.
**Tolosa-Debagoien B.**
Zap. 19:30. Usabal.

GAZTEAK, MAILA NAZ.
**Athletic B-Bergara**
Dom. 16:00. Lezama.

GORENGO MAILA
**Ikasberri-Aloña Mendi**
Zap. 15:30. Garmendipe.
**Antzuola-Soraluze**
Zap. 16:00. Eztala.
**Bergara B-Aretxabaleta B**
Zap. 16:30. Agorrosin.
**Danena-Mondra**
Zap. 17:30. Zizurkil.

GAZTEAK EUSKAL LIGA
**Aretxabaleta-Betoño**
Zap. 17:00. Ibarra.

**ARETO FUTBOLA**

HIRUGARREN MAILA
**Donipari-Eskoriatza**
Zap. 18:00. Pasaia.
**Antiguoko-Mondrate**
Dom. 16:30. Pio Baroja.

GIPUZKOAKO TXAP.
**Idiazabal-Coinbroker Al.**
Egub. 22:30. Idiazabal.

GIPUZKOAKO 2. MAILA
**Miren Tab.-Eskoriatza**
Gaur. 20:00. Oiartzun.
**Zarautz-Mondrate**
Zap. 16:00. Aritzbatalde.

GAZTEAK
**Mondrate-Eskoriatza**
Zap. 13:00. Musakola.

KADETEAK
**Eskoriatza-Coinbroker**
Zap. 11:30. M-Muñoz.
**Ingou Mondrate-Lasko.**
Dom. 12:00. Musakola.

**ESKUBALOIA**

EUSKADIKO TXAP.
**Tolosa-Fagor Professio.**
Dom. 12:00. Tolosa.

GIZ. GIPUZ. SENIOR.
**Legazpi-Mugarri Ingou**
Gaur. 20:15. Zehaztu gabe.
**Ordizia-Soraluce BKE**
Dom. 12:30. Ordizia.

EMAK. GIP. SENIOR.
**Txingudi-Aloña Mendi**
Zap. 17:30. Artaleku.

GIZO. BIGARREN SENI.
**Erreka Berg.-Ordizia**
Dom. 10:00. Labegarai.

GAZTEAK. GIZONEZK.
**Aloña Mendi-Saieko**
Zap. 12:00. Zubikoa.
**Ingou Arrasate-Ereintza**
Zap. 10:00. Iturripe

**SASKIBALOIA**

EBA
**MU-Pas Pielagos**
Dom. 18:30. Iturripe.

EUSKAD. LEHEN EMAK.
**Zornotza-MU**
Zap. 16:00. Zornotza.

EUSKAD. LEHEN GIZON.
**La Salle-MU**
Zap. 16:00. Iturripe.

EUSKADI. BIG. GIZON
**Indautxu-Soraluce BKE**
Dom. 12:15. Bilbo.
**Biotz Aloña-Ordizia**
Dom. 12:00. Zubikoa.

GIP. SENIOR GIZONEZ.
**Añorga-MU A**
Zap. 18:00. Donostia.

**ERRUGBIA**

SENIOR GIZONEZKOAK
**Kanp. ART-Unib. B.**
Zap. 15:00. Unbe.

SENIOR EMAKUMEZK.
**Atsedena.**

**PILOTA**

OÑATI
**Gipuzkoako eskuz banakako partiduak.**
Egubakoitza, 18:30ean hasita, bost partidu.
Zapatua, 12:15ean hasita, bi partidu.

BERGARA
Gipuzkoako eskuz banakako partiduak.
Egubakoitza, 18:30ean hasita, bost partidu.

ARETXABALETA
**Gipuzkoako eskuz banakako partiduak.**
Egubakoitza, 19:00etan hasita, hiru partidu.
Domeka, 11:00etan hasita, lau partidu.






Para bellum
**John Andueza**
Elkar argitaletxea




Over the red light
**The Clayton**
Autoekoiztua




Zurrunbiloan
**Letagin**
Autoekoiztua



Suak erreko ez balu
**Eneko Barberena**
Txalaparta



Guztia gordetzea ezinezkoa da
**Sukena**
Autoekoiztua




Kenopsia
**Mila Modu**
Elkar argitaletxea




Hau ez da irratian entzuten
**Garratz**
Autoekoiztua



Emakume izoztua
**Gema Lopez Las Heras/Annie Ernaux**
Elkar argitaletxea



Arnasaldiak
**Iker Martinez eta Zaldi Herrenak**
Autoekoiztua



Izotz ondoko eguzki
**Idoia Etxebarria Elortza**
Bergarako Udala




Etxepe Kids
**Etxepe**
Autoekoiztua



Etxeperreo
**Etxepe**
Autoekoiztua




Bichta éder
**Eneko Bidegain**
Elkar argitaletxea



Hemen eta orain
**Nealltta Fola**
Autoekoiztua




Gure katona.
**Roberto Altuna**
Autoekoiztua

# Saltokietatik harago, Debagoieneko askotariko lanak pantaila handian

Abenduaren 6an hasi eta 10era bitartean egingo dute 58. Durangoko Azoka, eta 'Fantasia da!' leloa aukeratu dute; kulturaren aurtengo plaza "mamitsua, aktuala, aniztasun handikoa eta gaztea" datorrela iragarri du Gerediaga elkarteak

**Aitziber Aranburuzabala Juldain**
ARRASATE

Askotariko 950 argitalpen berri izango dira eskuragarri, 257 erakusmahaitan banatuta, eta 265 ekitaldi baino gehiago izango dira aukeran, Landakoguneaz gainera, Durangoko txoko ezberdinetan kokatuta dauden zazpi gunetan banatuta.

### Eskualdeko ikus-entzunezkoak

Zugaza zinema aretoan kokatuta dagoen Irudienea gunea Debagoieneko sortzaileen erakusleihoa izango da aurten ere –ikus aurkezpenen taula–. Musikan oinarritutako dokumentalak izango dira erakutsiko dituztenen artean, esaterako, Arrasateko Perlata taldearen *Punkaren beste aldea* eta Oñatiko Iker Martinez eta Zaldi Herrenak taldeak ekoitzitako *Arnasaldiak*. Horrez gainera, eskualdeko zinegileen film laburrak ere izango dira ikusgai: Arrasateko Iban Del Campok Kimuak katalogoan duen *Sorbeltza* eta Aitor Alberdi Bergarako zinegileak ekoitzi duen *Vida i miracles d'una pallona* izenekoa. "Grabaketa zaharrak bilatzeko aspaldiko zaletasuna dut, eta, halako batean, orain dela gutxi hil den Mallorcako Orestes Perezek eta haren emazte Trinidad Jaumek egindako altxorrarekin egin nuen topo. Izugarriak iruditu zitzaizkidan lana zein egileak, eta lana nik ekoiztea proposatu nien. Irudieneko aurkezpenean izango da Trinidad Jaume ere", azaldu du Alberdik.

Oñatiko Xup taldekoak ere "gogotsu" daude ekainean estreinatu zuten *Beita* websaila aurkezteko. Hala dio taldeko Danel Teranek: "Lehenengo kapitulua erakutsiko dugu, aurretik aurkezpen txiki bat eginda, eta solasaldia ondoren".

### Askotariko diskoak

Musikari dagokionez, "produktuen hazkundea" nabarmendu du Gerediagaren koordinatzaile Beñat Gaztelurrutiak, eta zerrendan badira Debagoienekoak ere; horien artean, gaur argia ikusi duen Oñatiko Mila Modu taldearen *Kenopsia*. "Zazpi kantu batzen ditu, eta teklatuaren doinuak ere badira, kide berria batu dugu-eta taldera", dio Xabier Yaniz abeslariak. Elkar-en standean izango da eskuragarri. Eskualdeko autoekoiztutako bilduma gehiago izango dira, esaterako, Musikazuzenean eta Tough Ain't Enough Records saltokietan CD zein binilo formatuetan. Bitxia da, era berean, Potx eta Lotx pailazoek euren standean salduko duten *Zapata magikoa*. "Eskuz egindakoa da, eta barruan *pendrive* bat dakar non *Aireportuan* ikuskizuna eta gure ibilbidearen dokumentala dauden", diote pailazoek.

### Eleberriak eta gehiago

Nabarmentzekoa da, aurten, euskara gaitzat hartuta dauden liburuak; Badihardugu-ren postuan izango dira Debagoieneko udalek babestutako askotariko argitalpenak eskuragarri.

### Azoka telebista

*Fantasia DA!* magazina ekoiztuko dute egunero, eta zuzenean hainbat ekitaldi eskaini ere bai. Edukiak ikusteko bideak hainbat dira: euskarazko toki telebistetan, ETBn, eta, nahieran, *Durangokoazoka.eus*-eko bideotekan eta Youtuben. Sare sozialetarako propio ekoiztutako edukiak ere izango direla gaineratu dute.



Bizimodu baten historia

**Iskanbila**

Tough Ain't Enough Records



Puta gorda

**Y. Larreategi eta H. Azkarragaurizar**

Erein



Aretxabaleta. Hamaika ibilaldi eta istorio

**Loramendi elkartea**

Loramendi elkartea



Aggressive Combat

**Aggressive Combat**

Tough Ain't Enough Records



Kuartela bilduma

**Kuartela Kultur Elkartea**

Autoekoiztua



Gap

**Konpost**

Autoekoiztua



Bonben zaldunak

**Golden Blend**

Autoekoiztua



Signature

**Felix Ibarrondo**

Silboberri



Erantzunen bila

**Kontralde**

Autoekoiztua

## Debagoiendarren aurkezpenak

**Abenduak 6**

- **Konpost** Txerra Bolinagaren taldeak *Gap* diskoa aurkeztuko du, 12:10ean, Ahotsenea Musika gunean, Plateruenan.
- **Pello Sarasua** *Arantzazu. 36 zm, 5 mende, herri 1* filma, 17:00etan, Irudienean, Zugaza zinema aretoan.
- **Eneko Bidegain** MUko irakasle lapurtarraren *Bichta éder* liburuaren aurkezpena, 19:30ean, Ahotsenea Literatura gunean, Musika Eskolan.

**Abenduak 7**

- **Potx eta Lotx pailazoak** *Zapata magikoa!* ikuskizuna egingo dute, 16:30ean, Saguganbaran, Elkartegian.
- **Annie Ernaux. Itz.: Gema Lopez Las Heras** AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak bultzatutako Jokin Zaitegi itzulpen sariketako *Emakume izoztua* liburuaren aurkezpena, 17:00etan, Ahotsenea Literatura gunean.
- **Iban Del Campo** Arrasatearraren *Sorbeltza* film laburraren emanaldia Kimuak Laburmetraiak ekimenaren baitan,18:00etan, Irudienean, Zugaza zinema aretoan.
- **Aitor Alberdi** Bergararrak ekoiztu duen *Vida i miracles d'una papallona* film laburra LaburmetraDA ekimenaren baitan, 19:00etan, Irudienean, Zugaza zinema aretoan.

**Abenduak 8**

- **Xup taldea** *Beita* websaila, 12:00etan, Irudienean, Zugaza zinema aretoan.

**Abenduak 9**

- **Iker Martinez eta Zaldi Herrenak** *Arnasaldiak* dokumentala, 11:00etan, Irudienean, Zugaza zinema aretoan.
- **Pako Aristi** Oñatiko Gure Bazterrak taldearekin elkarlanean argitaratutako *Irunberri, 1990: Arroilaren negarra* liburuan aurkezpena,11:30ean, Ahotsenea Literatura gunean, Musika Eskolan.
- **Perlata** Arrasateko musika taldearen *Punkaren beste aldea* dokumentala, 13:45ean, Irudienean.
- **Etxepe** Arrasateko musika urbano taldearen *Etxepe Kids* diskoaren aurkezpena, 18:00etan, Ahotsenea Musika gunean, Plateruenan.

**Abenduak 10**

- **Jose Mari Berasategi** lazko Jokin Zaitegi sariketako irabazlea *Euskadi sariak-Literatura eta bidaiak* mahai inguruan izango da Arantxa Urretabizkaiarekin eta Ander Izagirrerekin, 16:30ean, Talaia Landakogunean.


Goienakideen txokoa

**AZAROKO IRABAZLEAK**

ERRIGORAKO SASKIA
Nieves Miguel Quintero (Arrasate)

HARREMAN DENDAKO OTARREA
Uxue Sanz Errasti (Bergara)

ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK
Maider Perez Martinez (Eskoriatza)
Nerea Urteaga Elcoroiribe (Bergara)
Ainhoa Zabaleta Igartua (Oñati)

MAUXKA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Ana Iñarra Murua (Oñati)

VENTI GASTRO ITALIA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Antxon Gutierrez Miranda (Arrasate)

MAULANDA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Ander Hernandez Akizu (Aretxabaleta)

'BELAR HOSTOAK' KONTZERTURAKO SARRERAK
Onintza Legorburu Larrea (Antzuola)
Margarita Oregui Alberdi (Bergara)

REALAREN ETA SEVILLAREN ARTEKO PARTIDARAKO SARRERAK
Iker Arostegi (Arrasate)

SARIAK JASOTZEKO:
**Arrikrutzeko sarrerak.** Goiena Klubeko txartela erakutsita bina sarrera izango dituzue Arrikrutzeko txartelategian. Sarrerek hiru hilabeteko epemuga izango dute. ARRIKRUTZ KOBAK. Araotz auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Ordutegia: asteartetik igandera 10:00 - 17:00 (aurrez deitu hitzordua egiteko) Harreman dendako otarrea. **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Saskia,** zatoz GOIENAren egoitzara. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA aditzera eman beharko da. GOIENA Otalora Lizentziaduna 31. Arrasate. 943 25 05 05. Ordutegia: astelehenetik eguenera 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00

**Irabazi bi lagunendako sarrerak**

Tartean Teatroa elkarteari esker
'Kortxoaren dilema' ikuskizunerako sarrerak ditugu.
Bergara | Seminarixoa | Abenduak 16 | 20:00

PARTE HARTZEKO:
**E-postaz:** goienakide@goiena.eus **WhatsApp:** GOIENAKIDE "ikuskizuna" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
**'goiena app'-a / zozketa atalean.** Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

**Irabazi bi lagunendako otordua**

TARTUFO JATETXEARI ESKER
Begiratu *Puntua* aldizkariko *Otorduan* atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: abenduak 4.

943 25 05 05 · goienakide@goiena.eus · 'Goiena app'-a / zozketa atalean.

GOIENAKIDE Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailez gozatzeko...



GOIENAKIDE KUOTA: 15 €
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus

DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

## IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**

102. EROSI

**Debagoiena.** Etxebizitza erosi nahiko nuke. Berdin zait egoera. Momentuko ordainketa egin dezaket. Deitu telefono zenbaki honetara: 623 17 95 37

104. ERRENTAN HARTU

**Debagoiena.** Etxe berri bat aurkitzeko urgentzia dugu, lanetik urruti bizi baikara. Etxe edo logela bat hartuko genuke errentan. Oñatin lanean ari den bikote lasaia gara. 602 42 71 27 edo 602 60 03 50

**Eskoriatza, Aretxabaleta edo Arrasate.** Gehienez bi logela duen etxebizitza txiki bat hartuko nuke errentan. Lan egonkorra eta kontratu mugagabea duen mutila naiz. 642 98 98 06

**2. GARAJEAK**

201. SALDU

**Antzuola.** Garaje itxia salgai Antzuolako Ondarre plazan. 699 80 26 55

203. ERRENTAN EMAN

**Garajea Bergaran.** Bergarako Ibargarai auzoan garaje itxia errentan ematen da. Sarrera zabala eta erraza du. Deitu telefono zenbaki honetara: 608 82 91 97

204. ERRENTAN HARTU

**Arrasaten garajea errentan hartu.** Uribarri hiribidean edo Larrean, garajea hartuko nuke errentan. Kotxea handia da. 617 43 61 47

**4. LANA**

401. ESKAINTZAK

**Banatzaileak Eskoriatzan.** Goienak banatzailea behar du Eskoriatzan *Goiena* eta *Puntua* aldizkariak banatzeko. Interesatuok deitu edo idatzi: 943 25 05 05 edo *harpidetza@goiena.eus*

**Bergara: goizetan haurrak zaindu.** Asteartetik ostiralera 08:00etatik 09:00etara pertsona baten bila gabiltza goizetan haurrak zaindu eta ikastolara eramateko. Deitu telefono zenbaki honetara: 617 14 71 25

402. ESKAERAK

**Arrasate edo Bergara.** Zaintza lanetan arituko nintzateke arratsaldez edo astebukaeratan. Telefonoa: 631 90 15 92

**Arrasate eta Aretxabaleta.** Garbiketa lanetan edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 688 84 10 63

**Arrasate.** Etxe, atari, elkarte eta abar garbitzen lan egingo nuke. Horrez gain, asteburuetan eta gauetan nagusiak zaindu edo laguntza emateko prest dagoen emakumea. Soziosanitario titulua dut. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 83 32 44

**Arrasate.** Nagusiak laguntzen, ostalaritzan edo eraikuntzan lan egiteko prest dagoen mutila. Ostalaritzako ikasketak ditut. Deitu telefono zenbaki honetara: 722 51 53 75

**Bergara.** Neska euskalduna prest pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Esperientzia izateaz gain, mendekotasun egoeran dauden pertsonei arreta emateko titulua dut. Gidatzeko baimena eta kotxea ditut. Deitu telefono zenbaki honetara: 673 35 95 98

**Debagoiena.** Arratsaldetan zein asteburuetan lan egingo nuke. Umeak eta nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. Deitu telefono zenbaki honetara: 627 99 71 73

**Debagoiena.** Asteburuetan eta astean zehar orduka lan egiteko prest dagoen neska. Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 63 77 38

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Nagusiak eta umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Soziosanitario ikasketak ditut. Deitu telefono zenbaki honetara: 603 26 66 18

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egiteko prest dagoen emakumea. Pertsona nagusiak zaindu, garbiketa lanak egin edo tabernetan lan egingo nuke. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. Esperientzia dut zerbitzari lanetan. Deitu telefono zenbaki honetara: 643 29 75 77

**BANATZAILEAK ESKORIATZAN**

Goienak banatzailea behar du Eskoriatzan *Goiena* eta *Puntua* aldizkariak banatzeko. Interesatuok deitu edo idatzi: 943 25 05 05 edo *harpidetza@goiena.eus*

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen emakumea naiz. Garbiketa ikasketak ditut. Malgutasun osoa. Deitu telefono zenbaki honetara: 602 44 48 98

**Debagoiena.** Garbiketa lanak eta nagusiak zaintzeko prest dagoen emakumea. Garbiketa ikasketak ditut. Goizez, gauez edo asteburuetan lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 613 11 92 98

**Debagoiena.** Garbiketa, zaintza, tabernari lanak eta beste edozein lan egiteko prest dagoen mutila. Ordutegi aldetik malgutasun osoa dut. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 60 13 62

**Debagoiena.** Gizona gertu nagusiak zaindu, garbiketak edo bestelako lanak egiteko. Deitu telefono zenbaki honetara: 682 40 53 38

**Debagoiena.** Goizez, gauez edo asteburuetan lan egiteko prest dagoen emakumea. Pertsonak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Deitu telefono zenbaki honetara: 631 91 71 69

**Debagoiena.** Haurrak edo nagusiak zaintzeko, zerbitzari lanak egiteko edo garbiketa lanetarako prest dagoen emakumea. Astelehenetik ostiralera orduka lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 672 95 00 91

**Debagoiena.** Mekaniko lanetan aritzeko prest dagoen gizonezkoa. Mekanika munduan ikasketak ditut eta 30 urteko lan esperientzia. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 41 21 47

**Debagoiena.** Nagusiak eta umeak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke etxean bertan bizi izaten edo bestela. Soziosanitario ikasketak ditut. Deitu telefono zenbaki honetara: 612 24 58 16

**Debagoiena.** Nagusien zaintzen lan egingo nuke. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Berehala lanean hasteko moduan. Deitu telefono zenbaki honetara: 611 84 05 82

**Debagoiena.** Nagusien zaintzan, garbiketan edo bestelako lanetan lan egiteko prest dagoen emakumea naiz. Malgutasun osoa dut egunei eta ordutegiei dagokienez. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 79 46 41

**Debagoiena.** Neska arduratsua atarietan eta tabernetan garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko prest. Orduka lan egingo nuke, edozein egun eta ordutegitara moldatu naiteke. Soziosanitario eta lehen sorospenak ikastaroak eginak ditut. Deitu telefono zenbaki: 653 36 85 80

**Debagoiena.** Neska gaztea, arduratsua eta esperientziaduna. Edozein ordutegitara moldatu naiteke; malgutasun osoa. Pertsona nagusiak zein umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Deitu telefono zenbaki honetara: 672 78 04 30

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Soziosanitario ikasketak ditut. Asteburuetan eta astean zehar orduka egin dezaket lan. Deitu telefono zenbaki honetara: 612 56 12 39

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. Arratsaldeetan orduka edo asteburuetan edozein ordutan lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 674 26 96 85

**Debagoiena.** Zaintza edo garbiketa lanak egiteko prest nago aste barruan. 687 45 91 76

**5. IRAKASKUNTZA**

502. EMAN

**Bergara: Ingeleseko klaseak ematen dira.** Bergaran, goizean, eguerdian zein arratsaldean, maila guztietako ingeleseko klaseak ematen ditut, eta Cambridge-ko zein Ingelesa Hizkuntza Eskola Ofizialeko azterketetarako ikasleak prestatzen ditut. Talde txikiak. Harremanetarako deitu 618 91 32 89 telefono zenbakira.

**6. MOTORRA**

602. EROSI

**Land Rover Defender-a erosiko nuke.** Land Rover Defender-a behar dut baserrirako. Berdin dio ze egoeratan dagoen: IAT (Ibilgailuen Azterketa Teknikoa) gabe, matxuratua edo kolpeekin. Deitu telefono zenbaki honetara: 623 17 95 37

**7. ANIMALIAK**

703 . EMAN

**Katakumeak.** Katakumak oparitzen dira. Interesatuok deitu 610 31 02 61 telefono zenbaki honetara.

Korosti inmobiliaria


Bergara: Bidekurutzeta, 55m², erabilgarri, logela 1, igogailua eta garaje itxia aukeran. 187.000€


Bergara: San Antonio, 69m², erabilgarri, 2 logela, terraza, trasteleku eta garajea igogailuarekin. 210.000€


Antzuola: Kalegoi, 126,5m², erabilgarri, 4 logela eta garaje itxia barne eraikin berean. 250.000€

Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com
Informazio gehiago:

**IRAGARKIA JARTZEKO:**

943 25 05 05
SAILKATUAK@GOIENA.EUS
WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## ZORION AGURRAK


ARRASATE
**Fernando Ojea**
8an, 67 urte. Zorionak, mutil! Ondo ospatu zure urtebetetzea. Besarkada haundi bat guztion partetik.


OÑATI
**Izaro Markuleta Kortajarena**
7an, 6 urte. Gure etxeko txikia haunditzen dabil. Zorionak, maittia.


OÑATI
**Elur Biain Ignacio**
7an, 4 urte. Zorionak! 4 urtetxo ia gure mutikotxuak. Muxu pila bat familixaren partetik.


BERGARA
**Arane Ziarsolo Barrero**
7an, 6 urte. Ondo pasa zure urtebetetze eguna. Muxu zaparrada etxekuen partetik.


BERGARA
**Mikel Aramendi Kortazar**
6an, 40 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasau. Familiaren partetik.


ARETXABALETA
**Mila San Vicente**
6an, 69 urte. Zorionak, guapetona! Ondo pasau. Muxu potolo bat guztien partetik.


ARRASATE
**Inma Romero eta Catalina de Anta**
Inma Romerok abenduaren 4an 53 urte eta Catalina de Antak abenduaren 8an 84 urte. Zorionak! Oso ondo pasatu eguna. Familiaren eta bereziki Uxueren partetik.


BERGARA
**Maddi Elexpuru Gonzalez**
4an, 7 urte. Zorionak! Ondo pasatu! Maite zaitugu! Patxo bat familiaren partetik!


OÑATI
**Enara Arrazola Aranburu**
3an, 9 urte. Zorionak! Segi bizitzay topera disfrutatzen. Patxo haundi bat etxekuon partetik.


BERGARA
**Felix Agirre Larrañaga**
2an, 53 urte. Zorionak, aita! Ondo pasatu zure eguna. Asko maite zaitut. Muxu haundi bat.


ARRASATE
**Luka Herrera Yarza**
2an, urtebete. Zorionak! Aita, ama, amama, aitita, Eider, Gorka eta bereziki Liher eta Nile.


OÑATI
**Oihan Robles Madinabeitia**
1ean, 7 urte. Zorionak! Ondo pasa zure urtebetetze eguna. Muxu bat familiaren partetik.


ARETXABALETA
**M. Carmen Vila**
1ean, 61 urte. Ondo pasau eguna eta urte askotarako. Guztion partetik muxu potolo bat.


OÑATI
**Iraia Marquez Gomez**
Abenduaren 1ean, 12 urte. MUAAA!!!!!!!!!!


OÑATI
**Markel Zabaleta Legaristi**
30ean, 8 urte. Zorionak! Ondo pasatu zure egunian. Patxo bat familiaren partetik.


ARETXABALETA
**Eñaut Arkauz Vitoriano**
30ean, 11 urte. Zorionak, maittia, danon partetik! Ondo-ondo ospatu! Asko maitte zaittugu!


BERGARA
**Ilargi Goenaga**
27an, 2 urte. Zorionak! Ondo pasatu zure eguna! Asko maite zaitugu! Patxo bat familiaren partetik!


BERGARA
**Asier Sanchez Gonzalez**
27an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu. Muxu bat familia osoaren partetik.

## ASTEA GOIENA TELEBISTAN




**EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA**
Egun horren harira antolatutako ekintzen gaineko saio berezia egingo dute.
***'Hemen Debagoiena'*** *Egubakoitza, 18:00, 20:00 eta 22:00.*



**'BIXI IBILI!' ANTZUOLAN**
Galdera-erantzunen jolasarekin joango da antzuolarrengana Aitor Agiriano.
***'Bixi ibili!'*** *Martitzena, 19:30, 21:30 eta 23:30*




**'FANTASIA DA!' MAGAZINA**
Azoka telebistak Durangoko Azokan ekoiztutako eguneroko magazina, abenduaren 6tik 10era.
***'Fantasia DA!'*** *Abenduaren 6tik 10era, 20:00 eta 22:00*

GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
***goiena.eus/telebista***
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

## BERRI-ZAKUA



**Ana Mari eta Melchor**
Zorionak, bikote! 50 urte batera! Familia guztiaren partetik, zoriontsu jarraitu.

---

OROIGARRIA

### Gori Larrañaga Gallastegui



2023ko azaroaren 29an hil zen, 91 urte zituela.

*Eskerrik asko emandako maitxasun guztiagatxik, amama.*
*Zurekin bizitako oroitzapen ederrak gurekin geratuko dira.*
*Beti izango zaitxugu gure bihotzetan.*

Zure bilobak.
Bergaran, 2023ko abenduaren 1ean.

---

OROIGARRIA

### Pedro Herrero Lopez

'Bedoña'



2023ko azaroaren 26an hil zen.

*Zenbat istorixa, kontu eta barre elkarrekin.*
*Eskerrik asko erakutsitako guztiagatik.*
*Aurrera Bolie!*
—
Eskerrik asko modu batera edo bestera gure ondoan egon zareten guztioi. Besarkada bana etxekoen partetik.

Etxekuak.
Arrasaten, 2023ko abenduaren 1ean.

---

MEZA

### Serafina Guerra Airas

Jose Eizaguirreren alarguna



2023ko azaroaren 19an hil zen, 91 urte zituela.

Haren aldeko meza
zapatuan izango da, abenduaren 2an,
19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2023ko abenduaren 1ean.

---

ESKER ONA

### Jose Luis Bolinaga Askasibar



2023ko azaroaren 24an hil zen, Eibarren, 78 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Elgetan, 2023ko abenduaren 1ean.

---

ESKER ONA

### Maria Luisa Garate Unamuno



2023ko azaroaren 26an hil zen, 92 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2023ko abenduaren 1ean.

---

ESKER ONA

### Roman Gallastegui Unamuno



2023ko azaroaren 24an hil zen, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2023ko abenduaren 1ean.

---

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
edo *eskelak@goiena.eus*

▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 200 € / Goiena Klubeko bazkideendako 175 €
▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 175 € / Goiena Klubeko bazkideendako 155 €
**Goiena: irakurriena Debagoienean.**

BABESLEA
Oroilore
Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Guri deitu zaizenean edo, nahiago baduzue, jakinarazi zuen asegurukonpainiari gurekin nahi duzuela agurtu maite duzuena.

Marioren, Ibanen, Maribiren eta Cristianen partetik, besarkada magikoak zuentzako, bihotza sendatzeko balio duten horietakoak. Guk baditugu gordeta zuentzako, gure beharra duzuenerako.
Mario, Iban, Maribi eta Cristian



Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

# AGENDA

**EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 1

**OÑATI Kultura eta natura irteera erretiratuendako**
Chillida lantokia, Zeraingo eliza eta Aizpeako meategiak ezagutuko dituzte.
*Postetxean, 08:20an.*

**OÑATI Odol ematea**
Urteko azkena. Aurrez hartu beharko da ordua: 943-00 78 84.
*Enpresagintzan, 16:30ean.*

**ELGETA Ipuinen Ordua**
17:30ean, HH2ko, 3ko eta 4ko umeendako; 18:00etan, HH5eko, LH1eko eta 2koendako; eta 18:30ean, LHko gainerakoendako.
*Liburutegian.*

**BERGARA Buztinzale Zeramika Elkartekoen erakusketa**
Ikasturtean zehar egindakoak erakutsiko dituzte. Gaurtik hilaren 17ra arte egongo da ikusgai.
*Aroztegin, 18:00etan.*

**ARRASATE Santamasetako bazkarirako txartel salmenta**
Gaurtik, Uarkapeko leihatilan. Bakoitzak bost txartel erosi ahal izango ditu gehienez.
*Uarkapen, 19:00etan.*

**ARRASATE Kaos Urbano eta Nafarroa 1512 taldeak**
Street punk eta oi! doinuak izango dira nagusi.
*Gaztetxean, 22:00etan.*

## ZAPATUA 2

**OÑATI Txondorraren bueltako irteera, hitzaldia eta erakustaldia**
Artasoko zuhaitz-motzen ibilbidea egingo dute. Bidean zehar, Alvaro Aragon Ruanok azalpenak emango ditu, eta pago-mozte erakustaldia ere egingo dute.
*Arantzazuko aparkalekuan, 10:00etan.*

**BERGARA Bergarako jaiak: batzarra**
Txosna guneko kontuak antolatzen hasteko batzarra. Irekia.
*Ehunduren bulegoan, 11:30ean.*

**ARRASATE AEDren urteurren festa**
12:00etan, ekitaldia Kulturaten; 13:00etan, alde zaharrean bisita Anabel Ugalderen eskutik; eta 14:30ean, baba-jana Uarkapen.
*Arrasaten.*

**ARRASATE 'Anbotoko Mari' antzezlana**
Umeendako, Logela Multimediaren eskutik. Antzerkia, bideo-animazioa, interakzioa eta musika biltzen dituen antzezlan multimedia da. Sarrerak, bost euro.
*Amaia antzokian, 18:00etan.*

**OÑATI 'Emeen kemen' ipuin kontaketa**
Helduendako saioa egingo du Maider Alcelayk.
*Araozko ostatuan, 19:30ean.*

**BERGARA 'AMAraun' ikuskizuna**
Musika, kantua eta dantza uztartzen ditu Oihana Iguaranen eta Amaiur Luluagaren lanak. Sarrerak, zortzi euro.
*Seminarixoan.*

**ANTZUOLA Sukena eta Lemak taldeak**
Doinu goxoak Oñatiko eta Antzuola-Bergarako taldeen eskutik. Debalde.
*Gaztetxean, 22:00etan.*

**OÑATI Letagin eta Niña Coyote eta Chico Tornado**
Rock eta stoner doinuak. Letagin taldeak gainera *Zurrunbiloan* diskoa aurkeztuko du herrikideen aurrean. Sarrerak, hamar euro.
*Gaztelekuan, 22:30ean.*

## DOMEKA 3

**ELGETA Bisita gidatua Intxortako frontea ezagutzeko**
Izena emateko: 943-79 64 63 edo *turismo@debagoiena.eus*.
*Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.*

**BERGARA 'El Laberint' instalazioa**
Itinerània konpainiaren eskutik. Parte-hartzailea da, adin guztientzat gomendagarria. Ordutegia: 11:00-14:00 eta 17:30-20:30.
*San Martin plazan.*

**OÑATI 'Oñatz, gorputza eta arima' erakusketa: azken eguna**
Gaur da Asier Egañaren argazki bilduma ikusteko azken eguna.
*Parrokiako klaustroan, 11:00etan.*

**BERGARA Ohe elastikoak**
Bedelkarren eskutik.
*Munibe plazan, 12:00etan.*

**OÑATI Ilunpeko altxorrak Arrikrutzen**
Familian, hiru urtetik gorako umeekin egiteko moduko plana. Prezioa: zortzi euro pertsonako. Izena emateko: 943-08 20 00.
*Arrikrutzen, 15:00etan.*

## ASTELEHENA 4

**ARETXABALETA 'Opil eta Muxilen binetak: komiki lesbikoak bi ertzetatik' erakusketa**
Gehitu eta Mugen Gainetik elkarteek argitaratutakoak. Abenduaren 22ra arte egongo dira ikusgai, astelehenetik zapatura.
*Arkupen, 11:00etan.*

**DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko. Arrasaten, Oñatin, Bergaran eta Antzuolan egingo dituzte.
*Herri horietako plazetan, 11:00etan.*

## MARTITZENA 5

**ARRASATE 'Monstruo' pelikula**
Hirokazu Koreedaren pelikula, martitzenetako emanaldian.
*Amaia antzokian, 19:30ean.*

## EGUAZTENA 6

**OÑATI 53. galeriara bisita**
Online egin behar da erreserba: *www.ruralgest.net.*
*Arrikrutzen, 10:00etan.*

**OÑATI Espeleotxiki**
6 urtetik gorako umeendako abentura. Prezioa: hogei euro pertsonako. Izenak: 943-08 20 00 edo *arrikrutz@onati.eus.*
*Arrikrutzen, 10:30ean.*


LA CUERDA TEATRO

**ARETXABALETA 'Euli dantza' antzezlana**
La Cuerda Teatro konpainiaren eskutik. Bizilagunen komunitate batean emakume zahar baten gorpua topatu dute, astebeteren ostean. Sarrerak, bost euro.
*Abenduaren 7an, Arkupen, 19:00etan.*

**OÑATI Arantzazu santutegian bisita gidatua**
10:30ean euskaraz eta 12:30ean gazteleraz. Prezioa: bi euro pertsonako. Izenak: 943-79 64 63.
*Arantzazu, 10:30ean.*

**BERGARA Lorategi historikoen bisita gidatua**
Herriko lorategi esanguratsuenak ezagutzeko aukera. Izen-ematea: 943-76 90 03
*Laboratoriumen, 11:00etan.*

**OÑATI Kakaoaren bidaia eta Vasco-Navarro trena**
Vasco-Navarro trenak Oñatin eta kakaoan izan zuen garrantzia eta zerikusia azalduko dute. Prezioa: hiru euro pertsonako. Erreserbak: 605 76 35 95.
*Txokolateixan, 12:00etan.*

**BERGARA Bergara monumentala bisita gidatua**
Herriko monumentu esanguratsuenak ezagutzeko aukera. Izenak: 943-76 90 03.
*Laboratoriumen, 12:30ean.*

**OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua**
Sancti Spiritus unibertsitatea eta San Migel parrokia ezagutzeko aukera. Izenak: 943-78 34 53.
*Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

**ARETXABALETA 'Magia berri on!' ikuskizuna**
Eleder magoaren eskutik. Sarrerak, hiru euro.
*Arkupen, 17:00etan.*

**ELGETA Escamot Català taldearekin Herrixan Dantzan**
19:00etan, dantzaldia; 21:00etan, partekatze-afaria; eta 22:30ean, ostekoa. Sarrera irekia. dantzaldia
*Espaloian.*

## EGUENA 7

**OÑATI 53. galeriara bisita**
Online egin behar da erreserba: *www.ruralgest.net.*
*Arrikrutzen, 10:00etan.*

**ARRASATE Sasoibide**
Ibilbideetako bat Olandixora izango da, eta bestea Miraballesera.
*Biteri plazan, 10:00etan.*

**OÑATI Arantzazu santutegian bisita gidatua**
10:30ean euskaraz eta 12:30ean gazteleraz. Prezioa: bi euro pertsonako. Izenak: 943-79 64 63.
*Arantzazu, 10:30ean.*

**BERGARA Laboratoriumen bisita gidatua**
Museoa barrutik ezagutzeko aukera, euskaraz. Izenak: 943- 76 90 03.
*Laboratoriumen, 11:00etan.*

**OÑATI Kakaoaren bidaia eta Vasco-Navarro trena**
Vasco-Navarro trenak Oñatin eta kakaoan izan zuen garrantzia eta zerikusia azalduko dute. Prezioa: hiru euro pertsonako. Erreserbak: 605 76 35 95.
*Txokolateixan, 12:00etan.*



GOIENA

**OÑATI Kandelen Gaua**
Kandelekin argiztatuko dute Sancti Spiritus Unibertsitateko klaustroa iluntzen duenean, eta era horretara egongo da herritarrek ikus dezaten. Debalde.
*Abenduaren 8an, unibertsitate zaharrean, 18:00etan.*

**BERGARA 'Emakumeak botanikan' bisita gidatua**
Izen bereko erakusketan, gazteleraz. Izena: 943-76 90 03.
*Laboratoriumen, 12:30ean.*

**OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua**
Sancti Spiritus unibertsitatea eta San Migel parrokia ezagutzeko aukera. Izenak: 943-78 34 53.
*Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

**ARETXABALETA 'Euli dantza' antzezlana**
La Cuerda Teatro konpainiaren eskutik. Bizilagunen komunitate batean emakume zahar baten gorpua topatu dute. Sarrerak, bost euro.
*Arkupen, 19:00etan.*

## EGUBAKOITZA 8

**OÑATI 53. galeriara bisita**
Online egin behar da erreserba: *www.ruralgest.net.*
*Arrikrutzen, 10:00etan.*

**OÑATI Arantzazu santutegian bisita gidatua**
10:30ean euskaraz eta 12:30ean gazteleraz. Izenak: 943-79 64 63.
*Arantzazu, 10:30ean.*

**BERGARA Laboratoriumen bisita gidatua**
Museoa barrutik ezagutzeko aukera, euskaraz. Izenak: 943-76 90 03.
*Laboratoriumen, 11:00etan.*

**OÑATI Kakaoaren bidaia eta Vasco-Navarro trena**
Vasco-Navarro trenak Oñatin eta kakaoan izan zuen garrantzia eta zerikusia azalduko dute. Prezioa: hiru euro pertsonako. Erreserbak: 605 76 35 95.
*Txokolateixan,12:00etan.*

**OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua**
Sancti Spiritus unibertsitatea eta San Migel parrokia ezagutzeko aukera. Izenak: 943-78 34 53.
*Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

**OÑATI Ilunpeko altxorrak Arrikrutzen**
Familian, 3 urtetik gorako umeekin egiteko moduko plana. Izenak: 943-08 20 00.
*Arrikrutzen, 15:00etan.*

**OÑATI Kandelen Gaua**
Kandelekin argiztatuko dute Sancti Spiritus unibertsitatearen klaustroa. Debalde.
*Unibertsitatean, 18:00etan.*

## ZAPATUA 9

**OÑATI 53. galeriara bisita**
Online egin behar da erreserba: *www.ruralgest.net.*
*Arrikrutzen, 10:00etan.*

**OÑATI Arantzazu santutegian bisita gidatua**
10:30ean euskaraz eta 12:30ean gazteleraz. Izenak: 943-79 64 63.
*Arantzazu, 10:30ean.*

**OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua**
Sancti Spiritus unibertsitatea eta San Migel parrokia ezagutzeko aukera. Izenak: 943-78 34 53.
*Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

**OÑATI Espeleotxiki**
6 urtetik gorakoendako abentura. Izena: 943-08 20 00.
*Arrikrutzen,15:00etan.*

## DOMEKA 10

**OÑATI 53. galeriara bisita**
Online egin behar da erreserba: *www.ruralgest.net.*
*Arrikrutzen, 10:00etan.*

**OÑATI Arantzazu santutegian bisita gidatua**
10:30ean euskaraz eta 12:30ean gazteleraz. Izenak: 943-79 64 63.
*Arantzazu, 10:30ean.*

**ARETXABALETA Kresimir Lulic-en akordeoi kontzertua**
Arrasateko Nazioarteko Akordeoi Lehiaketako iazko irabazlea.
*Arkupen, 12:30ean.*

**ARETXABALETA Loramendiren 30. urteurrena**
Elkartea eratu zeneko zuzendaritza batzordea omenduko dute.
*Udaletxe zaharrean, 12:30ean.*

**OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua**
Sancti Spiritus unibertsitatea eta San Migel parrokia ezagutzeko aukera. Izenak: 943-78 34 53.
*Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**La ermita**
Domeka eta astelehena: 19:30.

**Abentura erraldoia**
Domeka: 17:00.

### BERGARA

**SEMINARIXOA**

**La ermita**
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 19:30.

**Doraemon: Nobitaren dinosauro berria**
Domeka: 17:00.

### OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**Napoleón**
Egubakoitza (jatorrizko bertsioan): 22:00.
Zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.

**Alan txikia**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### ARETXABALETA

**ARKUPE**

**Sound of freedom**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua eta domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

### GASTEIZ

**FLORIDA**

**El chico y la garza**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**El maestro que prometió el mar**
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 19:15, 21:30.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00.

**The Marvels**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Trolls 3**
Egubakoitza eta martitzena: 17:00.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00.
Astelehena: 17:30.

**En nombre de la tierra**
Egubakoitzetik martitzenera: 17:00.

**La Navidad en sus manos**
Egubakoitza eta martitzena: 16:30, 18:30, 20:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 18:30, 20:30.
Astelehena: 17:15, 19:30.

**Ocho apellidos marroquís**
Egubakoitza eta martitzena: 17:00, 19:00, 21:15.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 19:00, 21:15.
Astelehena: 17:30, 19:30.

**Teresa**
Egubakoitza, zapatua eta martitzena: 17:00, 21:30.
Domeka: 16:45, 21:30.
Astelehena: 17:00.

**El poder de los Dioses**
Egubakoitza: 17:00, 17:30, 19:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 17:30, 19:30.
Astelehena: 17:15, 19:15.
Martitzena: 16:30, 17:00, 19:00.

**El viejo roble**
Egubakoitza, zapatua eta domeka: 19:00, 21:30.
Astelehena: 19:30.
Martitzena: 19:15, 22:00.

**Llegó a mí**
Egubakoitza eta zapatua: 19:00, 22:30.
Domeka: 22:00.
Astelehena: 17:15, 19:30.
Martitzena: 18:30, 22:30.

**Napoleón**
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:30, 21:15.
Domeka: 16:30, 19:00, 21:30.
Astelehena: 17:00, 20:00.
Martitzena: 16:30, 19:30, 20:45.

**Vidas pasadas**
Zapatua eta domeka: 12:00.

KRITIKA

### Vidas pasadas

★★★☆☆

**Zuz.:** Celine Song. **Herr.:** AEB (2023). **Aktoreak:** Greta Lee, Teo Yoo, John Magaro. **Iraupena:** 105 minutu.

## Konexio berezia

**ANTONIO ZABALA**

Nora eta Hae Sung konexio berezia duten bi haur dira. Adiskidetasun eta amodio sentimenduak daude bi haurren arteko harremanean. Korean bizi dira, baina Noraren familiak Torontora bizitzera joatea erabakitzen du; gero, Nora New Yorkera joango da, eta, bat-batean, bi haurrek kontaktua galduko dute. Bizitzak bi haurrak urruntzen ditu, baina bien artean sortutako lotura emozionala ez da inoiz erabat hautsiko. Istorioa 24 urtetan garatzen da. 12 urte geroago, Interneten bidez berriz kontaktuan jartzen direnean, eta beste 12 urte geroago New Yorken, bien arteko benetako topaketa gertatzen denean.

Filmaren lehengo bi zatiak arruntagoak dira. Hasieran, bikotea haurrak dira eta, gero, gazteak. Hirugarren zatian; nahiz oraindik gazteak izan, pertsonaiek badute bizi-ezagutza bat, eta bizitzak bidea markatu die. Atzera begiratu dezakete, atzean utzi dutena eta urte horietan lortutakoa ikusi.

Celine Song zuzendariak ondo islatzen du bikoteak sentitzen duena berriz elkartzerakoan, eta bien artean sortzen den giroa. Hasierako nolabaiteko lotsa eta deserosotasun sentsazioetatik abiatuta, elkarrekin orduak pasatzen dituzten neurrian, berriz haurtzaroan sortutako sentimenduak berreskuratzen dituzten arte. *Vidas pasadas* sentiberatasunez egindako film polit eta malenkoniatsua da. Ikusteko modukoa.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

goiena
Zu hemen zaude.

AZKEN BERBA



ANDER ETXEBERRIA

## Atzo, gaur eta bihar

Ohikoa da entzutea lehengo garaiak hobeagoak zirela. Iraganean langileagoak, solidarioagoak eta abar ginela esan ohi da. Ez dut uste horrela denik. Azalean zimur gutxiago genuela, seguru baietz, baina izaera, lehen eta gaur, antzerakoa da.

Elmako jaiak dira Arrasaten, auzo (nolabait) berriei dagokienez, arrakastatsuenak. Sekulako jendetza batzea lortzen dute. Urbanizazio sortu berrietan bikote gazte asko izaten da, eta horiekin, umeak. Eta seme-alaba txikiak gurasoentzat bultzada garrantzitsua dira jaiak prestatzeko. Hala ere, urteak igaro ahala, ume izateari uzten diote, eta auzoko festak ez zaizkie hain erakargarriak egiten. Ondorioz, antolatzaileek hasierako urteetako pizgarria galdu eta jaiak beste fase batean sartzen dira.

Ea oker nagoen, baina imajinatzen ditut hemendik adibidez hogei urtera Elmako jaien antolatzaileak hauxe esaten: "Ai ene, gaur ez dago kooperaziorako espiriturik; sasoi hartan bai sartzen genituela orduak dena organizatzen eta bai inplikatzen zela jendea!".

Edonola ere, atzo eta gaur presente dago elkarlanerako grina, eta bihar ere aukerak izango dira agerian jartzeko.

BUKATZEKO

# Euskara neguko ilunetik argitzen hasi zenekoa

"Negua luzea izan zen euskararentzat, gogorra izotzaldia. Halako batean, eguzki-printzak agertu ziren...". Hala irakur daiteke Bergarako Udalak eta Badihardugук ondu duten liburuaren –'Izotz ondoko eguzki'– atzeko aldean

**Eneko Azkarate Laspiur** BERGARA

1936ko Gerra osteko Bergarako historia soziala jasotzen duen liburua, *Izotz ondoko eguzki* izenburua duena, aurkeztuko dute gaur, egubakoitza, Bergarako udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan. 19:00etan izango da, eta bertan izango da liburuaren egilea, Idoia Etxeberria (Oñati, 1977), Badihardugu elkarteko kidea, eta, harekin batera, Eider Usobiaga Euskara batzordeburua eta Gorka Artola alkatea.



*Izotz ondoko eguzki. Bergarako euskararen historia soziala (1940-1980)* liburua. GOIENA

### Proiektu oso baten parte

Proiektu oso baten parte da orain argitara eman den liburua. Bergaran, euskararen historia soziala (1940-1980) kontatzea helburu duen egitasmoa, hain justu ere. Iazko azaroan, gaiaren gaineko ikus-entzunezko bat argitaratu zen, eta erakusketa antolatu zen Aroztegi aretoan. "Egitasmoari 2020an ekin zitzaion. Urte horretan, herriko hainbat lagunez osatutako Batzorde Eragile bat eratu zen, eta Badihardugu elkartearekin hitzarmena egin zen gaia lantzeko. Lehenengo fasean, Gerraosteko euskalgintza aztertu da, 1940tik 1980rako tartean. Garai horretako mugimenduaren lekuko eta partaide izan ziren 33 lekuko elkarrizketatu dira, eta horien lekukotzak *Ahotsak.eus* webgunean jasota daude. Jasotako eduki hori plazaratzeko, hainbat bide erabili ziren 2022an: erakusketa, bideoa, hitzaldiak...". Estepan Plazaola Bergarako Udaleko euskara teknikariaren berbak dira. "Aurten, orain arte jasotako edukia zabaltzeko beste euskarri bat erabili dugu: liburua", gehitu du Plazaolak.

Idoia Etxeberriak idatzi du, Batzorde Eragileko zenbait kideren laguntzarekin. Egileak zera dio proiektuaren gainean: "Harrigarria eta txalogarria da Bergaran 1960ko eta 1970eko hamarkadetan euskararen alde zer nolako mugimendua egon zen ikustea". Eta zera gehitu du: "Gerraosteko mugimenduak eta lanak behar bezala jaso gabe zeuden, 50-80 hamarkaden bitartekoak, eta horixe da Badihardugu elkarteari eskatu ziona: hainbat alorretako pertsonak, protagonistak, elkarrizketatu, eta testigantzak lantzea, ondoren ezagutzera emateko".

### Eskoletan erabiltzeko

Gaur aurkezten den eta dagoeneko Bergarako udaletxean salgai dagoen –10 euroren truke– liburuak proiektuari egiten dion ekarpenaren gainean galdetuta, zera erantzun du Etxeberriak: "Zerbait dibulgatiboa egin nahi genuen, argazki eta irudi askorekin, herritar guztientzat erakargarria izango zena eta herriko historia ezagutarazteko aukera emango duena. Esku artean hartu daitekeen zerbait, nahi bestetan begiratzeko modukoa. Ikastetxeetan ere erabiltzeko modukoa, bideoarekin batera". Durangoko Azokan egongo da, Badihardugu elkartearen txokoan.

### Aurrera begira

Proiektua ez da hemen geratuko. Aurrera begira, badago asmoa oraindik lekukotza gehiago ere jasotzeko. Era berean, orain arteko edukia zabaltzeko, "bideo tematikoak, arlo jakin bati buruzkoak, adibidez, kantagintzari buruzkoak, sortzea" ere aurreikusten dela aurreratu du Estepan Plazaolak. Horretaz gain, "beste garai batzuetako historia soziala lantzeko ikerlanak ere bultzatuko" direla esan du.

Liburua idatzi eta forma emateko ardura Idoia Etxeberriak izan du, baina "elkarlanean egindako lana" dela dio oñatiarrak. "Zazpi pertsonaren laguntza izan dut: Juan Martin Elexpuru, Jerardo Elortza, Jaione Isazelaia, Anaje Narbaiza, Arantzazu Oregi, Eneko Oregi eta Estepan Plazaola", amaitu du.

Iazko Aroztegiko erakusketan bezala, gaur batuko dira liburuko hainbat protagonista udaletxeko aurkezpenean.

'FANTASIA DA!'
AZOKA TELEBISTA
ABENDUAREN 6TIK 10ERA, 20:00 ETA 22:00
DURANGOKO AZOKAREN BUELTAKO MAGAZINA
DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA
goiena
Zu hemen zaude.

